

INFORMAZIOA ETA DIAGNOSTIKOA

ORIOKO HIRI ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORRA

2014ko iraila

TALDE IDAZLARIA:

ZUZENDARITZA:

Mikel Iriondo Iturrioz, abokatua
Santiago Peñalba Garmendia, arkitektoa
Manu Arruabarrena Florez, arkitektoa

IDAZLARIAK:

Mikel Iriondo Iturrioz, abokatua
Santiago Peñalba Garmendia, arkitektoa
Manu Arruabarrena Florez, arkitektoa
Carmen Segurola Lázaro, geografoa

KOLABORATZAILEAK:

Pedro Azkue Elozegi, BUP ingeniaria (ENDARA Ingenieros Asociados, S.L.)
Juan Ignacio Cortés Arzallus, delineazioa eta edizioa
Maria Jose Fernandez Calonge, delineazioa eta edizioa

GAINBEGIRATZE TEKNIKOA ETA UDAL-INFORMAZIOA

Alkatea (eta hirigintza-zinegotzia): Beñat Solaberrieta Albizu.-
Teknikari juridikoa: Ibai Lertxundi Iribar.
Arkitektoa: Pilar Azurmendi Echegaray

AURKIBIDEA

MEMORIA

Orrialdea

I.- SARRERA.

I.1. Xedea.	1
I.2. Lurralde-eremua	1
I.3. Aurrekariak.	1
I.4.- Plan Orokorra egiteko esparru orokorra.	1
I.5. Plangintza-irudiaren hautaketa.	2
I.6. Dokumentuaren edukia.	2

II.- INFORMAZIOA.

II.1. Lekua. Ikuspegi geografikoa eta historikoa.	3
II.2. Asentamenduak: biztanleria, ekonomia-jarduerak eta etxebizitza.	4
II.3. Hiri-ingurunea. Egungo egoera	47
II.4. Alde zaharra.....	48
II.5. Mugikortasuna.	49
II.6. Ingurune fisikoa.....	53
II.7. Oria itsasadarra	71
II.8. Zerbitzu-azpiegiturak	72
II.9. Aplikatu beharreko lurralde-antolamenduko xedapenak.	74
II.10. Indarreko hirigintza-plangintza.	79
II.11. Oria itsasadarraren ertzen antolamendua eta bere baldintzatzaileak.	84
II.12. Oriko portua.	87
II.13. Udalerrri mugakideen erreferentzia	88
II.14. Zarata	88
II.15. Udalak sustatutako lanak.....	89

III.- DIAGNOSTIKOA.

III.1. Diagnostiko sozioekonomikoa	89
III.2. Ingurune fisikoari buruzko diagnostikoa	92
III.3. Hirigintzako diagnostikoa.	93
III.4. Etxebizitzari buruzko diagnostikoa..	95
III.5. Mugikortasunari buruzko diagnostikoa..	95
III.6. Zerbitzu-azpiegiturei buruzko diagnostikoa.	96
III.7. Beste gai batzuk	97
III.8. Ondorioak	98

AURKIBIDEA

PLANOAK

Eskala

I.- INFORMAZIOA

I.1	Orioren kokapena Gipuzkoan.	1:200.000
I.2	Orioren kokapena Urola Kosta Eremu Funtzionalean.	1:50.000
I.3	Udalerria. Mugapena, egungo egoera eta toponimia.	1:15.000
I.4	Udalerria. Ortofotoa.	1:15.000
I.5	Komunikazio-sistema eta mugikortasuna.	1:15.000
I.6	Hipsometria.	1:15.000
I.7	Sare hidrografikoa. Iturburuak, azaleko bilketak eta iturriak.	1:15.000
I.8	Landaredia eta lurzoruen erabilerak.	1:15.000
I.9	Uholde-arriskuak.	1:15.000
I.10	Ibaien eta erreken LAPeko zehaztapenak.	1:15.000
I.11	Hezeguneen LAPeko zehaztapenak.	1:15.000
I.12	Itsasertsaren LAPeko zehaztapenak.	1:15.000
I.13	Kutsatuta egon litezkeen lurrak.	1:15.000
I.14	Lurzoruen higadura.	1:15.000
I.15	Landa-asentamenduak. Eraikinak eta partzelak.	1:15.000
I.16	Zerbitzu-azpiegiturak. Ur-hornidurako sare nagusia.	1:15.000
I.17	Zerbitzu-azpiegiturak. Saneamendu-sare nagusia.	1:15.000
I.18	Zerbitzu-azpiegiturak. Energia Elektriakoaren eta Argiteriaren sare nagusia.	1:15.000
I.19	Zerbitzu-azpiegiturak. Gasaren eta telekomunikazioen sare nagusia.	1:15.000
I.20	Urola Kosta Eremu Funtzionaleko LAPeko xedapenak.	1:15.000
I.21	Ondare arkitektonikoa eta arkeologikoa. Udalerria.	1:15.000
I.22	Ondare arkitektonikoa eta arkeologikoa. Hirigunea.	1:1.000

I.22 INDARREKO PLANGINTZA

I.22.1	Zonakatze orokorra. Hiri-ingurunea.	1:5.000
I.22.2	Zonakatze orokorra. Udalerria.	1:10.000
I.22.3	Hirigintza-sailkapena. Udalerria.	1:10.000
I.22.4	Hirigintza-eremuak. Egungo egoera.	1:10.000
I.22.5	Zonakatze xehatua.	1:10.000

II.- DIAGNOSTIKOA

II.1	Diagnostikoaren sintesi grafikoa.	1:10.000
------	--	----------

Oharra: Memorian jasota daude honako hauei buruzko grafikoak ere: "Interes geologikoko eremuak", "Geomorfologia" "Egin gabekoak" "Mota agrologiakoak", "Natura-intereseko eremuak", "Paisaia" eta "Gipuzkoako Bizikleta Bideen LAP".

I. SARRERA

I.1.- Xedea

2013ko uztailaren 24ko ebazpenaren bitartez, Orioko udalak udalerriko Hiri Antolamenduko Plan Orokor berria egiteko prozesua sustatzea erabaki zuen eta, xede horrekin, indarrean dagoena, Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2012ko maiatzaren 8ko ebazpenaren bitartez behin betiko onartutakoa, berrikustea.

Testuinguru horretan eginda, dokumentu honen helburua udalerriaren egungo egoeraren berri ematea eta egoera horren diagnostikoa egitea da, lehen hurbilketa gisa, Plan Orokor berria egiteko oinarriak zehazteko prozesuari hasiera eman ahal izateko.

I.2.- Lurralde-eremua

Orioko udalerria da idatzi beharreko Plan Orokorraren xede-eremua. Gutxi gorabehera, 993 hektareako azalera du. Mugapena dokumentu honetako planoetan jasota dago.

I.3.- Aurrekariak

Ondorengo "II.10" epigrafean aipaturiko plangintza orokorra da idatzi beharreko Plan Orokor berriko garrantzi handieneko aurrekaria. Plangintza horretako garrantzi handieneko edukia eta proposamenak eta hura izapidetu eta onartzeari buruzko informazioa atal honetan adierazitakoak dira.

I.4.- Plan Orokorra egiteko esparru orokorra

Plan Orokorra askotariko maila, izaera eta jatorriko hainbat eta hainbat lege-xedapen, dokumentu eta proiektutan jasotako zuzentarau eta aurreikuspenek eratutako esparru orokorrean egin da.

Une honetan, esparru orokor hori eratzen duten xedapen eta dokumentu nagusien oroigarri nagusi gisa, epigrafe honetako hurrengo ataletan aipatzen direnak nabarmendu behar dira.

A.- Lurralde- eta hirigintza-legeria

- * Euskal Autonomia Erkidegoan sustatu diren eta indarrean dauden lurralde- eta hirigintza-xedapenak:
 - Lurraldearen Antolamenduari buruzko Legea, 1990eko maiatzaren 31koa.
 - Lurzoru eta Hirigintza Legea, 2006ko ekainaren 30ekoa (2/2006 Legea).
 - Premiazko neurriei buruzko dekretua, 2008ko ekainaren 3koa, aurreko Legearen garapenean sustatutakoa (105/2008 Dekretua); indarrean dago aurrerago aipatzen den 123/2012 Dekretuaren ondoriozko indargabetzeek ez eragindako alderdietan.
 - 2008ko azaroaren 28ko Legea, hirigintza-ekintzak sortutako gainbalioetan erkidegoak duen partaidetza aldatzen duena.
 - 123/2012 Dekretua, uztailaren 3koa, hirigintza-estandarrei buruzkoa.
- * Administrazio zentralak sustatutako xedapenak:
 - Lurzoru Legearen testu bategina, 2008ko ekainaren 20ko Legegintzako Errege Dekretuaren bitartez onartutakoa (2/2008 Legegintzako Errege Dekretua).
 - Lurzoru Legearen balorazioen erregelamendua, 2011ko urriaren 24ko Errege Dekretuaren bitartez onartutakoa (1492/2011 Errege Dekretua).
 - Birgaitzeari eta Hiri Berroneratzeari eta Berritzeari buruzko Legea, 2013ko ekainaren 26koa (8/2013 Legea)

B.- Beste arlo batzuetako indarreko legeria.

- * Kosta Legea, 1988ko uztailaren 28koa, eta haren Erregelamendua, 1989ko abenduaren 1ekoa, eta xedapen horien ondorengo aldaketak. Horien artean, arreta berezia merezi du 2/2013 Legeak, maiatzaren 29koak, itsasertzaren babesari eta erabilera jasangarriari buruzkoak.
- * Euskal Herriko Ingurumena Babesteko Lege Orokorra, 1998ko otsailaren 27koa eta 211/2012 Dekretua, plan eta programen ingurumen-ebaluazio estrategikoari buruzkoa.
Kontuan izan behar da Ingurumena ebaluatzeko Legean, 2013ko abenduaren 9koan, xedatutakoa ere.

C.- Lurralde-antolamendurako indarreko tresnak.

Orion eragina duten behin betiko onartutako eta indarreko lurralde-antolamenduko tresnen zerrenda ondorengo II. epigrafeko 7. atalean aipaturikoa da.

D.- Beste mota bateko planak, dokumentuak eta lanak.

Beste plan eta dokumentu batzuen erakusgarri, eta horien zerrenda osoa eta itxia aurkezteko asmorik gabe, honako hauek aipa daitezke:

- * Garapen Iraunkorraren Euskal Ingurumen Estrategia (2002-2020), 2002ko ekainaren 4ean onartutakoa.
- * Ingurumen Esparru Programa 2015-2018¹.
- * Garraio Iraunkorraren Gidaplanea.

I.5.- Plangintza-irudiaren hautaketa.

Planteatutako helburua lortzeko Hiri Antolamenduko Plan Orokor bat egin behar da.

I.6.- Dokumentuaren edukia.

Dokumentu honek, batetik, udalerriaren egungo egoeraren berri emateko eta, bestetik, egoera horren diagnostikoa egiteko behar diren informazioa eta datuak ditu.

Informazio hori eta diagnostiko hori beharrezkoak dira Plan Orokor berria egiteko eta proposamenak zehazteko lanek behar duten euskarria eta justifikazioa izan ditzaten eraginpeko arloetan.

Honako dokumentu hauetan jasota dago edukia:

- * "A. Memoria" dokumentua.
- * "B. Planoak" dokumentua.

¹ Programa hori Garapen Iraunkorraren Euskal Ingurumen Estrategiaren (2002-2020) testuinguruan sustatu da, honako aldi hauetako Ingurumen Esparru Programen jarraipen gisa: 2002-2006, 2007-2010 eta 2011-2014.

II. INFORMAZIOA

II.1. Lekua. Ikuspegi geografikoa eta historikoa

Orio udalerria Gipuzkoako Lurralde Historikoan dago, haren iparraldean eta itsasertzean. Iparraldetik Kantauri itsasoarekin egiten du muga, ekialdetik Donostia eta Usurbil udalerriekin eta hegoaldeetik eta mendebaldetik Aia udalerriarekin. I.2 Planoan adierazten den bezala, Zarautz-Azpeitia (Urola Kosta) Eremu Funtzionalaren zati da. 9,81 Km²-ko azalera du.

Orioren iparraldeko muga, hau da, udalerriari dagokion Kantauri itsasoaren kosta-zatia, itsaslabarrez osatuta dago gehien bat, eta hego-mendebaldeko muga guztia Oria ibaiaren ibilguaren azken zatiak eratzen du, bokalera iritsi arte.

Itsasertz baxuko eremu bakarra bokalearen eskuineko ertzean dago, Antillako hondartza dagoen tokian.

Udalerriaren ipar-ekialdeko eremua Talaimendi mendiak osatzen du, 362 metroko garaierako Kukuarri tontorrean gailurra duenak.

I.3 planoan erakusten da udalerriaren hedadura, eta bertan ikus daitezke bere elementu egituratzaileenak (Oria ibaia, GI-634 errepidea, AP-8 autopista, etab.).

Oro har, ibaiak markatzen ditu Oriok Aia udalerriarekin dituen hegoaldeko eta mendebaldeko mugak, Orio eskuineko ertzean geratzen delarik eta Aia ezkerrekoan. Ibaiaren ezker aldeko lur-zerrenda bat ere Oriokoa da. Zerrenda horrek hainbat gune lotzen ditu, esaterako, Mutiozabal, Txurruka edo Oribarzar ibai-hondartza eta bokaleko morru berria eta portu-plataforma.

Ibaiaren alde horretan daude Motondoko padurak ere, natura babesteko ikuspegitik garrantzi handia duen eremua.

Orioko biztanleak, gaur egun 5.500 inguru, hirigunean bizi dira gehienak. Aipagarria da San Martin nukleoa ere. Alde zaharra kokatuta dagoen malda berean baina pixka bat gorago dago, eta izena ematen dien ermita baten inguruan kokatutako baserri eta landa-etxeen multzo batek osatzen du. Gisa horretako gainerako eraikinak udalerrian sakabanatuta daude. Presentzia berezia dute goi-eremuetan, Mendizorrotzetik hasi eta Talaigainaraino, eta badira beste multzo batzuk ere Aizperro eremuan (autopistako sarrera berriaren ondoan) eta Ortzarikan (GI-634 errepidearen ondoan, hirigunerako sarreran).

Azken hogeita bost urte hauetan nabarmen hazi da hirigunea. Ibarreko lur gehienak kolonizatu dira, hain zuzen ere, Oria ibaiaren azken meandroan kokatutako alde zaharraren eta Antillako hondartzaren arteko lurak. Horrek biztanle-kopurua asko handitzea eragin du azken hamarkadan.

Bariko San Nikolasi eskainitako parrokia izaten hasi zena, 1180tik Donostia hiribilduari zegokiona, garrantzia hartzen joan zen Zarautzerantz joateko itsasadarra toki hartan zeharkatzen zuten Done Jakue bideko erromesen joan-etorriaren ondorioz. 1379ko uztailaren 12an, Gaztelako Joan I.a erregeak Donostiako hiri-gutuna eman zion eta "Villarreal de San Nicolas de Orio" izeneko hiribildua sortu zuen, portu-ingurunea indartzeko helburuarekin.

Nekazaritzarekin osatuta, ontzigintza eta arrantza izan ziren herriko ekonomia-jarduera nagusiak XIX. mendera arte. Orduan, barra-hondoko baldintzak aldatu egin ziren, sakonera handiko itsasontziei sartzeari galaraziz. Horren ondorioz, ontziola desagertu egin zen.

Azken urte hauetan, baxurako arrantzak, zerbitzuek eta industria-jarduera mugatu batek okupatu ditu Orioko biztanleak. Hala ere, baxurako arrantzak beherakada nabarmena izan du hirurogeiko hamarkadatik gaur egunera arte.

II.2. Asentamenduak: biztanleria, ekonomia-jarduerak eta etxebizitza

II.2.1. Demografiaren ezaugarriak

II.2.1.1. Biztanleriaren bilakaera

1857ko Biztanle Erroldaren arabera, Orio Donostiako barruti judizialekoa zen eta 1.035 biztanle zituen. Gehienak hirigunean bizi ziren.

Urte batzuk geroago, 1860ko Erroldaren arabera, 1.119 biztanle zituen. Erroldaren arabera, 35 baserri, bi ermita (San Joan eta San Martin), bi irin-erota (Txanka behekoa eta Txanka goikoa), 18 artzain-txabola eta hirigunean kokatutako 123 etxebizitza zeuden.

Orioko udal-erroldaren urteko berrikuspena egiten duen EINen iturri ofizialaren arabera, 2013ko urtarrilaren 1ean (abenduaren 20ko 1016/2013 ED) 5.524 biztanle zituen. Udal Errondak 2013ko abenduaren 31n jasota zituen datuen arabera, 5.699 biztanle zituen udalerriak. Biztanle gehienak hiribilduaren hirigunean pilatzen dira. Barreiatuta bizi direnak biztanle guztien % 2 baino ez dira eta horietatik 2/3 San Martinen eta Ortzaika inguruan bizi dira. Biztanle-dentsitatea 576 bizt./km² da.

XX. mende hasieratik gaur egun arte, hau da, 1900-2013 aldian izan duen bilakaera demografikoa oso positiboa izan da, izan ere, 1.268 biztanletik 5.699ra igo da. Urteko hazkunde-tasa % 1,34koa izan da, eskualdean % 1ekoa eta Lurralde Historikoan (LH) % 1,15koa izan denean. Beraz, aipaturiko lurraldeek eta Gipuzkoako udalerri askok baino hazkunde-erritmo handiagoa izan du.


**ORIOKO, UROLA KOSTAKO ETA GIPUZKOAKO BIZTANLERIAREN BILAKAERA
(1900-2013)
EVOLUCIÓN DE LA POBLACIÓN DE ORIO, UROLA COSTA Y GIPUZKOA**

BIZTANLERIA / POBLACIÓN	1900	1910	1920	1930	1940	1950	1960	1970	1981	1991	1996	2001	2006	2011	2013
Orio	1.268	1.449	1.773	1.926	2.065	2.374	2.890	3.893	4.358	4.247	4.266	4.421	4.774	5.374	5.699
Urola Kosta % Orio/Urola Kosta	26.928	29.279	31.469	35.054	36.234	39.971	44.840	54.316	61.264	62.538	64.173	66.428	69.329	73.450	74.357
	4,7	4,9	5,6	5,5	5,7	5,9	6,4	7,2	7,1	6,8	6,6	6,7	6,9	7,4	7,7
Gipuzkoa	195.850	226.684	258.157	302.329	331.753	374.040	478.337	631.003	692.986	676.307	680.035	673.563	686.665	705.210	715.477

Iturria. Biztanleriaren Zentsuak eta Biztanleen Udal Erroldak. 1900. urtetik 1991.era: Biztanleriaren Zentsuak. 1996.urteko datuak (maiatzak 1) eta 2006. urtekoak: Biztanleen Udal Erroldak. 2001. urteko datuak eta 2011. urtekoak: Biztanleriaren Zentsuak (azaroak 1). 2013. urtekoak; Udal Erroldaren Berrikuspena (abenduak 31). Geuk egina.

Fuente: Censos de Población y Padrones de Habitantes. De 1900 a 1991: Censos de Población. Datos de 1996 (1 de mayo) y de 2006: Padrones de Habitantes. De 2001 y 2011: Censos de Población (1 de noviembre). De 2013: Revisión Padronal (31 de diciembre). Elaboración propia.


Datuen azterketa xehatuagoak honako hau adierazten du: populazioaren hazkundera pixkanakakoa eta etengabea izan da 1981 arte (% 1,54ko hazkundera urtean); laurogeiko hamarkadan zehar biztanle-kopuruak behera egin zuen, 1981eko 4.358 biztanleetatik 1991ko 4.247ra, beraz, % -0,17ko hazkunde-tasa egon zen; 1991tik aurrera eta gaur egun arte, herriak etengabeko hazkunde demografikoak izan ditu berriz ere, baina aurreko urteetako hazkunde-tasetara iritsi gabe (1960tik 1970era % 3,02koa izan zen). Mende berriarekin etorri dira hazkunde demografiko berri eta garrantzitsuak. Gaur egun, 2014ko martxoaren 14ean erroldatutako biztanleria kontuan hartuta, Oriok goranzko dinamika horrekin jarraitzen du, 5.721 biztanle baititu. Hain balantze positiboa izateak atentzioa ematen du, Gipuzkoako herri askok biztanle-kopurua txikitu edo, kasurik onenean, mantendu egin duten une honetan.



Iturria: Estatistikako Institutu Nazionala (EIN), Euskal Estatistika Erakundea (EUSTAT) eta Orioko Udala. Biztanleriaren Zentsuak eta Biztanleen Udal Erroldak. Geuk egina.

Fuente: Instituto Nacional de Estadística (INE), Instituto Vasco de Estadística (EUSTAT) y Ayuntamiento de Orio. Censos de Población y Padrones de Habitantes. Elaboración propia.

Ondorengo grafikoak berretsi egiten du Orion 2014ko martxoan 5.721 biztanleko kopurua lortu arte izandako biztanle-hazkunde etengabeari buruz adierazitakoa. 2000-2014 aldiko hazkunde-erritmoak jarraituko balu, Plan Orokor berriaren epean Orioko biztanle-kopurua 6.700 ingurukoa izango litzateke. Hazkunde-erritmoa motelduko balitz, gaur egun eskualdeak duenera hurbilduz, biztanle-kopurua 6.150 ingurukoa izango litzateke. Eta hazkunde-erritmoa lurralde historikoak azken urte hauetan izan duenera hurbilduko balitz, biztanle-kopurua 5.959-6.000 ingurukoa izango litzateke. Baina une honetan daukagun atzeraldi ekonomikoa eta zahartutako biztanle-egituraren eta adin emankorrean dauden emakume-kopurua murriztearen ondorioz jaitsi egingo den ugalkortasun-indizearen ondorioak kontuan hartuta, 6.000 eta 6.700 arteko biztanle-kopurua aurreikusten da.



Iturria: IZFE eta Orioko Udala. Biztanleen Udal Erroldak (urte bakoitzeko abenduaren 31a). Geuk egina.
Fuente: IZFE y Ayuntamiento de Orio. Padrones de Habitantes (31 de diciembre de cada año). Elaboración propia.


**HAZKUNDE-TASAK
(%)
TASAS DE CRECIMIENTO**

ALDIA/PERÍODO	Orio	Urola Kosta	Gipuzkoa	EAE	Espainia
2001-2013*	1,92	0,88	0,40	0,35	1,14

Iturria: EINE. * 2011.ko eta 2013.ko, urtarilaren 1ean, Biztanleen Udal Erroldak. Geuk egina.
Fuente: INE. * Padrones de Habitantes, 1 de enero de 2001 y 2013. Elaboración propia.

2001-2013 urteen artean eskualdean izandako datuak aztertuta, Aizarnazabal da Urola Kostako udalerrri dinamikoena, % 3,11ko urteko hazkunde-tasarekin, ondoren Orio (% 1,92), gero Aia (% 1,78), Zestoa (% 1,27) eta Zumaia (% 1,09). Herri handienek, hau da, Zarautzek, Azpeitiak eta Azkoitiak izan zituzten hazkunde txikienak (% 0,64, % 0,50 eta % 0,96ko tasak, hurrenez hurren), eta herri bakarrak galdu zituen biztanleak (% -0,12ko tasa), hain zuzen ere, Errezilek. Herri horiek eta Gipuzkoako beste batzuek 2001-2008 aldian izan duten portaera demografikoa ondorengo mapan ikus daiteke.

Tasa de crecimiento anual, 2001-2008



Iturria: R. Galdos (2008)
Fuente: R. Galdos Urrutia (2008).

Bestalde, Orioko hiribildua pisu erlatiboa hartzen joan da eskualdean, izan ere, 1900eko % 4,7tik 2013ko % 7,7ra igo da, Euskal Herriko eta Espainiako kostaldeko herri askok barrualdeko herrien aurrean izan duten portaerarekin bat etorriz. Datuen analisiak, ordea, agerian uzten du hirurogeita hamarrekoko hamarkadaren eta laurogeita hamarrekoko hamarkadaren artean, biztanle-kopuruak gora egin zuen arren, protagonismoa galdu zuela eskualdean, % 7,3tik % 6,6ra jaitsiz, Zarautzen, Azpeitian eta Azkoitian izandako hazkunde handiagoen ondorioz. Baina XXI. mendean joera alderantzikatu egin da. Batetik, Oriok eskualdeko biztanle-kopuruaren % 6,7 izatetik (2001) % 7,7 izatera igaro da (2013). Bestalde, Zarautzek eta Azpeitiak, orain arte eskualdean gero eta presentzia handiagoa zutenek, protagonismoa galdu dute, eta baita Getariak eta Beizama eta Errezil landa-udalerrri txikiek ere. Aiak, Aizarnazabalek, Zestoak eta Zumaia ere sendotu egin dute Urola Kostan duten garrantzia eta Azkoitiak, berriz, lehengoari eustea lortu du. Kopuruek agerian utzi dute Orio izan dela azken hamahiru urte hauetan portzentajezko hazkunde handiena izan duen udalerria.

Urola Kosta eskualdeko populazioak kostaldearen eta barrualdearen arteko desoreka nabarmena erakusten du, denboran zehar gertatutako prozesu espazial eta sozioekonomikoen ondoriozkoa (industrializazioa, urbanizazioa, nekazari-exodoa, etab.). Orio, Zarautz, Getaria eta Zumaia kostaldeko udalerrietan finkatutako biztanleriak XX. mende hasieratik izan duen bilakaerak, ondorengo taulan jasota dagoenak, lehen adierazitakoa erakusten du eta, biztanleria atxiki edota erakarri duen espezializazio industrialari esker Azpeitia-Azkoitia konurbazioak Urola erdian traktore-efektua izan duen arren (1900eko % 43tik % 35era igaro dira 2013an). Beste eskualde batzuekin alderatuta, esaterako, Donostialdearekin alderatuta, kostaldearen eta barrualdearen arteko kontrasteak ez dira hain nabarmenak izan. Ez, ordea, Debabarrena eskualdearekin alderatuta, industria-asentamenduen antzeko eredua izan baitu barrualdean. Urte hauetan, kostaldeko herriek Urola Kosta osoan euren garrantzia zenbaki absolututan nahiz erlatibotan handitu egin dutela ez ezik, biztanle-kopuruen hazkunde handienak ere kosta inguruko herrietan (Aia, Aizarnazabal eta Zestoa) eta kostako herrietan (Orio eta Zumaia) izan direla ikusi da, eta baita tamaina handieneko herriek (Zarautz, Azpeitia eta Azkoitia) eskualdean pisua galdu dutela ere. Aldaketa txiki horiek eskualdeko hiri-sistemaren hobekuntza eragin dezakete (lau udalerrri tamaina txikiko hiriak dira), baina ezin da ahaztu barrualdeko beste udalerrri batzuk, esaterako, Errezil, biztanleak galtzen ari direla (1900ean 1.530 biztanle zituen eta 2013an 606), edo Beizama, hazkunde txiki bat izan duen arren, 1900en zituen 600 biztanleetatik urrun dagoena (2013an 170 biztanle ditu), edo egungo

krisi-koiunturan enpresa enblematikoak ixtearen ondorioz, Azpeitian eta Azkoitian gerta daitezkeen efektu negatiboak ahaztu gabe.

UROLA KOSTAKO ITSASALDEAN BIZI DEN BIZTANLERIAREN BILAKAERA (1900-2013)

(%)

EVOLUCIÓN DE LA POBLACIÓN DE UROLA COSTA QUE VIVE EN LA COSTA (1900-2013)

1900	1910	1920	1930	1940	1950	1960	1970	1981	1991	2001	2011	2013
29,2	30,3	32,1	33,5	35,0	36,7	39,9	45,0	48,2	52,4	54,8	54,6	54,6

Iturria: EIN, IZFE eta EUSTAT. Geuk egina.

Fuente: INE, IZFE y EUSTAT. Elaboración propia.

II.2.1.2. Biztanleriaren egitura

Egitura demografikoak biztanleriaren ezaugarri nagusiak erakusten ditu sexu eta adinaren araberrako osarrerari dagokionez. Biztanleriaren analisiak bere historia demografikoa, egungo egitura eta etorkizunerako itxaropenak islatzen ditu. Adierazle horrek ondorioak ditu ekonomia- eta gizarte-arloan, lurralde bateko eskulana neurtzeko erabiltzen da eta hainbat ondasun eta zerbitzuren premietan eragiten du.

2013ko abenduaren 31n, Orioko biztanle-egitura, sexuaren arabera, orekatu samarra dago (% 50,7 gizonezkoak eta % 49,3 emakumeak), baina askoz orekatuago dago eskualdekoa, proportzioa % 50ekoa baita bi kasuetan. Gipuzkoan, aldiz, emakumeak % 51,1 dira eta gizonezkoak % 48,9, adineko jende gehiago eta tamaina handiagoa duten lurraldeei dagokien bezala. Marinel-herrian, bestalde, 1975. urtearekin alderatuta, garai hartan biztanle guztien % 48,8 osatzen zuten emakumezkoen aldeko aldageta txiki bat gauzatu zen, herriak garai hartan zuen izaera landatarragoarekin eta tamaina txikiagoarekin zerikusia zuena (nekazarien exodoak eragin gehiago izan du emakumeengan, herrietan ukatzen zitzairen lan-arloko aitorpenaren eta aitorpen pertsonalaren bila joaten baitziren hirietara).


Oro har, jaiotza-tasaren beherakadak eta bizi-itxaropenaren gorakadak gizonezkoen proportzioaren beherakada eragiten dute emakumeekin alderatuta, bi fenomeno demografikoren ondorioz:

- Munduko edozein herrialdeetako gizonezkoen jaiotza-tasa handiagoa, gutxi gorabehera 102/103 gizonezko jaiotzen dira 100 emakumeko. Horregatik, jaiotza-tasak behera egitean gizonezkoen proportzioak ere behera egingo du.
- Emakumeen bizi-itxaropen handiagoa gizonezkoenarekin alderatuta. Hilkortasun-tasak behera egiten badu, gizonezkoetan handiagoa eta goiztiarragoa dena, emakumeen proportzioa handitu egiten da, batez ere 55-60 urtetik aurrera. Modu horretan, zenbat eta adin handiagoa, txikiagoa da gizonezkoa/emakumea ratioa.

Adin-taldeen araberrako banaketak agerian uzten du, bai Espainian eta bai Gipuzkoan, gizonezkoak nagusi direla 49 urtetik beherakoen artean, baina 50 urte baino gehiagokoen artean emakumeak gehiago direla. Urola Kostaren kasuan 65 urtetik aurrera da handiagoa emakumea/gizonezkoa ratioa eta Orion 75 urtetik aurrera. Azken kasu honetan, bitxikeria gisa esan daiteke adin gutxiagoko zenbait kohortetan emakumea/gizonezkoa ratioa pixka bat handiagoa dela (zenbait kasutan migrazioen eraginari egotzi dakiokiena).


Adinaren araberrako populazio-egiturak adierazten du populazioak zahartzeko joera duela, batetik, hilkortasun-tasa, orokorra nahiz umeena, murriztu egin delako eta, bestetik, jaiotza-tasa kontrolatzen delako. 64 urtetik gorako adin-taldea, 1981ean biztanle guztien % 7,7 zena, % 16 zen 2013an, hala ere eskualdekoa (% 18), lurralde historikokoa (% 20,6) eta EB-27koa (% 17,8 2012ko urtarilaren 1ean) baino portzentaje txikiagoa dena. Ondo egituratutako populazioan, gazte-taldeak (20 urte baino gutxiago) % 33 baino gehiago izan beharko luke. Egoera hori 1981ean lortu zen, adin-talde horrek populazio guztiaren % 38 osatzen zuenean. Gaur egungo

% 22,1, aldiz, oso urrun dago erreferentziazko portzentaje horretatik. Azken hogeita hamar urte hauetako adin-talde handien arabera populazio-egiturako aldaketak oso ondo ikusten dira honako grafiko hauetan.



Fuente: EUSTAT y Ayuntamiento de Orio. Censo y Padrón Municipal de Habitantes. Elaboración propia. Iturria. EUSTAT eta Orioko Udala. Zentsua eta Biztanleen Udal Errolda. Geuk egina

Zahartzaro-indizea aztertzen bada, ehunekotan adierazitako zatidura hark, 64 urtetik gorakoak 16 urtetik beherakoekin lotzen dituenak (EIN), 2013ko bukaeran Orion zuen egoerarik onena alderatutako lurralde-eremu guztien artean, % 85ekin. Ondoren eskuadea zetorren, % 102rekin, eta gero lurralde historikoa, % 133rekin. EAEko (% 137,3) eta Estatuko (% 109,5) urte berari buruzko datuek hori adierazten dute. Aztertzen ari garen lurraldearen proiektzio hobea iragartzen du horrek etorkizunerako. Datu horren bilakaerak adierazten du azken urte hauetan izaten ari den gorakada, izan ere, duela hogeitazero baino gehiago (1991) herriak % 61eko indizea zuen, Urola Kostak % 66koa eta Gipuzkoak % 75,2koa. Neurri handiagoan edo txikiagoan, denetan ariko litzateke hitz egiten zahartze biologikoaren arrasto nabarmenak dituzten populazioez, non, beste faktore batzuek aparte, bizi-itxaropen handia ere protagonista garrantzitsua izango bailitzateke (79 urte gizonezkoentzat eta 85,4 urte emakumeentzat, 1975ean 69,6 eta 76,9 urte zirenean, hurrenez hurren). Errealitate horrek agerian uzten du erretiroei eta adin-talde horrek eska litzakeen laguntza-zerbitzuei aurre egiteko baliabideen premia.



Iturria. R. Galdos (2008).
Fuente. R. Galdos (2008).

64 urtetik gorako populazioaren mendekotasun-tasak, 64 urtetik gorako biztanleen eta 16-64 urteko biztanleen arteko zatidurak, ehunekotan emandakoak, lehen adierazitakoa berresten du. Hain zuzen ere, aztertzen ari garen herriak % 24,2ko tasa zuen 2013an (1991n % 15,5koa zen), eskualdeak % 28koa (1991n % 17,9koa zen) eta Gipuzkoak % 32,3koa (1991n % 18,1koa).

Baina egungo egoerari buruzko azterketa zehatzagoa egiteko, Orioko 2013ko abenduaren 31ko populazio-piramidea hartuko dugu kontuan eta 1986koarekin alderatuko dugu. Argi eta garbi ikusten dira azken urte hauetan izandako fenomeno demografiko nabarmenenak, horietako batzuk aipatu ditugunak dagoeneko. Horrela, 1986ko piramideak profil hedakorra zuela ikusten da, pagoda-forma hartzeko joera zuen piramidea, jende gaztea zuena, gailurrerantz bizkor estutzen doan oinarri zabalekoa. 2013koak, aldiz, profil zertxobait erregresiboa du, erdiko gorputza baino oinarri estuagoarekin eta adinekoen portzentaje handiarekin, populazio erregresiboetan eta trantsizio demografikoa amaitu duten herrialde garatueta ohikoa dena. Bi piramideak elkarren ganean jarrita ikusten da 25 urte pasatxoan ia-ia "alderantzikatu" egin dela bere profila.

Warren Thompsonen trantsizio demografikoaren teoriaren arabera, laugarren fase edo erregimen demografiko moderno deiturikoan egongo litzateke udalerria. Fase horren ezaugarriak dira heriotza-tasa oso baxuak eta oso antzeko jaiotza-tasak izatea eta, horren ondorioz, populazioaren berezko hazkundera txikia, oso txikia edo hutsa izango litzateke. Ondorengo atalean ikusiko den bezala, gaur egun Orioko saldo naturalek positiboak izaten jarraitzen dute, eta baita duela bi hamarkada baino altuagoak ere. Hala ere, hazkunde begetatibo baxuak dira, % 15en azpitik daude eta. Datu horiek urrun daude zero hazkundera deiturikotik. Zero hazkundera hainbat eta hainbat herrialde garaturen ezaugarria da, eta fase demografiko horretan dauden herrialde askok dute.

Haren azterketa xehatuagoak erakusten digu ez duela erraboi edo hautestontzi alderantzikatuaren ohiko forma, izan ere, oinarria, 0-4 eta 5-9 urteko kohorte gazteagoen hazkunderaren ondorioz, goragoko kohorteak baino zerbait zabalagoa da. Zentzu horretan esan daiteke Orioren duela hamarkada bateko piramidea egungoa baino erregresiboagoa zela, eta denbora batez itxaron beharko da aldaketa txiki hori finkatzen den edo ez eta joera-aldaketa dagoen ikusteko. Kohorte gazteenen (0-9 urte) zabaltze nabarmena migrazio-saldo positiboan eraginaren ondorio zuzena da (seme-alabadun jende heldu gaztea), aurrerago azalduko den bezala.


Halaber, 10 eta 30 urte bitarteko kohorteek piramidean duten sargunearen arrazoi nagusia azken urte hauetan izaten ari diren jaiotza-tasen beherakada handia da. Jaiotza-tasen beherakada hori, bestalde, emakumeak lan-merkatuan txertatzearen ondorioz, lan-bizitza eta familia-bizitza bateratzeko zailtasunen ondorioz (indibidualismo handiagoa, bizitza-mailari eustea, familia-eredua aldatzea, etab.) gertatu da.

Bestalde, 35-44 urteko kohorteek piramidean duten irtengunea immigrazioak azken urte hauetan izan duen eraginari leporatu dakioke (etxebizitzaren eskaintzak eta kostako herria izateak erakarrita herrira etorri diren bikote gazteak), eta neurri txikiagoan hirurogeita hamarreko hamarkadaren erdira arte herrialdean egindako jaiotzak sustatzeko politiken ondorioei, 50eko eta 60ko hamarkadetako eta hirurogeita hamarreko hamarkadaren zati bateko baby-boom-ean maila gorena lortu zutenei (1986ko piramidean ikusten dira politika horien ondorioak eta jende gaztearen immigrazioak izandako eraginaren ondorioak, batez ere 5etik 30 urtera bitarteko adin-taldeetan). Azken arrazoi hori da 45-60 urteko kohorteek herriko egungo piramidean pisu handiagoa izatearen arrazoia.

1986ko piramidearekin alderatuta, 64 urtetik gorako populazioaren portzentaje handiagoa izateari dagokionez, honako hauek izan daitezke arrazoiak: batetik, biztanleen bizi-itxaropena handitzea, gehiago emakumeengan gizonezkoengan baino eta, bestetik, 50eko hamarkadatik 70eko hamarkadara bitarteko garapen ekonomiko handiko garaian herrira lan bila etorri ziren eta oraindik bizi diren etorkinak.

Efektu kontrajarri horiek guztiak piramidean ikus daitezke, eta bizitza sozial eta ekonomikoaren beste alderdi batzuetan horietatik sortzen diren edo etorkizunean sor daitezkeen ondorioak ere jasotzen ditu. Ez dago zalantzarik egoera horrentzako soluzioak planteatzeak, esaterako,

gizarte-laguntzak errazteak, lan-bizitza eta familia-bizitza bateragarri egiteak, enplegua sustatzeak, edo laguntzarako ekipamenduak eta zerbitzuak sortzeak, toki-esparrua gaintzen dutela askotan.




Iturria. Orioko Udala eta EUSTAT. Biztanleen Udal Erroldak. Geuk egina.

Fuente. Ayuntamiento de Orio y EUSTAT. Padrones de Habitantes. Elaboración propia.


Orioko populazioaren piramidea Urola Kostakoaren eta Gipuzkoakoaren gainean jarrita ikusten da oso antzeko profil orokorrak dituztela. Horregatik, aztertzen ari garen herriko populazioaren egungo piramideari buruz egindako iruzkin batzuk beste bi herrietara estrapola daitezke, hau da, piramide alderantzikatuak dira, ohikoak populazio erregresiboetan eta baita erregimen demografiko modernoaren fasean ere, hau da, trantsizio demografikoaren teoriaren laugarren fasea deiturikoan dauden herrialdeetan. Hori bai, antz gehigo du Oriokoak eskualdekoarekin lurralde historikokoarekin baino.

Urola Kostakoarekiko alde nagusiak piramidearen oinarrian eta erdialdean daude, izan ere, gazteen kohortek, hau da, 0 eta 9 urte artekoek, eta helduenek, 35 eta 44 urte bitartekoek, pisu handiagoa dute Orion azken urte hauetan gazteak erakartzeko izan duen ahalmen handiago horren ondorioz. Eskualdean adin handieneko taldeek dute presentzia handiena, hain zuzen ere, 55 eta 69 urte arteko taldeek, eta adin txikieneko artean, berriz, 15 eta 24 urte bitartekoek.

Orioko eta Gipuzkoako piramideak elkarren gainean jarrita ikusten da alde nabarmenenak adin handiko taldeen artean daudela, hin zuzen ere, 55 urtetik gorako biztanleen artean, Gipuzkoako populazio-egituran presentzia handiagoa dutenetan. Bestalde, 20-24 kohortea izan ezik, Orioko piramidean gainerako adin-taldeek pisu handiagoa nabaritzen da, hau da, 0 eta 54 urte bitartekoena. Beste behin ere, aztertzen ari garen herria ageri da lurralde gazteen gisa eta, gainera, erregresio gutxieneko piramidea izango luke, Urola Kosta eta Gipuzkoa ondoren dituela, ordena horretan.




Iturria. Orioko Udala eta IZFE. Biztanleen Udal Erroldak. Geuk egina.
Fuente. Ayuntamiento de Orio e IZFE. Padrones de Habitantes. Elaboración propia.



Iturria. Orioko Udala eta IZFE. Biztanleen Udal Erroldak. Geuk egina.
Fuente. Ayuntamiento de Orio e IZFE. Padrones de Habitantes. Elaboración propia.

Laburbilduz, egitatea da lurralde horietako guztietako populazioa zahartzen ari dela. Dena den, Orio dago egoera onenean, emandako indize edota tasekin ikusi den bezala. 2013an EAE zegoen egoera txarrean, 65 urtetik gorako 1,4 pertsona baitzituen 16 urte baino gutxiagoko pertsona bakoitzeko, Espainiako 1,1eko ratioa gaindituz (Orion 0,85ekoa da, Urola Kostan 1,02koa eta Gipuzkoan 1,33koa). 65 urte edo gehiagoko populazioaren % 20,2 ere Espainiako batez bestekoaren % 17,7 baino handiagoa da (Gaztela eta Leon, Galizia eta Asturiasko Printzerria autonomia-erkidegoek soilik gainditzen dute), eta Europan, berriz, Italiak eta Alemaniak Euskal Herriko zifrak gainditzen dituzte. Ondorengo mapan ikus daiteke EAEko errealitatea udalerriei dagokienez.

**65 URTE ETA GEHIAGOKO PERTSONAK, UDALERRIEN ARABERA (2013).
PORCENTAJE DE PERSONAS CON 65 Y MÁS AÑOS, POR MUNICIPIO (2013).**



Iturria. EUSTAT (2014).
Fuente. EUSTAT (2014).

II.2.1.3. Biztanleriaren mugimenduak

II.2.1.3.1 Berezko mugimendua edo mugimendu begetatiboa

XXI. mendeko piramideetako batean ere oharkabean geratu ez dena XX. mendearen azken laurdeneko jaiotza- eta ugalkortasun-tasaren beherakada handia izan da, dudarik gabe, berezko dinamikaren eboluzioaren inguruko gertakari garrantzitsuenak.

Orion izandako jaiotza-kopuruaren eboluzioari (1975-2013) dagokionez, 1975ean eta 1977an izan ziren kopuru handienak (101 eta 97 jaiotza, hurrenez hurren) eta urte horretatik aurrera jaiotza-tasak beheranzko joera hartu zuen, 1985ean beheko joera (30 jaiotza). Laurogeiko hamarkadatik XXI. mende hasierara jaiotza-kopuruak egonkor samar eutsi dio 34 eta 52 jaiotza/urteko balioekin. 2002tik aurrera, berriz, hazkunde txiki bat egon da, 2007an, 2011n eta

2012an 70 jaiotza/urteko gaituz. Hala ere, 2013ko datu berriek adierazten dute 46 jaiotza izan direla, laurogeita hamarrekoko hamarkadako antzeko kopurua. Azken hamarkadako hazkundera zehaztasun hartzera behartzen du horrek. Datu horien analisiak ere adierazten du 1975-79 aldiko 83,2 jaiotza/urteko batez bestekotik 1985-89, 1990-94 eta 1995-99 bosturtekoetan izandako 40 jaiotza/urteko batez bestekora pasatu dela. Mende berriarekin batera jaiotzek izan duten gorakadak honako kopuru hauek ematen ditu: 2000-04 bosturtekoan 52,2 jaiotza/urteko, 2005-09 bosturtekoan 63,8 jaiotza/urteko eta 2010/13 aldian 65 jaiotza/urteko. Ikusten den bezala, mende honetako datuek agerian uzten dute aldagai demografiko horren joera-aldaketa, baita egungo krisi ekonomikoko urteekin bat etorrira ere, beste lurralde batzuk jaiotza-tasaren beherakadak izaten ari diren bitartean.

ORIOKO BEREZKO HAZKUNDEA (1975-2013) CRECIMIENTO NATURAL DE ORIO								
	1975-79	1980-84	1985-89	1990-94	1995-99	2000-04	2005-09	2010-13
JAIOTZAK / NACIMIENTOS	416	237	200	197	199	261	319	260
HERIOTZAK / DEFUNCIONES	130	135	126	150	163	165	173	152
BEREZKO HAZKUNDEA / CRECIMIENTO NATURAL	286	102	74	47	36	96	146	108


Iturria. EUSTAT eta Orioko Udala. Geuk egina

Fuente. EUSTAT y Ayto. de Orio. Elaboración propia

Heriotzen kasuan, datuek agerian uzten dute aldagaia handitzen joan dela pixkanaka-pixkanaka, hirurogeiko hamarkadaren bukaerako eta laurogeiko hamarkadako 25-27 heriotza/urteko batez bestekotik hasi eta 2005-2009 aldiko 35 heriotza/urteko eta azken urte hauetako (2010-2013) 38 heriotza/urteko batez bestekoraino. Azken berrogei urte hauetan, 1983an eta 1987an izan dira heriotza gutxiak, 19 eta 21 heriotza hurrenez hurren, eta 2013an eta 1999an heriotza gehien, 46 eta 43 heriotza, hurrenez hurren. Aldagai horren portaerak bere populazioaren zahartzeko sintoma horiek islatzen ditu.

Bi aldagaietan izandako bilakaera desberdinak azaltzen du hazkunde begetatiboak edo berezko hazkundeak aldi horretan izandako portaera desberdina. Egia esan, hirurogeita hamarrekoko hamarkadako bigarren bosturtekoan izandako 57,2 pertsona/urteko batez bestekoa 2010-13 aldiko 27 pertsona/urteko batez bestekotik oso urrun geratzen da. Zio naturalen ondorioz populazio-hazkunde gero eta txikiagoak izaten direla adierazten du horrek. Hala ere, hirurogeita hamarrekoko hamarkadaren bukaeran hasitako berezko hazkundearen beherakada progresiboa izan zen laurogeita hamarrekoko hamarkadaren bukaeran 7,2 pertsona/urteko batez bestekora iritsi arte. Une horretatik aurrera, jaiotza-tasaren portaera hobeari esker, hazkunde begetatiboak gora egin zuen 2005-09 aldian 29,2 pertsona/urteko batez bestekora iritsi arte. Ikusten den bezala, ez da saldo begetatibo negatiborik egon Gipuzkoako beste hainbat herritan bezala, eta eboluzio positibo hori jaiotza-tasaren portaera onari egotzi dakioke gehien bat, heriotza-tasaren gorakada ere aise konpentsatu duenari. Populazio gaztearen joera eta portaera berrien ondorioz ezkontza-adina edo bikote-bizikidetzakoa atzeratzeaz gain (langabezia, ikasketak, lan egonkorra, etxebizitza, etab.), beheranzko joerarekin kontrolatu eta planifikatzen du seme-alaben kopurua (familia-unitatea gero eta txikiagoa da). Ondorio horiek beste herri batzuetan baino gutxiago nabaritu dira, beste lurralde batzuetakoa baino populazio-egitura gazteagoa duelako.

Laburbilduz, azken berrogei urte hauetan zehar, aztertzen ari garen herriak berezko zioengatik etengabeko populazio-hazkundeak izan ditu eta mende berriarekin hasitako hazkundearen goranzko joerak eutsi egiten dio. Dena den, ez da ahaztu behar datu berriena, 2013koa, "0" hazkundeararekin amaitu baita.



Iturria: EIN, EUSTAT eta Orioko Udala. Geuk egina.

Fuente: INE, EUSTAT y Ayuntamiento de Orión. Elaboración propia

Jaiotza Tasa Gordinen (JTGd) eta Heriotza Tasa Gordinen (HTGd) kalkuluak lehen esandakoa berresten du eta, aldi berean, beste lurraldeetakoekin alderatzeko aukera ematen du. Hala, Orioren kasuan % 23,7ko JTGd zuen 1975ean eta % 8,1ekoa 2013an (% 11,9koa 2010-2013 aldiko batez bestekoa kontuan hartzen bada). 1985ean izan zuen balio txikiena (% 7ko JTGd) eta 1975ean handiena (% 23,7ko JTGd). JTGd-en kasuan, 1975eko % 6,6tik 2013ko % 8,1era pasatu da, edo % 7ra, 2010-13 aldian kontuan hartzen bada. Datu horiek % 4,9ko saldo begetatiboa ematen dute 2010-13 aldirako, baina 2012ko datua kontuan hartuko balitz % 6,7koa izango litzateke eta 2013 kontuan hartuta % 0koa.

Eskualdeari dagokionez, ondorengo taulan ikus daitekeen bezala, jaiotza-kopuruak behera egin du pixkanaka-pixkanaka aztertutako lau lehenengo bosturtekoetan (1975-79ko 1.048,8 jaiotza/urteko batez bestekotik 1990-94ko 593,4 jaiotza/urteko batez bestekora), eta etengabeko gorakada izan du laurogeita hamarrekoko hamarkadaren erditik gaur egun arte (641,2 jaiotza/urteko 1995-99 bosturtekoan eta 861 jaiotza/urteko 2010-12 aldian). Heriotzek ere gorakada izan dute, kasu honetan jarraitua eta pixkanakakoa aztertutako denboran zehar (1975-79 bosturtekoan 407 heriotza/urteko eta 2010-12 aldian 597,3 heriotza/urteko). Aldi horretan guztian ez da izan saldo begetatibo negatiborik, berezko hazkunde txikienak laurogeita hamarrekoko hamarkadan izan ziren eta handik aurrera eta XXI. mendean zehar berezko saldo positiboak gero eta handiagoak dira jaiotza-tasaren portaera hobeagatik. JTGd-en bilakaera izan da hirurogeiko hamarkada bukaerako (1975-79) % 17,4tik 2010-12 aldiko % 14,3ra (% 11,8 2012an), eta HTGd-ena, berriz, 1975-79 aldiko % 6,8tik 2010-12 aldiko % 8,1era (% 8,4 2012an). Datu horiek % 6,2ko saldo begetatiboa ematen dute 2010-12 aldian, eta 2012. urtea soilik hartuta % 3,4ra jaisten da.

UROLA KOSTAKO BEREZKO HAZKUNDEA (1975-2011) CRECIMIENTO NATURAL DE UROLA COSTA								
	1975-79	1980-84	1985-89	1990-94	1995-99	2000-04	2005-9	2010-12
JAIOZAK / NACIMIENTOS	5.244	3.783	3.235	2.967	3.206	3.643	4.119	2.582
HERIOTZAK/ DEFUNCIONES	2.035	2.215	2.255	2.435	2.645	2.741	2.863	1.792
BEREZKO HAZKUNDEA / CRECIMIENTO NATURAL	3.209	1.568	980	532	561	902	1.256	790

Iturria. EUSTAT. Geuk egina.
Fuente: EUSTAT. Elaboración propia

Gipuzkoan aztertutako aldagai demografikoek antzeko eboluzioa izan dute, hau da, hilkortasun-tasak behera egin du pixkanaka-pixkanaka hirurogeita hamarreko hamarkadaren erditik gaur egun arte eta jaiotza-tasak laurogeita hamarreko hamarkadaren erdira arte. Berezko saldoa negatiboa izan bazen ere laurogeita hamarreko hamarkadan, XXI. mende hasieratik aurrera positiboak dira berriz ere. Hirurogeita hamarreko hamarkadaren bukaerako (1975-79) JTGd ‰ 17,1ekoa izan zen eta 2012koa ‰ 9,7koa. Aldi beraietako HTGd ‰ 6,6koa eta ‰ 9,1ekoa izan da hurrenez hurren. Datu horien arabera, saldo begetatiboa ‰ 0,6koa izan zen 2012an (1975ean ‰ 10,5ekoa izan zen). EAEko datuekin alderatzen badugu, ‰ 12,1ekoa 1975ean eta ‰ 0,1ekoa 2012an.

GIPUZKOAKO BEREZKO HAZKUNDEA (1975-2011) CRECIMIENTO NATURAL DE GIPUZKOA								
	1975-79	1980-84	1985-89	1990-94	1995-99	2000-04	2005-09	2010-12
JAIOZAK / NACIMIENTOS	58.949	38.875	30.004	26.846	28.257	32.008	35.401	21.177
HERIOTZAK/ DEFUNCIONES	22.649	22.740	25.212	27.136	29.282	30.005	30.605	18.945
BEREZKO HAZKUNDEA / CRECIMIENTO NATURAL	36.300	16.135	4.792	290	1.025	2.003	4.796	2.232

Iturria. EUSTAT. Geuk egina.
Fuente: EUSTAT. Elaboración propia

Adierazitako guztiak erakusten du, aldagai honi dagokionez eta 2013ko datua kontuan hartu gabe, une honetan Oriorako soilik ezagutzen den heinean, aztertzen ari garen herria dela une honetan egoera onena duen lurraldea, izan ere, etengabeko berezko hazkundeak izateaz gain, horiek handienak izan baitira (jaiotza-tasa handienak eta heriotza-tasa txikienak ditu). Orioren ondoren eskualdea egongo litzateke, antzeko bilakaerarekin eta balioekin, eta lurralde historikoak izango luke egoera txarrena (hainbat urte saldo negatiboekin, berezko hazkunde txikiagoak, heriotza-tasa handiagoak...).

Populazio baten egitura, ordea, ez da jaiotza-tasaren eta heriotza-tasaren arteko erlazioaren emaitza. Beste adierazle batzuk ere sartzen dira jokoan, esaterako, ugalkortasuna eta bizi-itxaropena.

Ikusi dugun bezala, jaiotza-tasak behera egin du urte hauetan baina baita Ugalkortasun Tasa Sintetiko (UTS) edo emakume bakoitzeko batez besteko seme-alaba kopuruak ere. EInen 1975eko datuen arabera, Gipuzkoako 2,7ko indizeak bermatu egiten zuen Gipuzkoako populazioaren belaunaldien arteko ordezpena. Egoerak, ordea, 1978 arte bakarrik iraun zuen, izan ere, urte horretako indizea 1,88koa izan baitzen, aipaturiko belaunaldien arteko ordezpena

bermatzeko behar den 2,1ekoa baino askoz txikiagoa. Une horretatik aurrera, urtez urteko beherakada oso esanguratsua izan zen eta 1994ean jo zuen behea 0,99ko indizearekin. Une horretan inflexio-puntua etorri zen eta indizea handitzen joan zen urtetik urtera, 2008an 1,43ra iritsi arte. Euskal Autonomia Erkidegoko eboluzioa oso antzekoa izan da (1975eko 2,77tik 2008ko 1,33ra) eta baita estatu osokoa ere (1975eko 2,8tik 2008ko 1,46ra). 2008az geroztik, ordea, UTS balioa jaisten ari da. Hala, 2011n, Gipuzkoako UTSa 1,39koa zen (2010ean 1,41ekoa izan zen), EAEn 1,33koa eta Espainian 1,36koa. Beste herrialde batzuekin alderatuta, ugalkortasun-indizea Alemaniakoaren antzekoa zen (1,36 seme-alaba), baina Europako batez bestekoaren (1,57) azpitik eta Frantziako batez bestekotik (2 seme-alaba) oso urrun zegoen.

Urola Kosta eskualdearen kasuan ez ditugu datu eguneratuak baina EUSTATEk emandako datuek eboluzio bera adierazten dute: 1980ko 1,91ko indizetik 1990eko 1,20ra eta 2001eko 1,29era igaro da (EAEko eskualde guztien artean ugalkortasun-indize handiena). Lehen aipaturiko lurralde-eremuekin alderatuta, 1980an indizea 1,66koa zen Gipuzkoan, 1,85ekoa EAEn eta 2,21ekoa Espainian eta, 2001ean, berriz, 1,14koa, 1,04koa eta 1,23koa hurrenez hurren. Datu horien interpretazioak eta datu horiei buruz orain arte egin den populazio-azterketak eskualdea aurkezten dute ongien kokatutako lurralde gisa, belaunaldien arteko ordezipena horietako bakarrak ere lortzen ez duen arren.

Ez dago indize horri buruzko Orioko daturik baina, bere populazioaren ezaugarriak kontuan hartuta, uste da bere indizearen balioak eskualdekoen balioetatik hurbilago egongo direla aipaturiko gainerako lurraldekoenetatik baino.

XX. mendeko laurogeita hamarreko hamarkadaren erditik aurrera izan den ugalkortasunaren gorakada lotuta dago lurralde hauetara etorri diren etorkin gazteen ugalkortasun-tasa handiarekin.

EUSTATEk 2014-2020 aldirako EAerako egin dituen populazio-proiekzioen arabera, egungo hilkortasun-tasak handitu egingo dira populazioa zahartzen ari delako eta ugalkortasun-tasak behera egingo du adin emankorrean dauden emakume-kopuruak behera egingo duelako eta, horregatik, egungo familia-ereduarekin jarraituz gero, jaiotza-kopuruak ere behera egingo du. Horren ondorio zuzena saldo begetatibo negatiboa izango da eta, hori, 2008ko krisiak jaiotza-tasan izan dezakeen eragin zuzena kontuan hartu gabe.

II.2.1.3.2 Migrazio-mugimenduak.

Migrazio-mugimenduek ere eragina dute populazioen dinamikan, pertsonen joan-etorriek saldo negatiboak edo positiboak eragiten dituzten heinean. Emigratzen dutenen kopurua immigratzen dutenena baino handiagoa izatearen baitan dago eta dagokion lurraldeko populazioaren eboluzioan eragiten du.

Idatz-zati honetan migrazio-dinamika hurbilenari erreparatuko zaio, hau da, laurogeiko hamarkadaren bukaeratik gaur egun artekoari (1988-2013). Ez da sakonduko XX. mendeko 50eko, 60ko eta 70eko hamarkadetan izandakoetan eta azterlan honetan aipatutakoetan.


Enplegu-bilaketak jende gaztea bizilekuz aldatzera bultzatzen duen faktoreetako bat izaten jarraitzen du, baina baita etxebizitza merkeagoak edo eraikuntza-tipologia jakin batekoak eskura izatea ere. Bestalde, ez da gutxietsi behar garraio- eta komunikazio-bideek duten garrantzia, izan ere, egokiak badira, lantokia eta bizilekua leku desberdinetan egoteko aukera ematen baitute. Krisi ekonomikoaren egungo koiunturan, kontsultatutako iturriek enplegu-bilaketa jotzen dute azkeneko migrazio-mugimenduak gehien baldintzatzen ari den arrazoitzat, eta Orioren kasuan azken urte hauetako etxebizitza-eskaintza eta komunikazioen hobekuntza, hain zuzen ere, 2009an inauguratutako A-8rako sarbide zuzena duen lotura azpimarratzen dira alderdi positibo gisa.

1988-2013 aldiko migrazio-datuak aztertuta ikusten da Oriok kontzeptu horren ondoriozko hazkunde demografikoak izan dituela, 967 pertsonako migrazio-saldo positibo garbia izan

duelako (37,2 pertsona/urteko batez beste). Horrek adierazten du aipaturiko hazkunde demografikoak ez direla gertatu berezko arrazoiengatik soilik, aurreko idatz-zatian nabarmendu den bezala. 25 urte hauetan (1988-2012) kanpoko migrazio-saldoa 381 lagunekoa izan da eta barnekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko herri, eskualde eta lurralde historikoen arteko mugimenduak soilik aintzat hartzen dituen eta Orioko sarrerei Autonomia Erkidego honetara bertara egindako irteerak kenduta lortzen dena 469 lagunekoa. Horrek erakusten du bi mugimenduak garrantzitsuak izan direla (% 45 eta % 55, hurrenez hurren). Horrek guztiak agerian uzten du Oriko lurralde erakargarria dela bai kanpotarrentzat eta bai EAE barruko jendearentzat.

Datuen urtez urteko analisiak erakusten du laurogeiko hamarkada bukaeratik 1993 arte Orioko hiribilduak saldo negatiboak izan zituela, 1991n eta 1993an maximoak izan zituztenak, 29 eta 27 lagunekoa, hurrenez hurren. Une horretatik aurrera, dinamika erregresibo hori alderantzikatu egin zen, hamarkadaren gainerako urteetan hazkundeak oso txikiak izan ziren arren (2 lagunekoa 1994ean, 12koa 1995ean, 11koa 1996an, etab.). XXI. mende hasieratik aurrera hasi ziren migrazio-saldo garbi positiboak garrantzitsuak izaten (115 lagunekoa 2007an, 114koa 2010ean, 127koa 2012an, 117koa 2013an, etab.), eta 2003ko krisi ekonomikoarekin batera izan zen saldo negatibo bakarra (45 lagunekoa). Honako hauek dira aipaturiko aldietako migrazio-saldo garbiak: -16,2 pertsona/urteko 1988-93 aldian (barneko nahiz kanpoko migrazio-saldoak negatiboak dira); 13 pertsona/urteko 1994-2000 aldian (kanpoko migrazio-saldoak negatiboak dira baina barnekoak positiboak eta haiek konpentsatzeko balio dute) eta 75 pertsona/urteko 2001-13 aldian (kanpoko saldoak nahiz barnekoak positiboak dira, eta lehenengoak migrazio-saldo guztien ia % 60 osatzen dute). Deskribatutako egoera hori oso positiboa da kontzeptu horregatik ez delako populaziorik galdu. Alderantziz gertatu da eta, gainera, egungo krisi-koiunturan, Gipuzkoako beste herriak migrazio-saldo negatiboak izaten ari diren koiunturan.

Udalerri barruan izandako migrazioei dagokienez, udalak emandako 2013ko datuek adierazten dute 257 pertsona etxex aldatu zirela Orioko udalerri barruan.




Iturria. EUSTAT eta Orioko Udala. Geuk egina.

Fuente. EUSTAT y Ayuntamiento de Orio. Elaboración propia.

Kanpoko populazio horren sexuaren arabera azterketak adierazten du XXI. mendean zehar immigratzaile gizonezko gehiago izan direla emakumezkoak baino (10tik 6 gizonezkoak dira), eta laurogeita hamarrekoren aurreko hamarkadan desoreka nabarmenagoa izan zela emakumeen emigratzeko joera handiagoagatik eta emakumeak erakartzeko ahalmen txikiagoagatik.


Urola Kostan, aldagai horrek izandako bilakaera eta duen egoera Oriok izandakora hurbiltzen da. 1988-2012 aldiko balantzeak 6.743 laguneko migrazio-saldo garbia ematen du (270 pertsona/urteko), eta urtero egon dira saldo positiboak, 1988an eta 1991n izan ezik (48 eta 83 biztanle galdu ziren hurrenez hurren). Datuen analisiak adierazten du laurogeiko hamarkadaren bukaeratik 1996 arte kanpoko migrazio-saldoak negatiboak izan zirela, hau da, Urola Kostatik EAEz kanpo joandakoen kopuruak EAEz kanpotik etorritakoena gainditzen duela, eta data horretatik aurrera eta gaur egun arte inflexioa gertatu zela etengabeko saldo positiboekin, 2003ko krisi ekonomikoaren urtean izan ezik. Hain zuzen ere, 1996az geroztik, estatu espainiarretik eta atzerriatik etorritako etorkinen kopurua gero eta handiagoa da, eta 2008an eta 2007an izan ziren kopuru handienak, ia 700 eta 650 lagun hurrenez hurren. Gaur egun, egungo krisiaren eraginpean, saldoak positiboak izaten jarraitzen dute baina persona-kopuruak behera egin du zertxobait (400 baino pixka bat gehiagoko pertsona/urteko batez bestekoa 2009-2012 aldian). Barneko migrazio-saldoren kasuan, Urola Kostatik EAEra eta alderantziz, bilakaera oso desberdina izan da, laurogeiko eta laurogeita hamarrekoren hamarkadetan protagonismo handia izan baitute (1998 arte migraziozko hazkunde demografikoen erantzule zuzenak izan dira), baina 2001etik aurrera, beherakada handia izan da eta hainbat urtetan saldo negatiboak ere izan dira (1992-2001 aldiko 143 pertsona/urteko batez bestekotik 2002-2012 aldiko 20,9kora pasatu da). Adierazitako guztiak erakusten du Urola Kostako populazio-hazkundeak migrazio-saldoren balantze positiboaren ondoriozkoak ere badirela eta, laurogeiko eta laurogeita hamarrekoren hamarkadetan EAEko beste herri batzuetatik etorritako pertsonen ondoriozkoa izan bazen ere, XXI. mende hasieratik Euskal Autonomia Erkidegoz kanpoko etorkinek uzten dutela beren arrastoa lurralde honetan eta bere egitura demografikoan.



Iturria. EUSTAT. Geuk egina.
Fuente. EUSTAT. Elaboración propia

Lurralde historikoari dagokionez, Urola Kostan eta aztertzen ari garen herrian izandakoaren portaera desberdina adierazten dute zifrek. Gipuzkoak 9.510 laguneko migrazio-saldo garbi positiboa izan du, eta horrek 380,4 pertsona/urteko batez bestekoa ematen du, batik bat kanpoko migrazio-saldo positiboaren ondoriozkoa, barnekoa negatiboa izan baita 25 urte horietan. Nolanahi ere, datuen bilakaerak adierazten du migrazio-saldo garbia negatiboa izan zela 1998 arte, eta une horretatik aurrera eta gaur egun arte positiboa izan dela (2003an soilik izan zuen saldo negatiboa). XX. mendeko laurogeita hamarrekota eta laurogeiko hamarkadetakoa ia urte guztietan, laurogeiko hamarkadako oso datu gutxi dagoen arren, Gipuzkoak biztanle-

kopuru handia galdu zuen aipaturiko itzulerako emigrazioaren ondorioz. Itzulerako emigrazioa duela hainbat urte etorri eta krisialdiko, enpleguaren suntsipeneko eta erretiroa hartzeko koiunturan bere jaioterrira itzultako jendeak osatzen duena da. Hamaika urte horietan ia 15.000 lagunek alde egin dute Gipuzkoatik, barneko migrazio-saldoengatik irteerak kontatu gabe. Nabarmentzekoak dira laurogeiko hamarkada bukaerako galera handiak. 1999tik 2012ra migrazio-saldo garbia negatiboa izan zen EAE kanpotik etorritako jende-kopuru handiagatik, batez ere atzerriko etorkinak. Nabarmentzekoak dira 2005etik aurrera izandako saldo positiboak (ia 25.000 lagun etorri dira 2005etik 2012ra bitartean). Migrazio-saldo garbi positibo horiei esker, aspaldian izan ez dituen populazio-hazkundeak izaten ari da Gipuzkoa. Etorkinek dute ugalkortasun-tasa handiena eta aldeko eragina dute berezko hazkunderen ere (2007ko jaiotzen % 12 ama etorkinenak izan ziren, 2012an % 15 eta 2013ko lehen hiru hiruhilekoetan % 15,9).





Iturria. EUSTAT. Geuk egina.
Fuente. EUSTAT. Elaboración propia

Gaur egungo krisi-koiunturan inork ez daki zer eragin izan dezakeen immigrazioak populazioaren etorkizuneko eboluzioan. Positiboak izaten jarraituko al dute migrazio-saldoek? Etorkin batzuk itzul al litezke euren jatorriko herrialdeetara etengabeko langabezia-egoera baten aurrean? Oraingoz, datuek ez dute uzten eragin hori argi ikusten, eta pixka batean itxaron beharko da adiaerazitakoa gauzatzen den ala ez ikusteko.

Laburbilduz, Oriok, Urola Kostak eta Gipuzkoak asko zahartutako populazioak dituzte, kasu batzuetan beste batzuetan baino gehiago, Espainiak eta EBko beste hainbat herrialdek bezala. Bizi-itzaropena asko eta etengabe handitzearen ondorioa da hori, jaiotza- eta ugalkortasun-tasa txikiekin batera. Oriok, ordea, berezko saldo eta migrazio-saldo oso onak izan ditu XXI. mendean zehar eta dinamika demografiko onena duen lurraldea da, Euskal Herriko beste herri batzuetan gertatzen dena kontuan hartuta modu positiboan harritu gaituena. Populazio-kohorte gazteenek (0-9 urte), herriko populazio-egituran duela urte batzuk zutena baino pisu handiagoa dutenek, populazioa zahartzera eramane duen XX. mendeko azken hamarkadetan finkatutako eredu demografikoan aldaketa bat egin ahal izateko arrasto bat dira. Denborak erabakiko du.

II.2.1.4. Biztanleriaren jatorria

2013ko abenduaren bukaeran Orioko biztanleriaren ia % 48 udalerrian bertan jaioetakoak zen (1996an % 57,3), eskualdean jaioetakoak aintzat hartuz gero % 57 pasatxora iristen zen ehunekoa (1996an % 66) edo % 80,6ra lurralde historikoa kontuan hartuz gero (1996an portzentaje hori % 87,4 zen eta 1981ean % 83,8). EAEko beste lurraldeetan jaioetakoak % 2 baino pixka bat gehiago dira, gehienak bizkaitarrak. Bitxia badirudi ere, Gipuzkoatik kanpo jaioetako populazio-taldeek izan dituzte hazkunde handienak 1996-2013 aldi horretan (kopuru absolututan, Bizkaian eta Araban jaioetakoak lau bider gehitu dira eta EAetik kanpo jaioetakoak ia bikoiztu egin dira). Aipagarria da EAetik kanpo jaioetakoak 982 pertsonara iritsi izana, biztanleriaren % 17 baino zerbait gehiago (1996an % 11,9 zen), eta kopuru horretatik ia % 43 Espainiatik kanpo jaio izana. Hiribilduko udalak 2013ko abenduaren 31n zituen datuen arabera, Gipuzkoatik kanpo jaioetako 1.107 biztanleetatik 479 Espainiatik kanpo jaioetakoak ziren (% 43,3) eta nazionalitate espainiarra ez dutenen artean, 19 Orion jaio ziren eta 31 Gipuzkoan.



Iturria. IZFE. Geuk egina.
Fuente. IZFE. Elaboración propia.

Hiribilduko udalak 2013ko ekainaren 12an emandako datuen arabera, Orioko biztanleen % 7,4k ez du nazionalitate espainiarra (419 pertsona), eta 2013ko bukaeran portzentajea bera zen. Ondorengo taulan ikus daitekeen bezala, Espainiatik kanpo jaioetako biztanleen artean amerikarrak ziren nagusi (% 52,3), batez ere latindarrak; gero afrikarrak (% 21,6), gehienak Magrebekoak, eta gero Europako ekialdekoak.

ORIOKO BIZTANLERIA NAZIONALITATEAREN ARABERA (2010 y 2013)
POBLACIÓN DE ORIO SEGÚN LA NACIONALIDAD (2010 y 2013)

	2010	2013
Espainia / España	4.823	5.166
Ekialdeko Europa / Europa del Este	52	45
Gainerako Europa / Resto de Europa	24	28
Magrebeko herrialdeak / Estados del Magreb	29	42
Gainerako Afrika / Resto de África	28	46
Hego Amerika / Sudamérica	79	103
Amerikako gainontzekoak / Resto de América	95	110
Asia eta Ozeania / Asia y Oceanía	13	34
GUZTIRA	5.143	5.574

Iturria. EUSTAT. Geuk egina.
Fuente. EUSTAT. Elaboración propia.

2013ko urtarrilaren 1etik 2013koekainaren 12ra bitartean Oriora iritsitako etorkinei buruzko datuen arabera, 190 lagun udalaren arabera, 2/3 baino zerbait gehiago nazionalitate espainiarrekoak dira. Beste heren eskasetik, % 15,3 afrikarrak dira (ia % 73 marokoarrak, eta ondoren aljeriarrak eta mauritaniarrak); % 10,5 latinoamerikarrak (batik bat Ekuador, Nikaragua, Kolonbia, Kuba eta Argentina) eta % 6,3 EBko beste herrialde batzuetakoak (batez ere Errumaniakoak, eta neurri apalagoan Portugalgoak). 2013ko jatorriari dagokionez, udalaren arabera herrira etorri ziren 190 lagunetatik 2/3 baino zerbait gehiago, ia % 75, Gipuzkoako beste herri batzuetatik etorri ziren (gehienak Zarautz eta Donostiatik, baina baita Usurbil, Aia, Lasarte-Oria, Andoain, Zumaia, Asteasu eta Getariatik ere, beste batzuen artean), eta % 5 baino zerbait gehiago Bizkaia, Araba eta Nafarroatik.


Biztanle Erroldetako informazioaren analisiak adierazten du murriztu egin dela, bai kopuru absolututan nahiz erlatibotan, Espainian baina EAEtik kanpo jaiotako biztanle-kopurua, 1981eko % 14, hau da, estatistika-iturri horretan atzerritar deituriko biztanle-kopurua, 1981eko % 1,05etik 2011ko % 7,7ra igaro da. Erroldako datu horiek adierazten dute azken hogeita hamar urte hauetan EAEn jaiotako biztanle-kopuruak puntu bat galdu duela populazio osoan, eta puntu hori erkidegotik kanpo jaiotako populazioak irabazi duela, batez ere atzerrian jaiotako populazioak.

Urola Kostari dagokionez, eskualdean jaiotako populazioak biztanleen ia 2/3 hartzen ditu, % 81,2 Gipuzkoako lurralde historikoa kontuan hartzen bada, edo % 83,7 EAE kontuan hartzen bada (1996an portzentaje horiek % 68,5, % 85,2 eta % 87,3 ziren hurrenez hurren). Orion bezala, azken 17 urte hauetan hazi egin da EAEtik kanpo jaiotako populazioa.

Gipuzkoari dagokionez, lurralde horretan bertan jaiotakoak biztanleriaren % 71,9 ziren (% 72,5 1996an). Portzentajea % 75ra igotzen da Euskal Autonomia Erkidego osoa kontuan hartzen badugu. Espainiako gainerako autonomia-erkidegoetan jaiotakoen % 18,2tik (1996an ia % 25 ziren), heren bat Gaztela eta Leongoak dira, eta Extremadurakoak ere hartzen baditugu erdiak baino gehiago (1996an jarraitu egiten zuen proportzio horrek). Lehen ere esan den bezala, Espainiako gainerako erkidegoetatik etorritako biztanle-kopuru handi horrek, batik bat garapen ekonomikoaren garaian etorri zenak, oraindik ere bere arrastoa uzten du lurralde honetan. Atzerritarak % 7 dira, gehienak amerikarrak eta europarrak (1996an % 0,6 baino ez ziren eta portzentaje horretatik ia 63 EB-15ekoak ziren), Orion duten oso antzeko portzentajea (guztien % 7,4) eta Donostialdean duten % 9,4tik eta EAEn duten 8,4tik pixka bat urrunago. Herrialdeka, berriz, portugaldarrak dira kolektibo ugariak, gero errumaniarrak, marokoarrak, ekuadortarrak eta kolonbiarrak.

Euskal Autonomia Erkidegoan, populazioaren % 8,4 atzerrian jaiotakoa da. Ondorengo mapan ikus daiteke populazio horrek herrialdeka duen eragina.

ATZERRIAN JAIOTAKO PERTSONAK UDALARRIEN ARABERA (2013-I-1)
PERSONAS NACIDAS EN EL EXTRANJERO POR MUNICIPIOS (1-I-2013)



Iturria. EUSTAT (2014). Fuente. EUSTAT (2014).


II.2.1.5. Heziketa-maila

Oriotarrek ez dute heziketa-maila altua baina ez dago alde handirik eskualdearekin eta lurralde historikoarekin alderatuta. Dena den, 1996az geroztik egoerak hobera egin du.

Populazioaren 2/5 baino zerbait gehiagok ez dute eskola-titulurik edo lehen hezkuntzako edo derrigorrezko hezkuntzako ikasketak soilik egin dituzte (1966an % 66,7 zen); beste % 18,2k bigarren mailako ikasketak ditu (1966an % 13,9k); % 6,8k lanbide-heziketak ikasketak ditu, eta talde horrek izan ditu urte hauetan galera absolutu eta erlatibo handienak (1966an % 12,2 zen); azkenik, % 13,9k ditu erdi-mailako eta goi-mailako ikasketak (1966an % 4,9k). Deigarria da 2013an 1996an baino pertsona analfabeto gehiago egotea (27 eta 18 hurrenez hurren), seguruenik atzerriko etorkinengatik.

2013ko Biztanle Erroldako datuen arabera, Gipuzkoako populazioak du heziketa-mailarik onena, izan ere, ia % 15,8k ditu erdi- edo goi-mailako ikasketak, Urola Kostan % 14,5ek dituenean. Bestalde, titulu edo eskola-graduaturik gabeko pertsonen presentzia handiagoa dute Orion eta Urola Kostan Gipuzkoan baino (zazpi puntuko aldea), eta lehen mailako ikasketak egin dituztenek pisu handiagoa dute lurralde historikoan. Lanbide-heziketak ez du ia alderik nabaritzen hiru lurraldeetan. Lehen aipatutakotik eta koadroa bistaratzetik ondorioztatzen da Orio hurbilago dagoela eskualdeko heziketa-mailatik lurralde historikotik baino.

**BIZTANLERIAREN EGINDAKO IKASKETAK
(2013)
NIVEL DE INSTRUCCIÓN DE LA POBLACIÓN**



Fuente. IZFE. Elaboración propia.
Iturria. IZFE. Geuk egina.

II.2.2. Ekonomia-jarduera

II.2.2.1. Biztanleria aktiboa

Espainian, ondasun eta zerbitzuen produkzioan aritzen diren eta enplegu bila dabiltzan eta, ondorioz, langile izan daitezkeen 16 urte edo gehiagoko pertsonen osatutako multzoa da biztanleria aktiboa (16 urte da lanean hasteko legezeko gutxieneko adina).

1986-2011 aldian zehar izandako fluktuazioei erreparatu gabe, Orioko 2011ko biztanleria aktiboak 2.671 aktibo zituen, aldi horretako eta bere historiako kopuru handiena (1986an 1.649 ziren). Garrantzitsua da azpimarratzea azken hogeita bost urte hauetan herriak eta eskualdeak izan dituztela biztanleria aktiboaren hazkunde erlatibo handienak, ia % 62 eta % 66 hurrenez hurren, Gipuzkoak izandako % 26,8 eta EAEk izandako % 31,1en aurrean. Dena den, 2006-2011 aldiko bilakaerak iradokitzen du aktiboaren kopurua handitzen ari den arren, portzentajeazko hazkundeak ahulagoak direla, batez ere Gipuzkoan eta EAEn, baina berriz ere Orio dela portaera onena duen lurraldea (% 10 baino zerbait gehiagoko hazkundeak) eta ondoren Urola Kosta (% 5 baino zerbait gutxiago). 2014ko lehen hiruhileko BAiko datuek Espainiako biztanleria aktiboaren beste beherakada bat egon dela berresten dute, 2012ko azken hiruhilekoan hasitako dinamika dena.


BIZTANLERIA AKTIBOA (16 urte edo gehiago), OKUPATUA ETA LANGABEA

		Okupatuak Ocupados	Langabeak Parados	Guztira Total
1986	Orio	1.393	256	1.649
	Urola Kosta	18.644	4.668	23.312
	Gipuzkoa	208.448	59.215	267.663
	EAE	620.449	184.280	804.729
1996	Orio	1.625	259	1.884
	Urola Kosta	23.095	4317	27.412
	Gipuzkoa	233.028	62.898	295.926
	EAE	689.100	209.178	898.278
2001	Orio	2.005	153	2.158
	Urola Kosta	28.952	2.718	31.670
	Gipuzkoa	291.606	31.468	323.074
	EAE	862.407	113.366	975.773
2006	Orio	2.257	134	2.391
	Urola Kosta	31.547	2.062	33.609
	Gipuzkoa	311.060	22.161	333.221
	EAE	954.033	74.755	1.028.788
2011	Orio	2.333	338	2.671
	Urola Kosta	30.752	4.533	35.285
	Gipuzkoa	294.768	44.728	339.496
	EAE	897.767	157.030	1.054.797

Iturria. EUSTAT. Biztanleen Udal Erroldak eta Biztanleriaren Zentsuak. Geuk egina.

Jarduera-tasen azterketak, aktiboen kopurua (okupatuak eta langabeak) 16 urte eta gehiagoko biztanleekin erlazionatzen dituenak, aldi honetan zehar lurralde-eremu guztietan ugaltzen joan direla adierazten du, beste arrazoi batzuen artean, emakumea eta joan den mendeko 60ko eta 70eko hamarkadetako baby-boom-a lan-merkatuan txertatu, eta berrikiago etorkinak iritsi direlako, laneko adinean dauden gazteak. Tasa hori gako-adierazlea da lurralde baten garapen ekonomikorako epe luzean. Hala, Gipuzkoako lurraldeko Biztanleria Aktiboaren Inkestetako (BAI) eta Biztanleria Jardueraren Araberako (BJA) datu berrienek (ez dute udalerriko eta eskualdeko daturik) adierazten dute 2012an jarduera-tasa hori behera egiten hasi zela. BJAren arabera, Gipuzkoan 2011ko % 56,2tik 2012ko % 54,9ra eta 2013ko % 56,7ra igaro zen (EAEko portzentajearen antzekoa eta Espainiako % 59,5 baino apalagoa). Datu horiek, jarduera-tasen bilakaerari buruzko ondorengo grafikoa jasota daudenekin batera, joera-aldaketa bistaritzen dute biztanleria aktiboaren bilakaeran, biztanle-egiturak berak nahiz azken urte hauetako migrazio-mugimenduen dinamikak behartuta.

EAEko 2014ko lehen hiruhileko okupazio-tasa, hau da, 16 eta 64 urte bitarteko pertsona okupatuen portzentajea adin horretako pertsona guztien gainean, % 0,3 jaitsi da aurreko hiruhilekoarekiko, eta % 63,4an kokatu da. Tasa % 67,2koa da gizonezkoentzat, eta % 59,7koa emakumeentzat. Lurralde Historikoak kontuan hartuta, okupazio handiena Gipuzkoakoa da, % 66,3rekin eta aurreko hiruhilekoarekiko % 0,2ko hazkundearekin; bigarren tokian Araba dago, % 64ko tasarekin eta % 0,2ko hazkundearekin; azkenik, Bizkaiak du tasa baxuena, % 61,5ekin eta % 0,6ko beherakadarekin azken hiruhilekoan. EUROSTATEk 20-64 urteko biztanleriaren okupazio-tasak argitaratu ditu, beraz, ezin dira alderatu aurreko datuekin, baina Espainiakoekiko erreferentzia gisa eskaintzen dira. Hala, 2013ko bukaeran estatu espainiarrean tasa hori % 58koa zen bitartean, eurogunean % 67,7koa da, Alemanian % 77koa eta Frantzia % 69koa, estatu espainiarraren egoera txarra islatzen duena.



Iturria. EUSTAT. Biztanleen Udal Erroldak eta Biztanleriaren Zentsua. Geuk egina.
Fuente: EUSTAT. Padrones de Habitantes y Censo de Población. Elaboración propia.

Orioren kasuan, jarduera-tasa 1986ko % 38,4tik 2011ko % 49,7ra igaro da, eta aldaketa garrantzitsuak ikusi dira sexuaren arabera ere (1986an, emakumearen jarduera-tasa % 20,3koa zen eta gizonezkoarena % 56koa, eta 2011n % 45,9koa eta % 53,4koa hurrenez hurren). 2011n EB-15eko 15 urtetik gorako biztanleriaren jarduera-tasa % 57,7koa izan zen eta Alemanian % 61,8koa (EUROSTAT). Datu horien eta beste lurralde-eremu batzuetakoen arteko alderaketa honako taula honetan ikusten da, estatistika-iturriak eta adin-taldeak (15 edo 16 urtetik gora, kasuen arabera) desberdinak direla kontuan izan behar den arren. Emakumeen kohorte gazteenak lan-merkatuan txertatzen joan diren heinean, populazio-segmentu horren jarduera-tasa Europako batez bestekoarekin bat egiten joan da. Hori, beste hainbat faktoreren artean, hezkuntza-maila hobetzeak, kultura-aldaketak, seme-alabak gero eta adin handiagoarekin izateak, iraganean parte hartu ez zuten sektoreetarako sarbidea izateak eta abarrek eragin dute.

JARDUERA-TASAK SEXUAREN ARABERA (2011)
TASAS DE ACTIVIDAD POR SEXO

	GUZTIRA/TOTAL (%)	GIZONAK/HOMBRES (%)	EMAKUMEAK/MUJERES (%)
ORIO	49,7 +	53,4 +	45,9 +
UROLA KOSTA	48,0 +	52,7 +	43,4 +
GIPUZKOA	48,1 + / 59,7 *	52,7 + / 65,6 *	43,8 + / 53,7 *
EAE	48,4 + / 58,4 *	53,1 + / 64,7 *	43,9 + / 52,6 *
ESPAINIA	60,0 *	67,5 *	52,7 *

Iturria. + EUSTAT. Biztanleriaren Zentsua. * INE. Biztanleria Jardueraren Arabera sailkazeko Inkesta (BJA). Geuk egina.
Fuente. + EUSTAT. Censo de Población. * INE. Encuesta de Población Activa (EPA). Elaboración propia.

Biztanleria okupatuaren azterketak adierazten du 25 urte hauetan zehar pixkanaka-pixkanaka handitzen joan dela aintzat hartutako lurralde guztietan, eta Orio izan dela hazkunde erlatibo handienak izan dituen lurraldea. Orioren kasuan, 1986ko 1.393 okupatuetatik 2011ko 2.333 okupatuetera igaro da, beraz, ia % 68ko hazkundea izan du, eskualdeko % 51, EAEko % 31 eta Gipuzkoako % 26,8 baino handiagoa.

Langabeei dagokienez, Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoaren (SEPE, lehengo EIN) datuak emango dira, udalerriko egoiliar guztien egoera erreala fidagarritasun osoz jasotzen ez duen arren, ezkutuko lana duten pertsonak izena emanda egon daitezkeelako, beste batzuek udal-

ekipamenduen erabileran diru-murrizketaren bat lortu nahi dutelako, lanik gabe egon arren ABLE batean edo Langain soilik izena emanda daudelako, edo prestaziorako eskubiderik ez dutelako, agortu egin zaielako edo herrialdetik alde egin dutelako zerrendatik atera direlako... Hala ere, zenbait aditurentzat fidagarriagoa den beste estatistika-iturri batek ez du informazio hori bereizten udalerrian.

BIZTANLERIA LANGABEAREN BILAKAERA

(1991-2014)

EVOLUCIÓN DE LA POBLACIÓN PARADA


	1991*	1994 *	1997+	2000+	2003+	2005+	2007+	2009+	2011+	2013+	2014 ¹
ORIO	267	186	155	73	112	132	127	247	272	327	337
UROLA KOSTA	4.123	3.417	2.102	1.491	1.886	2.169	1.991	3.738	3.963	4.754	4.889
GIPUZKOA	44.139	45.370	32.406	21.539	21.613	24.401	22.932	38.494	41.130	46.612	49.152

Iturria. * INEM (martxoaren 31eko datuak). + SEPE eta Lanbide (abenduko datuak).¹ SEPE eta Lanbide (otsailako datuak). Geuk egina.

Fuente. * INEM (datos de 31 de marzo).+ SEPE y Lanbide (datos de diciembre).¹ SEPE y Lanbide (datos de febrero).

Elaboración Propia.

SEPE eta Lanbideren 1991-2014 aldiko datuen arabera, langabezia-tasa altuak izan ziren laurogeita hamarreko hamarkada hasierako krisiaren ondorioak gainditu ondoren (1991n 267 zeuden izena emanda), langabezia-kopurua behera egiten hasi zen 73 eta 83 pertsonako minimoetara iritsi arte 2000. eta 2001. urteetan, hurrenez hurren. Une horretatik eta 2007 arte kopuruak 110-130 langabe/urteko izan ziren, eta egungo krisia hasi zeneko 187 langabetik (2008ko abenduaren 31n) 2014ko 337 langabera igaro zen (otsailak 28). Datu horiek adierazten dute azken bost urte hauetan langabeen kopurua 2,6 bider handitu dela eta kopuru absolututan eta erlatibotan duela ia mende laurdeneko langabezia-tasa ere gainditu egin dela (279 lagun 1990n, % 11,8tik hurbil dagoen tasa).



Iturria. SEPE eta Lanbide. Geuk egina - Fuente. SEPE y Lanbide. Elaboración propia


Azken urte hauetan, Orioko langabezia-tasek 1997ko % 8,2tik 2014ko % 12,7ra fluktuatu dute, eta 2000. eta 2001. urteetan izan dira balio baxuenak, % 3,9ko eta % 4,4ko tasekin hurrenez hurren (egiturazko langabezia-mailak). Udalerriaren bilakaera udalaz gaindiko lurralde-eremu guztiek izandakoaren oso antzekoa izan da eta, gaur egun, egungo krisi ekonomikoaren eraginpean, langabezia-tasa baxuenak dituen lurraldea da (Urola Kostak % 13,8 du, Gipuzkoak % 14,2 eta EAEk % 16,3), eta bere eskualdeko Beizama, Aia eta Getaria udalerriek soilik dituzte langabezia-tasa baxuagoak (% 6,8, % 8,5 eta % 9, hurrenez hurren).

LANGABEZIA-TASAK * - TASAS DE PARO * (%)

	1997	2000	2003	2006	2009	2011	2014
ORIO	8,2	3,9	5,2	6,3	9,3	10,1	12,7
UROLA KOSTA	7,7	5,4	6,0	6,0	10,1	10,7	13,8
GIPUZKOA	11,0	7,3	6,7	7,3	10,8	11,5	14,2
EAE	12,7	8,6	7,7	7,8	11,9	13,4	16,3


Iturria. Lanbide. * Abenduko datuak dira, 2014ko urtekoa izan ezik, otsailekoa delako. Geuk egina.
Fuente. Lanbide. * Son datos de diciembre, salvo el del año 2014 que es de febrero. Elaboración propia.

Langabezia-tasen bilakaera (1997-2014) ondorengo grafikoan ikusten da. Aldi horretan guztian portaera onena izan duena Orio izan dela ikusten da, eskualdeak, lurralde historikoak eta autonomia-erkidegoak izandakoak baino balio txikiagoak izan baititu. Bestalde, Lanbideren estatistika-iturriak bi azpieskualdetan zatitzen du Urola Kostako eskualde administratiboa, Urola Kosta deiturikoa batetik (Aia, Beizama, Errezil, Orio, Zarautz eta Zumaia) eta Urola Erdia bestetik (Aizarnazabal, Azkotia, Azpeitia eta Zestoa). 2008az geroztik langabezia barrualdeko udalerriak, hau da, Urola Erdikoak gehiago zigortzen ari dela ikusi da (% 15 2014ean), eta Orioko langabezia-tasak Urola Kostakoen oso antzekoak direla, hau da, aztertzen ari garen udalerria eta kostaldeko gainerako udalerriak kokatuta dauden azpieskualdekoen oso antzekoak.



Iturria. SEPE, Lanbide eta EUSTAT. Geuk egina.
Fuente. SEPE, Lanbide y EUSTAT. Elaboración propia

Autonomia Erkidegoko langabeziaren 2014ko hasierako egoera honako mapa honetan ikusten da, eta Oriok inguruko beste udalerri batzuekin alderatuta, esaterako, Zarautzekin edo Donostiarekin alderatuta, egoera hobea zuela nabaritzen da.



Iturria. EUSTAT (2014).
Fuente. EUSTAT (2014).

EAERI dagokionez, PARAREN 2014ko lehen hiruhileko datuek % 15,5eko langabezia-tasa ematen dute, aurreko hiruhilekoan baino % 0,3 handiagoa, % 15,4koa gizonezkoentzat eta % 15,6koa emakumeentzat. Ikusten den bezala, SEPE eta Lanbideko datuen desberdinak dira. Gazteen langabezia-tasa da handiena, % 37,2rekin. Langabeziak 16 eta 24 urte arteko 17.700 gazte aktibori eragiten die. Gipuzkoan langabeziak egonkor jarraitzen du aurreko hiruhilekoarekiko, eta langabezia-tasa % 13,1ekoa da. EUROSTATen arabera, 2014ko otsailean langabezia-tasa % 10,6koa zen EB-28 osoan eta % 25,6koa Espainian.


Orioko biztanleria langabearen sexuaren arabera banaketari dagokionez, % 46,9 gizonezkoak direla eta gainerako % 53,1 emakumeak direla adierazten da (lurralde historikoaren antzeko portzentajeak). Horrek esan nahi du langabezia-tasak %10,3 eta % 13,3 direla hurrenez hurren (Gipuzkoan % 12,6, gizonezkoentzat, eta % 14,2, emakumeentzat).

Bestalde, adinari erreparatzen bazaio, erdiek baino zerbait gehiagok, % 56k, 26 eta 44 urte bitartean ditu (Gipuzkoan % 50,2k), herenak baino zerbait gehiagok, % 38,9k, 46 urte baino gehiago (Gipuzkoan % 43k) eta % 5ek soilik ditu 25 urte baino gutxiago (Gipuzkoan % 6,5ek). Bitxia badirudi ere, 25 urtetik beherakoetan langabezia handiagoa da gizonezkoen artean emakumeen artean baino, adin horretatik aurrera gertatzen ez dena.

Ekonomia-jarduerari dagokionez, langabezia zeuden gehienek azken lana zerbitzuetan (% 58,4) egin zutela adierazten da, bigarren gehien industrian (% 22), ondoren eraikuntzan (% 8,9) eta lehen sektorean (% 3,9). % 7 bakarrik izango litzateke aurretik lanik egin gabe egoera horretan dauden pertsonen kopurua. 2005eko datuei dagokionez, langabeen hazkunde handia izan zen zerbitzuen sektorean, bai kopuru absolututan (69 pertsonatik 197ra) nahiz erlatibotan (% 52,3tik % 58,5ra), industriaren eta eraikuntzaren sektoreetan gertatu ez zena, izan ere, langabe-kopuruan hazkundera egon dela ikusi bada ere (37 pertsonatik 74ra industrian, eta 19tik 30era eraikuntzan), kopuru erlatibotan sei puntu inguruko galera gertatu zen kasu bakoitzean (% 28tik % 22ra industrian eta % 14,4tik % 8,9ra eraikuntzan). Lehen sektoreari dagokionez, 2005eko erdi aldera EINen bi langabe izena emanda zeudela adierazten da (langabe guztien % 1,5), 2014ean 13 direnean (% 4). LHarekin alderatuta, honek, bere

ekonomia-egituraren arabera, hirugarren sektorean lan egin duten pertsona langabeen proportzio handiagoa duela ikusten da (langabe guztien ia 2/3).

Ondorengo grafikoan ikusten da Orioko langabeen ikasketa-maila, 2012ko eta 2013ko bi azken hiru hilabeteetako datuen arabera.



Iturria. SEPE. Geuk egina.
Fuente. SEPE. Elaboración propia.

II.2.2.2. Ekonomia-sektoreak

II.2.2.2.1. Hainbat mendez finkatuta dauden eta kostako kokapenari lotuta dauden arrantza-, ontzigintza- eta merkataritza-jarduerak.

Orio bere portuaren kokapen estrategikoaren inguruan sortu zen, Oria itsasadarren bokalean. Lehen biztanleek hareharrizko muino baten gainean eraiki zuten herria, Oria ibaiaren eskuinaldeko azken meandroan. Leku horretatik ikusmenean zituzten itsasoa eta itsasadarra eta,aldi berean, kostako bideko pasabidea, ibia eta ur motelduen kaia kontrolatzen zituzten. Halaber, Done Jakue bidea egiten ari diren erromesen pasabideko lurraldea izan da eta da. Modu horretan, denborak aurrera egin ahala, hirigunea eratzen joan zen elizaren eta itsasadarren inguruan.



Fuente: Foto Ramiro de Orio. – Iturria: Orioko Foto Ramiro.



Fuente: Foto Ramiro de Orio. – Iturria: Orioko Foto Ramiro.

Orioko ekonomia itsasoari lotuta egon da usadioz, eta zehazki arrantzari, ontzigintzari eta merkataritza lotuta. Nekazaritza jarduera osagarria izan da (garia, artoa, lekariak, sagarra, gaztaina...). Portuak garrantzi handia izan du aro modernoaren hasieratik. Hala, 1533ko Batzar Nagusietan aurrekontu bat onartu zen portuan obrak egiteko, eta 1609an kaia eraikitzen hasi ziren. XVI. mendean ohikoa zen itsasontziak Kanadarantz abiatzea baleak harrapatzera. Urtero ateratzen ziren Euskal Herriko portuetatik, baita Orioko portutik ere, 200 eta 700 tona bitarteko hogeit edo hogeita hamar itsasontzi, eta ozeano Atlantikoa zeharkatu ondoren, Gran Bayara iristen ziren, Ternua uhartearen eta Labrador penintsularen artean kokatutako badiara. Itsasontzi bakoitzean 80 marinel joaten ziren batez beste. Udaberri hasieran ateratzen ziren etxetik eta, kasu askotan, ez ziren itzultzen neguan sartu arte. Baleak arpoiz harrapatzen ziren eta seina marinelez hornitutako hiru ontzi behar izaten ziren haiek inguratu eta hiltzeko, eta beste bi lehorrera garraiatzeko. Lehorreratutakoan zatitu eta egosi egiten ziren olio preziatu bat ateratzeko, sain deituriko arrain-olioa ateratzeko. 1901eko martxoaren 14ean, Orioko arrantzaleek euskal arrazako azken balea harrapatu zuten, Kantauri itsasoko balea frankoa edo euskal balea deiturikoa.



Fuente: Foto Ramiro de Orio. – Iturria: Orioko Foto Ramiro.

Gaur egun oraindik irauten du baxurako arrantza-jarduerak (antxoa, txitxarroa, berdela, hegaluzea), baina ez da iraganean bezain garrantzitsua. Arrantza-jarduera etengabeko krisian murgilduta dago XX. mendeko hirurogeita hamarreko hamarkadatik. 1970ean 50 arrantza-ontzi baino gehiago zeuden Orion. 1996an 30 baino gehiago zeuden eta ia 300 laguni ematen zien lana. Azken urte hauetan dozena bat baino gutxiago daude. Arrantza-ontziek Orioko itsasadarrean amarratzen dira, Orioko erdigunearen pare-parean. Kaia herriko plaza nagusia ere bada.

Portuko arrantza-jarduerari burdinarekin eta inguruko burdinoletan eskuz egindako produktuekin, batez ere Ingalaterrara esportatzen zirenekin lotutako merkataritza-jarduera gehitzen zitzaien (aingurak, bandak, buloiak, uztaiak, etab.) Itsas merkataritza handieneko unea, A. Aguirre Sorondok "Orio, oro hori" 2011n argitaratutako monografian zioenaren arabera, Caracasko Errege Konpainia Gipuzkoarraren sorrerarekin lotzen da (1.782). Han adierazten zen 1717an lehorrean 40 lagun ari baziren lanean eta beste 18 itsasoan Ingalaterrarekin, Holandarekin, Frantziarekin eta Andaluziarekin salerosketa-lanetan, XVIII. mendearen erdi aldera 68 ari zirela Venezuelarekin egiten ziren salerosketak gehitu egin zirelako (salgai gehiago mugitzeaz gain, itsasontzi gehiago ere egiten ziren, etab.).

Euskal ontziola ugarietan, garai hartan Europako onenekotzat jotzen zirenetan, errege-armadarentzako ontziak eta fragatak egiten ziren eta baita galeoiak ere eta, M. Laburuk "Nao ballenera vasca del siglo XVI" izeneko idazlanean dioenez, erreferentzia historiko askok egiaztatzen dute jarduera hori XVI. mendetik garatu zela hiribildu honetan. B. Herrersek dio 1998an idatzitako "Patrimonio y Construcción naval en Gipuzkoa" artikuluan, Orion "eraikuntza-jarduera oso garrantzitsua garatu zela mendeetan zehar, honako ontziola hauek adierazten zutena: Ribera de Orio (XVII.-XVIII. mendeak), Altzerri (XVII. mendea), Arratola (XVIII. mendea), Mutiozabal (XIX. mendea), Ostolaza (XX. mendea), Arin eta Embil (XX. mendea), Oria eta Portu-Ondo".

Kontsultatutako iturrien arabera, hiribildu honetako ontzigintza-jarduera aurreko mendean amaitu zen Aitzondo eta Galarraga ontziolekin, azkenekoa ontzitegi izan zena bere azken urteetan. Gaur egun, aurreko paragrafoan aipaturiko egituren ezaugarriak kontuan hartuta, ez dago ia arrastorik jarduera horren presentzia nabarmendu dezakeenik.

Ontzigintza-jarduera horri dagokionez, hiribilduko armadoreek bi arrapaladun ontzitegi bat jarri zuten Xuai izeneko parajea, Orioko itsasadarraren ezker aldean, Aiako lurretan. Horretarako, Varaderos Xuay de Orio S.C.P. sozietatea sortu zen. Proiektua Alfredo Bizkarrondoren esku utzi zen 1964ean, eta bi gurdiko luzetakako ontzitegia eraikitzea erabaki zuen. Bi jasogailu zituen eraikin bat ere egokitu zen. Itsasontziak jasotzeko orga metalikoetan bermatzen ziren.

Gaur egun, itsasadarraren ingurunean kokatutako ontziola bakanak Aiako udalerrian daude (Astilleros Amilibia Untziolak, S.L.; Construcciones Navales Altair, S.L., etab.).



Kostako errepidearen eta Orioko itsasadarren artean daude Antonio Mutiozabal 1910ean lanean hasi zen ontziolaren instalazioak. Aurrerago, 1954 inguruan, leku hori bera Ostolaza familiak hartu zuen, gero Francisco Carrera «Txanka»-rekin eta Agustín Gozategi «Karraballo»-rekin elkartuko zenak. (1998ko argazkia, B. Herrerasena).



Ostolaza, Carrera eta Gozategi ontzioletako ibaiertzeko aspaldiko aroztégia.

XX. mendearen hasieran, Orioko arrantza-portua babes-portu izendatu zuten. Gaur egun bi morru ditu, eta jarduera horretan laguntzeko ontzitegiko bi orga, garabi bat eta konponketetarako hainbat tailer daude. Jardunean jarraitzen du baxurako zazpi arrantza-ontzi amarratuz.



Itsasontziak muntatzen aritzen ziren Arostegi tailerrak Oriako itsasadarren ondoan jarri ziren. 1955ean hainbat solairuko eraikina eraiki zuten, jarduera solairuka garatzeko: beheko solairuan galdaragintza, lehen solairuan tailer mekanikoa eta doikuntza; bigarren solairuan biltegia eta azkenekoan etxebizitza. (1998ko argazkia, B. Herrerasena).

Orioko udalerriak itsasora begira jarraitzen du. Garaiak aldatu egin dira eta oriotarren euskarria izan ziren arrantza-, ontzigintza- eta merkataritza-jarduerak gain behera etorri badira, herriaren etorkizunak ardatz gisa har ditzakeen beste jarduera batzuk bilatu eta sustatu behar dira, lehendik dauden beste jarduera batzuk osatuz. Eta itsasertzeko kokapen hori, kostako lurraldeek soilik duten baliabide hori berriro azaleratu da. 2007an kirol-portua inauguratzea, hirigunearen eta Antillako hondartzaren artean kokatuta, 300 amarradurarekin hornitutako bi hektareako kai bakarrean, azpiegitura horrekin lotura zuzena duten jardueren garapenaren aldeko apustua egitea da, baina baita azken urte hauetan garatzen eta sustatzen ari den turismoaren eta aisiaren sektorearen aldeko apustua egitea ere (hotelak, hostalak, aterpetxeak, aldi baterako etxebizitza- alokairuak, tabernak, jatetxeak, merkataritza, talasoterapia-zentroa, itsas jardueren garapena..., eta baita kirol- eta kultura-jarduerena ere).

II.2.2.2.2. Ekonomia-jarduera eta populazioaren okupazioa XXI. mendearen hasieran.

XXI. mende hasieran hiribildu honetan garatzen den ekonomia-jarduera deskribatutakoaren oso desberdina da, iragan horrek lurraldean bere arrastoa utzi duen arren. Hala, arrantzako lanaren, zurgintzaren eta burdingintzaren ezagutza hori historian zehar transmititu da eta hiribilduko biztanleak sektorean une bakoitzean gertatutako egiturazko aldaketetara egokitu dira. Horren ondorioz, ez dago ia kontserba-industriarik eta ez ontzigintzarik, baina badira oraindik hainbat arrantza-ontzi, arrain- eta elikagai-handizkariak eta -merkaturatzaileak, eraikuntza metalikoarekin eta mekanikoarekin lotutako tailerrak, industriako makineria konpontzeko tailerrak eta altzarigintzarekin eta material erregogorrekin lotura dutenak.

Populazio honen okupazio-datu eguneratuenak 2011koak dira, Biztanleria eta Etxebizitzaren Errolda egin zen azken urtekoak. Udalerriko biztanleriaren % 63,9 hirugarren sektorean aritzen dela ikus daiteke, Urola Kostan % 60, Gipuzkoan % 68,5 eta EAEn % 71,7. Ekonomia garatuak bereizten dituen tertziarizazio-prozesua azken hiru hamarkada hauetan finkatu egin da udalerri honetan, baina batik bat laurogeiko hamarkadan gauzatu zen aldaketa, ordura arte inoiz izan ez

ziren hazkunde absolutu eta erlatiboekin (kopuru absolututan okupatuen kopurua 3,2 bider handitu da, eta ehunekotan 1981eko % 26,1etik 1991ko % 52,9ra igaro da). Laurogeiko hamarkadaren hasieran lurralde honetako okupazio-egitura oso orekatua zegoen. Hirugarren eta lehen sektoreetan okupazio oso berdintsua zegoen, % 26 eta % 25ekoa hurrenez hurren, eta industria-sektorearen inguruko espezializazioa zegoen, okupatuen % 40 baino zerbait gehiagorekin. Ez Gipuzkoa eta ez Urola Kosta ez ziren egoera horretara hurbiltzen, lehenengoaren kasuan industriaren eta hirugarren sektorearen pisu handiagoagatik eta bigarrenaren kasuan industria-jarduerarenagatik. Denborak aurrera egin ahala, populazio horien okupazio-egiturak hurbildu egin dira zerbitzuek denetan hartu duten protagonismoaren ondorioz. Horrek harekiko mendeotasuna eragiten du eta baita aberastasuna eta enplegua sortzeko orduan eragin zuzena duten jardueren atzerapena ere, industriarena eta lehen sektorearena, alegia. Sektore horren dinamismoa aintzat hartutako aldi osoan adierazi da, baita 2006-11 bosturtekoan ere, gainerako ekonomia-sektoreek okupazioa galdu zutenean. Aldi horretan hazkundeak izan zituen sektore bakarra izan zen, absolutuak nahiz erlatiboak.

**ORIOKO BIZTANLERIA AKTIBO LANDUNA SEKTORE EKONOMIKOEN ARABERA
(1981-2011)
POBLACIÓN ACTIVA OCUPADA DE ORIO POR SECTORES ECONÓMICOS**


	Nekazaritza/ Agrario		Industria		Eraikuntza/ Construcción		Zerbitzuak/ Servicios	
	Kop/Nº	%	Kop/Nº	%	Kop/Nº	%	Kop/Nº	%
1981	333	25,1	571	43,0	76	5,7	346	26,1
1991	298	14,0	581	27,3	125	5,9	1126	52,9
2001	165	8,2	635	31,7	200	10,0	1005	50,1
2006	107	4,8	671	29,7	226	10,0	1253	55,5
2011	66	2,8	564	24,2	213	9,1	1490	63,9

Iturria. EUSTAT. Geuk egina.

Fuente. EUSTAT. Elaboración propia.


Azken urte hauetan azpimarratzekoa da Orion lehen sektoreak izan duen enplegu-galera, bai kopuru absolututan (1981eko 333 okupatuetatik 2011ko 66 okupatuetera) eta bai kopuru erlatibotan (% 25,1etik % 2,8ra), Espainia EBean sartu eta PPC eta PAC aplikatu ondoren jarduera horiek izan duten atzerapenaren ondorioz. Ontzi-kopurua eta nekazaritza-ustiapenen kopurua murriztu egin dira denborarekin, eta horrekin batera baita haiei lotutako enplegu zuzena eta zeharkakoa ere. Nekazaritza- eta arrantza-azpisektoreek ere eboluzio negatiboa izan dute Urola Kostan eta Gipuzkoan, baina okupazioetan pisu gutxiago dutenez, eragin txikiagoa izan dute. Hala ere, eskualdean izandako atzerapena, % 11,5etik % 1,9ra, lurralde historikoko % 4,5etik % 0,9rako baina esanguratsuagoa da, industrializazioak eragindako nekazari-exodoaren ondorioek aurreko hamarkadetan egoera okerragoan utzi zutelako. Gaur egun, sektore honek lurralde horietan guztietan dituzten okupazio-portzentaje baxuek agerian uzten dute ekonomia-arloan duten garrantzi txikia, ez ordea, gizarte-arloan.

Arrantza-azpisektorerara egindako hurbilketa labur batek aukera ematen du ikusteko azken hamarkadetan ontzi-kopuruak behera egin duela, hain zuzen ere, 1975eko 51 ontzietatik eta 3.450 tonako baliotik 1996ko 13 ontzietara eta 1.522 tonako baliora eta 2013ko 7 ontzietara igaro da. Orioko egungo flota osoa baxurakoa da eta Gipuzkoako ontzi guztien (93 ontzi) % 18,3 osatzen du. Gipuzkoako sei arrantza-portuetatik (Donostia, Getaria, Hondarribia, Mutriku, Orio eta Pasaia), Orio da Mutrikuren ondoren ontzi gutxien dituen eta Gipuzkoako arrantza-flotako tripulazioaren % 12,5 hartzen du.



Iturria. Eusko Jaurlaritza. Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saila. Geuk egina.
Fuente. Gobierno Vasco. Departamento de Desarrollo Económico y Competitividad. Elaboración propia

Baxurako azpisektoreak EAEko arrantzaleen % 80 inguru hartzen du eta itsasoko enpleguen % 60 inguru. Azpisektore horrek azken hamarkadetan izaten ari den joera erregresiboarekin jarraitzen du sektorearen errentagarritasun-faltaren ondorioz (bitartekaritza-gastuen hazkundera eta prezioen geraldia) eta arrantza-stockak ahultzearen ondorioz arrantzategi tradizionala gero eta sarbide murriztagoa izatearen ondorioz. Orioko arrantza-flotaren azken urteotako bilakaera esandakoaren adierazle argia da, ondorengo grafikoan ikusten den bezala.



Iturria. Eusko Jaurlaritza. Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saila. Geuk egina.
Fuente. Gobierno Vasco. Departamento de Desarrollo Económico y Competitividad. Elaboración propia

Lehen aipatu dugun Orioko arrantza-ontzien kopurua murrizteaz gain, enplegatutako pertsona-kopurua, tona-kopurua eta haien adina ere murriztu egin dira, ondorengo taulan jasota dagoen bezala.

	2002. urtea	2007. urtea	2012. urtea
Ontzi-kopurua	12	9	7
Tripulazioa	152	142	113
Erregistroko tonaje gordina (ETG)	1.301,79	1.298,16	1.009,47
Erregistroko tonaje gordina (GT)	1.582,43	1.663	1.321
Potentzia osoa (CV)	6.815	6.750	5.560
Batez besteko adina	18,08	14,11	15

Iturria. Eusko Jaurlaritza. Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saila. Geuk egina.
Fuente. Gobierno Vasco. Departamento de Desarrollo Económico y Competitividad. Elaboración propia

Arrantza-sektoreak eragina izan du beste jarduera batzuen garapenean, esaterako, arrain-enpresen (kontserba-industriak) finkapenean, ontzigitzan, ontzien piezen salmentan, konponketa-tailerretan, etab. Dena den, jarduera horiek herrian garrantzia galtzen joan dira mendean hartzen zituen jarduera nagusia garrantzia galtzen joan den heinean. Azkue kontserba-fabrikaren kasua da (gaur egun Azkue-Elkano), 1942an herri honetan sortu eta 1989an Baltanás-era (Palentzia) lekualdatu zena. Orain han du ekoizpen-zentro nagusia, 15 bat lagun enplegatzen dituena, kantauriko antxoa-kanpaina Orion egiten den arren, 40 bat langile okupatuz, gehienak emakumeak. Kontserba-enpresa hori zuzentzen duen eta hegaluzearen, atun argiaren eta antxoen elaborazio tradizionalari eusten dion hirugarren belaunaldia da, orain gama zabaltzen ari badira ere hegalaburrekin, ezpata-arrainarekin, olio berezitan jarritako hegaluzearekin eta hegaluze hutsarekin. Azkue eta Elkano izen komertzialekin egiten dira kontserbak, hamabost urtetik hona Busto marka ere erabiltzen den arren (1882ko marka historikoa). Batik bat merkatu nazionalean saltzen ditu bere produktuak, baina baita Japoniara, Alemaniara, Holandara eta Erresuma Batura ere.


Industria-sektorearen kasuan, okupazioaren beherakada nabaritzen da kopuru erlatibotan: % 43tik % 24,2ra. Hori, ordea, ez da zehazten kopuruetan, 1981eko aktibo-kopurua 2011kotik oso hurbil baitago (571 eta 581 okupatu hurrenez hurren). Hori ez da lurralde historikoan eta eskualdean gertatu, okupatuak galdu baitituzte. Hala ere, azken 30 urteetako datuen azterketak adierazten du 1981etik 2006ra enpleguak gora egin duela eta 2006-2011 bosturtekoan egon zela galera kuantitatiboa, % 15 baino zerbait gehiagokoa. 2011n, biztanleria okupatuaren % 24,2 bigarren sektorean ari zen lanean, Gipuzkoako portzentajetik hurbil (% 23,6), baina Urola Kostako % 30,7tik urrunago dagoena. Industria-okupazioaren urte hauetako bilakaera zerbait negatiboagoa da azkeneko bi lurralde-eremu hauetarako, bai kopuru erlatibotan nahiz kopuru absolututan, eta aktibo industrialen galera handienak 2006-2011 bosturtekoan izan ziren egungo krisiaren ondorioz. Bigarren sektoreko okupazio-galera hirugarren sektoreak xurgatuko zuen, nolabait. Hirugarren sektorea izan da azken hamarkadetako dinamikoena, krisian murgildutako azken urte hauetan ere etengabea hazkundeak izan baititu.

BIZTANLERIA AKTIBO LANDUNA SEKTORE ECONOMIKOEN ARABERA POBLACIÓN ACTIVA OCUPADA POR SECTORES ECONÓMICOS									
		Nekazaritza/ Agrario		Industria		Eraikuntza/ Construcción		Zerbitzuak/ Servicios	
		Kop/Nº	%	Kop/Nº	%	Kop/Nº	%	Kop/Nº	%
1981	GIPUZKOA	9.785	4,5	108.307	50,3	11.112	5,2	86.260	40,0
	UROLA KOSTA	2.219	11,5	10.446	54,0	1.153	6,0	5.515	28,5
1991	GIPUZKOA	7.329	3,1	90.864	38,7	17.057	7,2	119.739	51,0
	UROLA KOSTA	1.667	7,4	9.688	43,1	1.884	8,4	9.233	41,1
2001	GIPUZKOA	5.073	1,7	91.934	31,5	23.924	8,2	170.675	58,6
	UROLA KOSTA	1.164	4,0	11.742	40,6	2.555	8,8	13.491	46,6
2006	GIPUZKOA	3.202	1,0	88.027	28,3	26.129	8,4	193.702	62,3
	UROLA KOSTA	712	2,3	11.279	35,7	2.662	8,4	16.894	53,6
2011	GIPUZKOA	2.638	0,9	69.552	23,6	20.565	7,0	202.013	68,5
	UROLA KOSTA	588	1,9	9.428	30,7	2.296	7,4	18.440	60,0

Iturria. EUSTAT. Geuk egina.

Fuente. EUSTAT. Elaboración propia.


Azkenik, eraikuntza-sektorea dago, % 9,1ekin Gipuzkoan (% 7) eta Urola Kostan (% 7,4) baino okupazio handiagoa duena. Azpimarratzekoa da azken bosturtekoan izandako % 0,9ko beherakada, eskualdeko % 1 edo lurralde historikoko % 1,4 baino zerbait txikiagoa. Gaur egun, 2012ko eta 2013ko langabeziari buruzko datuen arabera, litekeena da sektore horrek okupazio-kوتا galduta izatea Orioko herritarren artean.



Iturria. EUSTAT. Geuk egina.
Fuente. EUSTAT. Elaboración propia

Azken batean, batez ere berrogeita hamarreko, hirurogeiko eta hirurogeita hamarreko hamarkadetan nekazaritza-sektoretik industria-sektoreara biztanleriaren parte bat aldatu bazen, hazkunde ekonomiko handiko garaia izateak eta industria-sektoreak enplegu asko sortu izanak eraginda, XX. mendeko laurogeiko eta laurogeita hamarreko hamarkadetan eta XXI. mendeko lehen hamarkadan hirugarren sektorea indar handiz hasi zen enplegua sortzen, ordura arte protagonista nagusia izan zen industria-sektorea atzera utziz, eta hasiera eman zitzaion ekonomia hirugarren sektorerantz bideratzeko prozesuari. Gertakari hori nahiko nabarmena izan zen Gipuzkoan baina zerbait berriagoa zen Orioren kasuan, bi sektore horietan okupatutako biztanleria aktiboaren azken bi urteetako eboluzioak hirugarren sektorearen presentzia handiagoa ikusten uzten duen arren. Eta horren guztiaren ondorioz, askotan elkartuta doazen arrantza- eta industria-jardueren lotutako arrastoaren parte handi bat galdu du Oriok. Hori berresten dute hirugarren sektoreko okupazio-datu horiek, bere paisaia eta lurzoruaren erabilera iraganetik oso presente egon den itsasoarekiko batasun hori oraindik ere nabaritzen den arren.

Orioko biztanleria landuna jarduera-adarren arabera bereizteak agerian uzten du industria-sektorearen garrantzia. Industria-sektorearen ondoren daude merkataritza eta konponketak, beste enpresa batzuentzako zerbitzuak eta eraikuntza. Horien artean biztanle guztien enpleguen ia % 60 hartzen dute. 1996arekin alderatuta, 15 urte besterik ez, oso deigarria da arrantza-sektorean, herri honetan horrenbestearainoko tradizioz izan ez duen sektorean izandako enplegu-galera, urte hartako 191 pertsona landunetatik 2011ean 41 izatera igaro baita. Industriak, merkataritzak, konponketek, arrantzak eta eraikuntzak hiribilduko landunen ia 2/3-i ematen zioten enplegua. Datuek argi eta garbi uzten dute nekazaritza- eta arrantza-sektoreak direla kopuru absolututan landunak galdu dituzten bakarrak. Bestalde, azpian dago gainerako jarduera-adarretako landunen hazkundeak. Eraikuntzako, merkataritza eta konponketetako, enpresentzako zerbitzuetako, hezkuntzako, ostalaritzako, osasun-jardueretako eta gizarte-zerbitzuetako hazkundeak nabarmendu dira.



Iturria. EUSTAT. Geuk egina.
Fuente. EUSTAT. Elaboración propia

Ekonomia Jardueren Gidazerrendaren (DIRAE) eta Biztanleria Erroldaren 2011ko datuak gurutzatuztik ondorioztatzen da herriko aktibo landunen parte garrantzitsu bat beste udalerrri batean ari dela lanean, aktibo landuen eta sortutako enpleguaren arteko saldoa -enplegu endogenoa- negatiboa baita (udalerrrian ia 950 enplegu 2.350 lagun inguruko biztanleria landunaren aurrean). DIRAEren datu berrienek, 2013. urteari buruzkoek, Orion 424 establezimendu daudela eta 1.073 enplegu dituztela adierazten dute. Beraz, ateratzen den batez bestekoa 2,53 pertsona/establezimenduko da, eskualdekoa baino baxuagoa (3,96 pertsona/establezimenduko). Enpresen tamaina oso txikia da, baina azken urte hauetan zertxobait handitu dela ikusi da (2008an 2,32 pertsona/establezimenduko).

2008ko eta 2013ko datuen azterketak adierazten du enpresa-kopuruak gora egin duela (2008ko 403tik 2013ko 424ra). Enplegu-geruzen arabera, ikusten da 5 enplegu baino gutxiagoko enpresek izan dutela hazkunde handiena (20 enpresa gehiago), portzentajetan duela bost urte baino pisu gutxiago duten arren ehun ekonomikoan (% 81,6etik % 79,2ra). Ondoren, 10 eta 19 enplegu artekoak daude, kopuru erlatibotan presentzia handiagoa badute ere (% 0,7tik % 2,8ra). 6 eta 9 enplegu arteko geruzek pisua galdu dute (19 enpresatik 12ra igaro dira) eta, neurri txikiagoan, 20 eta 49 langile artekoek (4 enpresatik 3ra). 50 langile baino gehiagoko enpresek lehengoan jarraitu dute. Talleres Protegidos Gureak S.A. da establezimendu bakarra, 2013ko bukaeran Zarautzera lekualdatu den arren. 2013ko enpresen % 96,2 mikroenpresak dira, 10 langile baino gutxiagoko establezimenduak, eta enplegu endogeno guztiaren % 65,5 sortu dute (2003an % 75,27 zen). Industria-establezimenduak establezimendu guztien % 7,53 ziren 2003an eta % 6,37 2013an. Beraiek zuten enplegu-kopuru handiena.

2012. urtea	ORIO	UROLA KOSTA	GIPUZKOA	EAE
Mikroenpresek sortutako enplegua (<10 enplegu)	65,50	41,45	38,37	37,01
Industria-establ. batez besteko tamaina	3,76	12,54	14,14	14,12
Industria-establ. % guztien gainean	6,08	11,87	8,18	7,27
Eraikuntza-establ. % guztien gainean	18,26	13,05	14,28	13,46
Hirugarren sektoreko establ. % guztien gainean	69,08	66,75	73,75	75,87

Iturria. EUSTAT. Jarduera Ekonomikoen Gidazerrenda (JEGID). Geuk egina.

Fuente. EUSTAT. Directorio de Actividades Económicas (DIRAE). Elaboración propia


ORIOKO ESTABLEZIMENTUEN TAMAINUA.
TAMAÑO DE LOS ESTABLECIMIENTOS DE ORIO.

URTEAK / AÑOS	1995	2000	2004	2008	2013
PERTSONAK-ESTABLEZIMENDUA	2,67	2,25	2,28	2,32	2,53
PERSONAS-ESTABLECIMIENTO					

Iturria. EUSTAT. Jarduera Ekonomikoen Gidazerrenda (JEGID). Geuk egina.

Fuente. EUSTAT. Directorio de Actividades Económicas (DIRAE). Elaboración propia

1995tik 2013ra gora egin du establezimendu-kopuruak, 248 enpresatik 424 enpresara. Hazkundera jarraitu samarra izan da, behera egin duen urteren batean izan ezik, ondorengo taulan ikus daitekeen bezala.




Iturria. EUSTAT. Jarduera Ekonomikoen Gidazerrenda (JEGID). Geuk egina.

Fuente. EUSTAT. Directorio de Actividades Económicas (DIRAE). Elaboración propia


Orion ezarritako enpresek sortutako enpleguari dagokionez, laurogeiko hamarkadaren erditik aurrera izan duen bilakaera positibotzat jo daiteke, 1995eko 662 enplegutik 2013ko 1.073 enplegura igaro baita, aldi horretan zehar bariazioak egon diren arren. Hala, 1995etik 2001era

bitartean hazkunde txiki bat izan zuen, 670-700 enpleguen arteko fluktuazioak izan zituen arren. Urte horretatik aurrera, enplegu endogenoaren hazkundea etengabea izan zen 2009an 965 enplegura edo 2013an 1.073 enplegura iritsi arte. Egungo krisiaren eraginpean, eta 2010ean eta 2011n enpleguak behera egin ondoren, Jarduera Ekonomikoen Gidazerrendako (JEGID) datuek adierazten dute eutsi egin zaiola enpleguari, Talleres Protegidos Gureak, S.A. lekualdatu ondoren hala izan ez bada ere. 2014ko hasieran enpleguak ez ziren milara iristen, beraz, 2009ko mailatik hurbil zegoen.



Iturria. EUSTAT. Jarduera Ekonomikoen Gidazerrenda (JEGID). Geuk egina.
Fuente. EUSTAT. Directorio de Actividades Económicas (DIRAE). Elaboración propia

Jarduera-adarren arabera banaketak erakusten du merkataritzarekin, garraioarekin eta ostalaritzarekin lotura duten jarduerak dutela establezimendu-kopuru handiena (154 enpresa), eta ondoren eraikuntzakoek (77 enpresa).




Iturria. EUSTAT. Jarduera Ekonomikoen Gidazerrenda (JEGID). Geuk egina.
Fuente. EUSTAT. Directorio de Actividades Económicas (DIRAE). Elaboración propia

2008ari dagokionez, aipagarria da zenbat enpresa edo establezimendu desagertu diren eraikuntza-adarrean (ia heren bat gutxiago) eta, neurri apalagoan higiezin zerbitzuen eta finantza- eta aseguru-erakundeen adarrean. Industria-establezimenduek eta administrazio publikoari eta merkataritza-, garraio- eta ostalaritza-taldeari lotutakoek izan zuten bilakaera positiboa.

Urola Kostari dagokionez, esan, Gipuzkoako enplegu guztiaren % 9 hartzen duela. Zarautz, Azpeitia eta Azkoitia dira herri dinamikoenak eskualdeko enpleguaren ia 2/3 hartzen baitituzte (% 64,2), eta ondoren Zumaia, Zestoa eta Getaria (eskualdeko enpleguaren % 25arekin) Aiak eta Oriok, mila bat enplegurekin, % 8 hartuko lukete eta Errezil eta Beizama ez lirateke % 2ra ere irtsiko. Azken urte hauetan herri guztiek galdu dute enplegua, Getariak, Errezilek, Beizamak eta Oriok izan ezik. Oso esanguratsua da Azpeitiaren kasua % 20tik gorako galerarekin (Corrugados Azpeitia, Azkue, Grumal itxita..., eta Corrugados Lasaon lanberregituraketa eginda). Konparazioz, aztertzen ari garen herrian Urola Kostako enpleguaren % 4 dago gutxi gorabehera eta establezimenduen % 6,6, populazioa eskualdeko % 7,7 bada ere. Lurraldeko industria-espezializazioa makineria eta ekipamendu mekanikoen eraikuntzan gauzatu da eta baita egurraren eta altzarien industrian ere, Orion presentzia handia izan duten sektoreetan.

Ondorengo mapan ikusten da EAEn 2008an zegoen enplegu guztia. Honako eskualde hauetan pilatzen da: Donostialdean (hiriburua eta herri mugakideak); Deba Garaian eta Debarbarrenan (barrualdeko udalerrriak), Urola Kostan (Zarautz eta Azpeitia); Tolosaldean (Tolosa eta Legorreta) eta Goierriin (Beasain).



Iturria. EUSTAT (2008).
Fuente. EUSTAT (2008)

Hainbat estatistika-iturri eta enpresa-direktorio kontsultatu ondoren, beste batzuen artean, Enpresen Direktorioa eta Euskal Industria eta Esportatzaileen Katalogoa -CIVEX- (2013) kontsultatu ondoren, Orion, besteak beste, honako enpresa hauek daude: Arin y Embil, S.R.C.; Nueva Cerámica Arocena, S.L.; Talleres Arostegui, S.L.; Urtan Taller Mecánico Reparaciones, CB; Herrería Lasarte, C.B.; Atecsol, C.B.; Bodegas Errazti, S.L.; Vinos Atxega, S.L.; Oriogi

Okindegia, CB; Pescados Oriomar, S.L.; Pescados Txanka, S.L.; Hermanas Eizaguirre, C.B.; Carpintería Botaleku, S.A.; Envasados Talai-Mendi, S.A.; Karkara Taldea Kultur Elkartea; Construcciones Kexka, S.L.; Construcciones Daneta, S.L.; Luxarbe, S.L.; Ustar Serbitzuak S.L.; Excavaciones Katixa, S.L.; Cantería Espiga, S.L.L.; Ustaritz, SLP; Amadeus Soluciones Tecnológicas, S.A.; Ize Donosti, S.L.; Olariaga Asesores, S.L.; Itsasadarra, S.L.; eta baita merkataritza-establezimendu txiki batzuk ere (autozerbitzuak, harategiak, ile-apaindegia, etab.), finantza-entitateak, tailer mekanikoak, garraio-establezimenduak eta sukaldaritza-arlokoak (tabernak eta erretegi edo jatetxeak, esaterako, Xixario, Ardora, Antilla, Katxiña, Sarasua, Kolon Txiki, San Martín, etab.). Jarduera turistikoaren bultzadak ostalaritza-azpisektorea garatzen lagundu du ostatuak ugalduz (Xaloe hostala, Txanka Erreka hotela, Aisia Orio talasoterapia-hotela Montenegro S.L. Enpresa Taldekoa, Mailan landetxea, Txurruka gazte-aterpetxea, kanpina eta apartamentu-eskaintza, esaterako, Luserbe apartamentuena).

Ikusten den bezala, enpresa batzuek iraun egin dute denborak aurrera egin ahala, esaterako Arin y Enbil S.A.-k. 1887an sortu zen ontzigintzan aritzeko eta 1900 inguruan era guztietako altzariak fabrikatzeari ekin zion. Gaur egun jarduera horretan jarraitzen du beste altzari batzuen salerosketarekin batera. Oraindik ere hortxe irauten duen beste enpresa enblematiko bat Nueva Cerámica Arocena, S.L. da. 1899an sortu zen Schneider alemaniarra hiribilduan ezarri zenean gres esmaltatzuko hodiak eta galdaketarako adreiluak ekoizteko. 1915ean, La Cerámica Guipuzcoana, S.A.-k La Nueva Cerámica izena hartu zuen eta, 20ko hamarkadan jarduera eten ondoren, 1940an berriro ireki zen Cándido Arozenaren eskutik, eta erreferente bihurtu zen Gipuzkoan material errefraktarioaren industria zeramikoan. 1978az geroztik etengabe ari da lanean Talleres Arostegi S.L., ontziak konpondu eta mantentzen, galdaragintzan eta eraikuntza metaliko eta mekanikoetan. Ez da gauza bera gertatu Conservas Azkue fabrikarekin, egungo Azkue-Elkanorekin, lehen ere aipatu dugun bezala, ezta ehun bat langilerekin Orioko enpresa handiena den Talleres Protegidos Gureak, S.A.-rekin ere, 2013ko abenduaren bukaeran Zarautzera lekualdatu baita Abendaño poligonoan dagoen Arruti Altzarien lehengo pabiloira, 1983az geroztik herri honetan kokatua zegoenera, hain zuzen ere Aita Lertxundi kalean. Lur-falta izan da birkokapen horren azpian dagoen arrazoia.

Orioko enpresen egungo industria-jarduera nekazaritzako elikagaien (ardoa, ogia, opilak, arrainak eta elikagaiak), altzarien, produktu zeramiko errefraktarioen, industria-makinariaren konponketaren, ontzien mantentzearen eta eraikuntza metaliko eta mekanikoen azpisektoreen inguruan dabil. Berari lotutako beste jarduera batzuen garapena eragin zuen arrantza-azpisektoreak (kontserbagintza, eraikuntza-tailerrak, ontzi-salmenta eta -konponketa, etab.) pisua galdu du, oraindik ere badiren arren lotura duten enpresak, esaterako, industria-makineria konpontzeko eta itsasontziak muntatzeko tailerrak (Talleres Arostegi, S.L., Talleres Urtan, etab.), kontserbagintzakoak (Hermanas Eizaguirre, C.B.) eta arrain, itsaski eta beste hainbat elikagaien handizkako hainbat saltzaile (Pescados Oriomar, S.L.; Pescados Txanka, S.L.; Hermanas Eizaguirre, C.B.; Conservas Azkue-Elkano, ...). Nekazaritzako elikagaien enpresen artean badira beste batzuk ardoak ontziratu, botilaratu, merkaturatu eta banatzen dihardutenak, esaterako, Bodegas Errasti, S.L. eta Vinos Atxega, S.L.; ogiaren eta opilen fabrikazioan dihardutenak, esaterako, Oriogi Okindegia, CB.; altzarigintzan diharduena Arin y Enbil, S.R.C.; produktu zeramiko errefraktarioen fabrikazioan diharduena Nueva Cerámica Arocena, S.L.; soldaduran dihardutenak Talleres Arostegi, S.L. eta ATECSOL, CB.; sarraila eta burdinaria fabrikazioan Herrería Lasarte C.B.; eta eraikuntzan Construcciones Kexka, S.L., Construcciones Daneta, S.L.; eta Luxarbe, S.L., beste batzuen artean.

Horregatik guztiagatik, Orioko enpresa-ehuna indarra galtzen joan da denborak aurrera egin ahala eta atentzioa ematen du bertan bizi diren aktibo landunekin alderatuta dagoen enplegu endogeno urriak. Herriko enpresa askori eragin die arrantza-sektoreko aipaturiko krisiak, eragin zuzena izan baitu kontserba-enpresetan, ontzioetan, konponketa- eta metalurgia-tailerretan, etab. Gainera, lur-falta dela eta, enpresa batzuk inguruko beste udalerrri batzuetara lekualdatu dira edo inguruko herri horietan ezarri dira (Aia, Usurbil, Zarautz). 2008an hasitako krisiak ere ez du askorik lagundu herrian inbertsioak egiten. Aldeko ingurunea indartu behar da enpresa-ehuna dibertsifikatzeko eta lehendik dauden enpresa-sektoreen lehiakortasuna hobetzeko

lerroak proposatzeko. Sektore horiek, kasu askotan, bere eskualdean ezarrita daude sinergia guztiak aprobetxatzeko eta ezinbesteko dibertsifikazio horretarantz elkarrekin joateko. Eta testuinguru horretan, itsas ondoko kokapen horri eta herritarren egiten jakiteari ematen zaie garrantzia, lurralde honetako baliabide endogeno eta inrtrintseko gisa, jarduera osagarriak bilatzeko eta indartzeko asmoz dibertsifikazio horren mesedetan. Hori gertatzen da, adibidez, arrantza-turismora bideratutako proiektuekin (arrantza-ontzietan egiten den turismoa), itsas munduaren inguruko ibilbide tematikoekin (bisitak kofradia, portu, faro eta abarretara), produktua eraldatu eta balioztatze proiektuekin (xerratzea, izoztea, produktu berriak egitea: atun-hanburesak...), eta merkaturatze- eta banaketa-kanal berriekin (Internet bidezko salmenta), beste batzuen artean. 2007an kirol-portua inauguratu izana ere zentzu horretan ulertzen da turismo- eta aisia-sektoreari lotutako jarduera osagarriak garatzen laguntzen duelako (ostalaritza eta merkataritza eta baita kirol- eta kultura-jarduerak ere).

II.2.3. Etxebizitza

2014ko martxoaren 31ko udal-informazioaren arabera, Oriok 5.721 biztanle ditu 2.169 etxebizitzatan banatuta, etxebizitako 2,63 biztanleko batez bestekoarekin; batez besteko altua da inguruko udalerrienekin alderatuta, azken 16 urte hauetan behera egin duen arren (1997ko abenduaren 31n 3,23). Informazio beraren arabera, udalerriko etxebizitza-kopurua 2.670 unitatekoa da.

Ondorengo taulak deskribatzen du udalerriko etxebizitza-parkearen egungo egoera:

ETXEBIZITZA (2014ko apirila)					
Kokapena	Etxebizitzak guztira	Etxebizitza okupatuak	Biztanleak	Biztanleak/etx. okupatuko	Etxebizitza ez okupatuen %
Hiri-ingurunea	2.554	2.076	-	-	18,72
Landa-ingurunea	116	93	-	-	19,83
Udalerria guztira	2.670	2.169	5.721	2,63	18,76

Fuente: Ayuntamiento de Orio. Elaboración propia.

Iturria: Orioko Udala. Guk egina

Etxebizitza gehienak hiri-ingurunean daude. % 4,5 baino gutxiago daude landa-ingurunean sakabanatuta. Horrek aukera ematen dio udalari herritarrei zerbitzu hobeak eskaintzeko, hiri-ingurunean pilatutako herritarrei.

Halaber, etxebizitza ez okupatua ia % 19 da. Portzentaje altua bada ere, bi xehetasun behar ditu, gutxienez. Batetik, bere espezializazio tradizionalarekin bat etorriz, lurralde-antolamenduak hala dioelako (Zarautz-Azpeitia eremu funtzionaleko indarreko LZP), kontuan izan behar da Oriok Gipuzkoako eta baita lurralde historikotik kanpoko herritarren bigarren etxebizitza hartzeko joera duen udalerria dela. Bestalde, portzentaje hori duela 16 urte iragartzen zena baino baxuagoa da (% 21,41), duela dutxi bigarren etxebizitzatarako etxebizitza-kopuru handia eraiki den arren.

Beraz, etxebizitza ez okupatua, bigarren etxebizitzarekin bat dator neurri handi batean. Bat dator honako egoera hauetako batean dauden etxebizitzekin ere: saltzeko daudenak; beste erabilera batzuetara zuzendutakoak (bulegoak, beste ekonomia-jarduera batzuk...); kontserbazio-egoera txarrean eta birgaitze-premian daudenak, etab. Hala, gaiari buruzko azterketa zehatzagotik ondoriozta daitekeenaren kalterik gabe, etxebizitza hutsak 250 inguru izan litezke, etxebizitza guztien % 10 inguru, Gipuzkoako batez bestekoaren azpitik.

Bestalde, 1997. urteari buruzko udal-informazioa kontuan hartuta, eta birgaitutako etxebizitzak erabiltzen hasten direla alde batera utzita, azken 16 urte hauetan 975 unitatetan hazi da udalerriko etxebizitza-kopurua (1.695 etxebizitza zeuden 1997an). Horrek hazkunde ikusgarria izan zela esan nahi du, eskaintza eskaseko eta plangintzarik gabeko aurreko aldi bati erantzun ziona. Egia esan, aldi horretan % 57,5 hazi zen etxebizitza-kopurua, urteko % 2,9ko batez bestekoarekin. Aldi horretan zehar 60 etxebizitza/urteko batez besteko produkzioa egon zela esan nahi du. Egungo biztanleria erreferentziazat hartuta, 10 bat etxebizitza/1.000 bizt. ratioa ematen du, gaur egun diziplina-ikuspegitik egokitzat jotzen dena bikoizten duena.

Esan beharra dago berriki lizentzia lortu duten sustapen batzuk bukatu gabe daudela oraindik, obrak geldituta eta saldu gabe. Kopuru esanguratsua ez badira ere, krisiak higiezinaren merkatuan izan duen eraginaren adierazgarri dira.

Indarrean dagoen plangintzak, hainbat garapen gauzatu diren arren, nolabaiteko eskaintzari eusten dio oraindik etxebizitza-arloan. Honako eremu hauetan aurreikusita baina egikaritu gabe dauden garapenekin bat dator: Dike (137 etxebizitza berri); Munto (88 etxebizitza egikaritu gabe; horietatik, 40 etxebizitzak udal-lizentzia jaso zuten 2013an baina egikaritu gabe daude); Hondartza (36 etxebizitza). Guztira 261 etxebizitza dira gutxi gorabehera. Horiei gehitu behar zaizkie Alde Zaharrean, Zabalgunean, Mutiozabal, eta abarren aurreikusitako zaharberritze-jarduketara zehatz eta puntualetan aurreikusitakoak.

Erreparatutako egoerak erakusten du Orion etxebizitza-eskaintza falta izan dela 1997 baino lehen eta azken hamasei urte hauetan eskaintza garrantzitsua egin dela, barneko nahiz kanpoko eskaera izan duena, baita bigarren etxebizitzarako ere, Eremu Funtzionalean indarrean dagoen LZPren lurralde-ereduari erantzuna emanaz.

Gaur egun, bestalde, eskaintza eta eskaria txikiak direla ikusten da. Oriok, beraz, etxebizitza zahar batzuetara eta eraikita eta saldu gabe dauden etxebizitza berri batzuetara mugatutako eskaintza erreala du. Gainera, eskaintza hori handitu egin daiteke indarreko plangintzan aurreikusitako 261 etxebizitzaren kudeaketarekin eta egikaritzapenarekin. Eskari efektiboari dagokionez, urria da, finantzaketa lortzeko zailtasunen ondorioz. Eta hori guztia etxebizitzaren prezioak behera egin duen arren eta Orioko merkatuak ingurune hurbilak (Zarautz, Donostia) baino prezio baxuagoak eskaintzen dituen arren.

Orioko etxebizitza berriaren batez besteko prezioa (gutxi gorabehera 3.000 €/m²) etxebizitza-mota horrek beste udalerri horietan duena baino baxuagoa da. Asko jota, udalerri horien periferiako etxebizitza berriaren ingurukoa izan daiteke. Halaber, babes ofizialeko 70 m² (erabilgarri) [gutxi gorabehera 90 m²(t)] inguruko etxebizitza baten (erregimen orokorra) jabetzako salmenta-prezioa 123.320 €koa da [1.761,72 €/m²(erabilgarri)] gutxi gorabehera.

Bestalde, ondorengo taulan ikusten da erroldatutako herritarrak dituzten etxebizitzak okupazio-indizearen bilakaera, eta azken urte hauetan krisiak adierazle horren beherakada motelagoa eragin duela ikusten da.

ETXEBIZITZA OKUPATUKO BIZTANLE-KOPURUAREN BATEZ BESTEKOAREN BILAKAERA				
Urtea	Biztanleak guztira	Etxebizitza okupatuak	Biztanleak/ etx. okupatuko	Bilakaera
1997	4.300	1.332	3,23	-
2005	4.699	1.719	2,73	1997-2005: - 15,5%
2013	5.699	2.169	2,63	2005-2013: - 3,80%

Fuente: Ayuntamiento de Orio. Elaboración propia.
Iturria: Orioko Udala. Guk egina

Halaber pentsatu behar da krisia gainditzeak eskaria suspertzea eragingo duela, batetik, azken urte hauetan merkaturatzeko ezintasunaren aurrean pilatutako eskariari erantzuteko eta, bestetik, etxebizitzako okupazio-ratioaren murrizketa handia izan daitekeenaren ondoriozko eskariari erantzuteko.

Bestalde, esan daiteke, ondorengo taulan jasotzen den bezala, 2006tik aurrera eragin duela etxebizitza-produkzio handiak biztanleriaren gorakada, familiak finkatuz eta adinen piramidearen oinarria zabalduz, udalerriaren etorkizunerako garrantzitsua dena.

BIZTANLERIAREN ETA ETXEBIZITZA BERRIAREN BILAKAERAREN ALDERAKETA					
	1997. urtea	2005. urtea	2013. urtea	1997-2005	2005-2013
Biztanleria	4.300	4.699	5.699	+ 9,28%	+ 21,28%
Etxebizitza okupatuak	1.332	1.719	2.169	+ 29,05%	+ 26,18%

Fuente: Ayuntamiento de Orio. Elaboración propia.
Iturria: Orioko Udala. Guk egina

Bestalde, 2006ko otsailean Zarautz-Azpeitia Lurralde Funtzionalaren Lurraldearen Zatiko Plana (LZP) onartu zen, Orioko udalerria barne hartzen duena. Beraz, plan horri ezarri zitzaion epemugaren (16 urte) erdia igaro da. Horregatik, ia-ia bat etorriko dira LZPren eta idatziko den Plan Orokor berriaren epemuga. Horrela, hemen egiaztatu behar dira aipaturiko LZPk etxebizitza-arloan dituen zehaztapenak.

Aipaturiko LZPk lurralde-eremu berezizat jotzen zuen eremu funtzionalaren ekialdeko kosta, Orioko udalerria eta Aiako udalerriaren zati bat hartzen dituen. Eremu horretarako 1.100 etxebizitza berri aurreikusten zituen 16 urteko epean (2006-2022) eta horietatik 300ek, gutxienez, babes publikokoak izan behar zuten. Halaber, "habitat alternatibo" gisa eta "bigarren etxebizitza hartzeko nukleo egoki" gisa jotzen du LZPk Orioko udalerria eta, horren ondorioz, 800 eta 1.000 etxebizitza jotzen ditu 16 urteko epe horretan Orioko udal-plangintza orokorrak proposatu beharreko gutxieneko eta gehieneko etxebizitza-kopuruak.

Azken bi laurtekoetan (LZPren epearen lehen erdia) gutxi gorabehera 582 etxebizitza eraiki direla ikusita (plangintzak aurreikusitako 843 ken egikaritu gabeko 261), Plan Orokor berriaren eskaintzak 218 eta 418 etxebizitza berriren artekoa izan beharko luke, birgaitze-prozesuen ondoriozkoak kanpo utzita, LZPn berariaz adierazten den bezala. Kopuru horien arabera etxebizitza-aurreikuspena 4,78 eta 9,16 etxebizitzakoa da mila biztanleko eta urteko.

Gainera, azken urte hauetan eremu funtzionaleko ekialdeko kosta horretako eremuan babes publikoko 75 bat etxebizitza egin direla kontuan hartuta, Plan Orokor berriak, gutxienez, babes publikoko 203 etxebizitzaren antolamendua aurreikusi beharko luke, LZPren zehaztapenen arabera. Horretarako, indarreko plangintzan aurreikusita dauden eta LZP horretan xedatutako irizpideak betetzen dituzten etxebizitzak zenbatuko dira, baita egikarituta badaude ere.

Gainera, etxebizitza babestutzat jo behar dira babes ofizialekoak nahiz modalitate desberdinetan tasatuak.

II.3. Hiri-ingurunea. Egungo egoera

Hiriguneak hartzen ditu etxebizitza gehienak, eta baita udalerriko zerbitzuak eta ekipamenduak ere.

Oro har, trinko samarra da erdigunean, alde zaharrak eta hirurogeita hamarreko hamarkadaren bukaera bitartean egindako lehen zabalguneak osatutakoan. Dentsitate txikiagoekin zabaldu eta luzatu da iparralderantz, ekialderantz eta mendebalderantz garapen berriagoetan, betiere Oriaren itsasadarraren eskuin aldean.

San Martingo hegalean, antzinako errege-bidearen (egungo Kale Nagusia) eta itsasadarraren ertzaren artean kokatutako alde zaharra iparralderantzko garapen lineal batekin handitu da haraneko zona lauean. Eusko Gudari eta Pelotari kaleen bi aldamenetan dauden profil ertaineko blokeek osatzen dute garapena.

Egoera horretan oinarrituta, hiri-bilbearen beste luzapen batzuk egin dira berriki, egungo konfiguraziora eraman dutenak.

Batetik, Hondartza Bidean bermatuta, Eusko Gudarien Kalearen bukaeratik Antilla hondartzaraino doazen dentsitate baxuko garapenen ondoriozkoa.

Ekialderantz, GI-634 errepidearen (kostako errepidea) eta Oriaren itsasadarraren artean, Anibarko Portua izeneko multzoa dago, bizitegi-erabilerako eta tipologia mistoko poltsa isolatua balitz bezala, eta hiri jarraitua ixten du, beraren eta alde zaharraren ondoko Aramendi-Toki Alaiko eremu finkatuaren artea garatu gabeko eremuren bat utziz.

Bestalde, Eusko Gudarien Kalearen mendebaldeko ibarreko lurak ere oktogono formako hiri-egitura batek eta etxadi ireki edo bloke gisako eraikin batek hartu ditu.

Eraikinen profil orokorra sestra gaineko lau solairukoa da, Gudarien kalearen eta Aramendi-Toki Alairen inguruko eraikinetan solairu bat edo bi gehiagokoa soilik dena.

Azkenik, hirigune nagusitik bereizitako baina haiekiko jarraitutasuna duten hiri-inguruneak buruzko aipamena egin daiteke, esaterako, alde zaharretik ekialderantz Oriaren eskuin aldean kokatutako Ortzaika eta Botaleku eremuei buruzko aipamena.

Eta baita itsasadarraren ezker aldean, GI-634 errepideko zubitik kostarainoko tartean kokatutako eremuei buruz ere. Eremu horietan industria-jarduerak edo portu-erabilerarekin zerikusia dutenak daude, baita zuzkidurazkoak ere, esaterako, Txurruka enklabea (Oribarzar hondartza).



Aipatu beharrekoa da Orioko kanpina Antillako hondartzaren ondoan dagoela, lurzoru urbanizaezineko lur laueta, eta lau aldetan udalerrian egin diren azken garapenekin egiten duela muga.

Eremu globalak eta zuzkiduratarako partzelak, bai ekipamendutarakoak eta bai espazio libretarakoak, eremu garatu berrietan daude gehienak.

Alde zaharrean edo bere inguruan kokatutako San Nikolas eliza, udaletxea edo frontoia bezalako elementuak alde batera utzita, inguruko zuzkidura-multzo aipagarriena itsasadarraren ertzean Erribera, Azkue eta Mundo eremuetan kokatutakoa da, ikastola, polikiroldegia, futbol-zelaia, berdeguneak eta abar hartzen dituenak.

A-8 autopistaren iparraldean, Kaia kirol-portua, Hondartza parkea eta Antilla eta Txurruka hondartzak udako eta itsasoko aisiaren arloko oinarritzko zuzkidurak dira. Udalerrria buru-belarri murgilduta dago zuzkidura horietan.



Horren guztiaren emaitza hiri-kalitate handiko edo oso handiko udalerria da, bai garapen historikoetan, birgaitutakoak gehienak, eta bai garapen modernoetan. Indarreko plangintzan aurreikusita bezala hobetu edo eralda daitekeen partzelaren bat edo beste baino ez da geratzen.

Orioko hirigunearen forma- eta espazio-egoerari buruzko balorazio guztiz positibo horri baina txiki bat jar dakioke egikaritutako azken garapenetako batzuen dentsitate baxuari edo oso baxuari dagokionez.

Zentzu horretan, Oriorentzat nahiz beste edozein udalerrirentzat balio du esateak lur laua ondasun urria dela gure lurraldean eta behar den bezala aprobetxatu behar dela, erabilera-intentsitatearen eta ateratzen den hiri-espazioaren kalitatearen arteko oreka bilatuz.

II.4. Alde zaharra.

San Martin gainetik ibarreraino doan muinoko banalerroan zehar doan Kale Nagusiaren bi ertzetan bermatuta dago.

Hego-maldarantz luzatzen da alde zaharra, Urdaire, Almirante Oa, eta San Nikolas kaleekin..., eta itsasadarraren ertzeraino jaisten da, arrantza-kai zaharra eta Herriko Plaza dauden tokiraino.

Beraz, zatirik handiena mendi-hegalean dago eta, horregatik, aldapa handiko kaleak ditu, kasu ren batean oso pikoak.

Baserri batzuek harlanduzko fatxada dotoreak, baoen azpadurak, zur landuzko hegalak eta abar dituzte. Hala ere, historia- eta arte-arloko eraikin garrantzitsuena Bariko San Nikolasen parroikia da, Kale Nagusiaren hasieran dagoen ganga gaineko pasabide estali bereziarekin.



Eremuak behin betiko onartutako Birgaitzeko Plan Berezia du, eraikinetako eta eremu publikoko esku-hartzeen baldintzak arautuz babesten duena.

2007ko otsailaren 22ko Foru Aginduaren bitartez onartu zen behin betiko, eta irisgarritasuna hobetzeari buruzko (aparkalekua, igogailuak) bere zehaztapen ugari gauzatu dira.

Plan Orokor berria elaboratzeko testuinguruan, bere edukiaren berrikuspen posiblea baloratu beharko litzateke.

II.5. Mugikortasuna (I.5 planoa)

“Kostako errepide” (GI-634) historikoak pasadizoko trafikoetatik aparte uzten zuen Orioko hirigunea, hirurogeita hamarreko hamarkadan garrantzia hartzen joan ziren trafikoetatik.

AP-8 autopistak nabarmen murriztu zuen trafikoa, baina 634 jende askok erabiltzen duen errepide turistikoa da, eta Orioko hondartza eta kanpina ere jende askok erabiltzen ditu. Horregatik, hiriguneak trafiko handia izaten jarraitu du.

Arazoa nabarmen txikitu zen autopistako sarbide berriekin eta 634 errepideko Anibarko Portuko biribilgunetik herriaren iparraldera (hondartza) egindako sarbideekin ere, hondartzara, kirol-portura edo han ezarritako bizitegi-garapen berrietara doazen trafiko asko hartzen baititu. AP-8ko sarbideak ordaindu beharreko bide baten mugapen ekonomikoak ditu, eta baita funtzionalak ere, Donostiatik eta Donostiaranzko mugimenduak soilik egiteko aukera ematen duelako.

Dena den, Aritzaga Kaletik egiten den lehengo sarrera, oraindik ere garrantzitsua dena, delikatu da zeharkatzen duen hiri-inguruneagatik, herriaren erdiguneari dagokion oinezkoen intentsitate handia baitu. Agian, hirigunearen behe-aldean -Aritzaga Kalea, Herriko Enparantzaren ingurunea- bidearen baterako existentzia planteatuta liteke hemen, indarreko plangintzak proposatzen zuen bezala.

Gainerakoan, ibilgailuen eta oinezkoen mugikortasuna, funtsean, ona da Orion, bide-egitura osoa eta sekzio egokiak baititu, Eusko Gudari eta Arrantzale kaleetan eta Hondartza bidean oinarritutakoa. Kale horiek ipar-hegoalde norabidean antolatuta daude eta hiri-garapen osoa egituratzen dute hirigunetik hondartzaraino.

Ekialderantz, GI-634 errepidean bermatzen dira garapenak, baina Ibaiondo kalearekin osatuta. Ibaiondo kalea oinezkoentzako pasealekua da, oso baldintza onekoa, eta hirigunearen bukaeraraino iristen da Ortzai kan.

Ezker aldean, Mutiozabal eremuan eta GI-634 errepidearen ertzean dagoen Kaia eremuaren zati batean oinezkoentzako baldintzak hobetu dira espaloi zabal bat egin denean puntu horretan Euskotrenen trazatua aldatzearen ondorioz.

Hortik aurrera, Txurrukako hondartzatik eta portuko plataformatik igarota kostako murruekin bat egiten duen errepidea ere duela gutxi berri du, bai trazatua eta bai zorua.

Horrela eratutako bide-egiturak indarreko plangintzan jasotako aurreikuspena du, gainera. GI-634 errepidearen hiri-saihesbidea da, Anibarko Portuko biribilgunetik itsasadarra zubi baten bitartez zeharkatzen duena Motondoraino iristeko eta zubi zaharraren parean GI-634 errepidearekin berriro bat egiteko. Saihesbide hori Foru Aldundiaren errepide-sare orokorraren zati bat da eta Foru Aldundiak egikaritu behar du; dena den, une honetan ez du programazio-eta finantzaketa-aurreikuspen zehatzik.

Garraio publikoari dagokionez, Euskotrenen zerbitzuak daude, batetik, tren-zerbitzuak, Mutiozabalen aurrean zubiaren hegoaldean kokatutako Aiako geltokiarekin eta, bestetik, autobus-zerbitzuak, Aita Lertxundi kalean geralekuak Zumaia-Donostia linearekin.

Aparkalekuari dagokionez, hasiera batean udalerriarentzako arazo larria ez dela esan daiteke. Azken hiri-garapenek aparkaleku asko sortu dituzte, erabilera publikokoak nahiz pribatukoak, ondoren azalduko den bezala.

“Eusko Gudarien Kalea merkataritza-ardatz gisa hobetzeko proiektua...”, Ikei eta Injelan aholkularitzek egindakoa, oinarritzat hartuta, espazio publikoetako aparkaleku-kopurua 2.100 unitatekoa da, gutxi gorabehera.

Horietatik 1.100, gutxi gorabehera, uda partean egunez ordaintzekoak dira, eta hondartzatik eta kirol-portutik hurbil daude (Kaia eta Hondartza eremuak), beraz, irisgarritasun mugatuko aparkalekutzat jo daitezke.

Gainerakoak –1.000 aparkaleku edo- erdigunean daude (Aramendi eta Azkue bitartean), eta ondorioz, erabilgarriagoak dira etxebizitza gehienetatik hurbil daudelako. Horiei gehitu dakizkie futbol-zelaiaren azpian eraikitako sustapen publikoko aparkalekuko 284 plazak.



Erdiguneko 1.284 aparkaleku horiek bakarrik indarreko legeriak lurzoru urbanizagarriako xedatutako estandarra gainditzen dute, udalerriko biztanle-kopuruak behar duenaren kalkulua eginda (gutxi gorabehera 1.080 aparkaleku).

Horri guztiari izaera pribatuko 1.000 aparkaleku inguru gehitu behar zaizkio, etxebizitzaren azpian eraikitakoak.

Bestalde, bi kopuru horien batura udalerrian erroldatutako (2011ko datua) 2.113 automobilak baino handiagoa da.

Oinezkoen mugikortasunaren ikuspegitik ere ez dago egiturazko arazorik, topografia laua (gero azalduko den Alde Zaharrekoa alde batera utzita) eta espaloi eta pasealekuen tamaina eta trazatu egokiak kontuan hartuta. Azken horien artean lehen aipaturiko Ibaiondokoa nabarmendu behar da, itsasadarraren ertzean zubitik Ortzakaraino doana, eta kai zaharrean eta Zabalguneko eta Muntoko auzo berrietan barrena jarraitzen duena itsasadarrarekin bat egin eta kirol-porturaino iritsi arte. Gero Hondartza bidetik jarraitzen du Antilla hondartzaraino eta bokaleko morruaren muturreraino. 3.800 m inguruko etenik gabeko pasealekua da Oria itsasadarraren ertzean.

Aurrekoa alde batera utzita, Alde Zaharreko zenbait kalek dituzten aldapak aipatu egin behar dira hemen, batik bat Kale Nagusiko lehen zatian, San Nikolas elizaren ondoan, gehiegizkoak direnak.

Azken urte hauetan jarri diren bi igogailuk dezente hobetu dute egoera. Aurrena Eusko Gudarien kaleko etxadi-patioetako batean dago; zubi-sistema batekin eta lehendik dauden espazioetako ibilbide batzuekin osatuta, Iturbide kaleko bi mailarekin lotuta dago. Horietatik, Kale Nagusiko beste horrenbeste puntutara iristen da desnibel handirik gainditu





gabe, eta haietatik alde zaharreko beste leku garai batzuetara. Besteak Herriko Enparantza eta San Nikolas kalea lotzen ditu.

Beste ikuspuntu batetik, aipatzekoa da bere garaian (1970ko hamarkadan) egindako A-8 autobideak Orioko fisionomia erabat aldatu zuela. Aldi berean udalerrria bi zatitan banatu zuen, gehiengo ingurune naturalaren eta ingurune urbanoaren arteko lotura hautsiz. Horrek izan zituen eraginaren adibide bat Santiago Bidea dugu. Zehazki, egindako lubakiak ibilbidea aldatu zuen, eta gaur egun beharrezkoa da autobidearen azpitik pasatzea, oinezkoak ingurune aldapatsu eta arriskutsu batetik ibiltzea derrigortu ondoren.

Kontu horiei buruzko beste alderdi zehatzago batzuetarako, 2011n udalarentzako idatzitako "Eremu berezietako Hiri Irisgarritasuneko Planari" lotuko gatzaizkio.

Eta bidegorriei dagokienez, une honetan egikarituta daude hainbat bide-zati eta, formalki loturarik ez duten arren, jarraitutasuna izango lukete itsasadarraren eskuin aldeko pasealekuan. Batetik, hondartzatik Hondartza kalean barrena datorrena aipaturiko pasealekuraino autopistako zubi pareraino. Zati horretan adar partikular txiki bat ateratzen da Hondartzako eremurantz. Gero Ixarra kaleari dagokiona dago, Munto eta Erribera eremuetan. Eta, azkenik, Ortzaitatik Anibarko porturaino iristen dena dago, itsasadarraren ertzean hau ere.

Bestalde, Gipuzkoako bizikleta-bideen LAPak Oriaren ezker aldetik diseinatu du Oinarrizko Sarearen ibilbidea – Donostia-Mutriku I-2 tartea- Motondotik Altxerrira, eta hor barrualderantz desbideratzen da Zudigarairantz (Aia). I-2.7 Orio (Geltokia-Hondartza) bigarren mailako tartea ere badago, itsasadarra inguratzen duena Altxerritik Oribarzar hondartzaraino. (Ikus grafikoak ondoren).



II.6 Ingurune fisikoa

II.6.1 Klima

Kokapen geografikoak finkatzen du oszilazio termiko txikia, izozte gutxi eta prezipitazio ugari ezaugarritzat dituen klima. Itsasoak eragin handia du eremuan. Klima mesotermikoa da, moderatua tenperaturetan eta oso euritsua, batez ere udazkenean eta neguan.

Urteko batez besteko tenperatura (1973-2002 aldian) 13,0° C-koa izan da, 16° C tenperatura maximoen batez bestekoa eta 10,0° C minimoen batez bestekoa. Urteko prezipitazioen batez bestekoa 1.581 mm-koa da. Hezetasun erlatiboa altua da, bereziki udako hiletan. Urteko batez bestekoa % 78koa da. Kostaldean 5 kazkar-egun baino gehiago izaten dira urtean. Izozte egunak ez dira 9ra iristen urtean. Batez beste 83 egunetan izaten da lainoa. Urtean 36 egun izaten dira oskarbi. Urteko eguzki-orduak 1.645 izaten dira batez beste.

Oro har, mendebaldeko eta ipar-mendebaldeko haizeak jotzen du, nahiko modu irregularrean. Haize neurritsuak urriak dira eta dezentetan izaten dira haize zakar eta denboralezkoak. Neguko haizeak, iparrekoak nahiz hegokoak, udakoak baino askoz zakarragoak izaten dira. Kostako mendikatearen iparreko hegala dago ipar-haizeen eraginpean. Kukuarriren hegoaldeko eta hego-ekialdeko hegala babestua eta egutera da, eta nekazaritza-ustiapen gehienak hartzen ditu. Egungo hirigunea ere babestutako kokapenean dago. Oria ibaiaren bokalean daude Erribera eta Hondartza eremuak eta Antillako hondartza. Eremu horiek ezaugarri klimatologiko gogorrak dituzte, zuzenean eragiten dietelako haizeek (bai ipar-haizeak eta bai hego-haizeak).

II.6.2 Geologia

Eskualdeko geologiaren ikuspegitik, eremua euskal-kantauriar arroaren barruan dago eta, zehazkiago, Euskal Arkua deituriko eremuan. Tertiarioko materialak dira ugariak, lodiera handiko flysch gisako garapenarekin.

Orioko udalerrian honako litologia-mota hauek daude:

Litologia kuaternarioak. Hareak, lohiak, legarrak eta buztinak dira. Prozesu sortzailearen arabera hainbat kategoria bereiz daitezke: ibai-kuaternarioa, betelanak.

Harri karbonatuak. Margokareharriak, tuparri kareharritzkoak eta kalkarenitak eta kareharri ezpuruak eta kalkarenitak txandakatzen dira.


Harri silizeoak, udalerriko ipar-ekialdeko koadrantean ageri direnak. Horien artean ale larriko harri detritikoak nabarmentzen dira.

Interes geologikoko eremu gisa, honako hauek nabarmentzen dira udalerrian:

Oriaren estuarioa. Oria itsasadarraren bokalari elkartutako itsasertzeko jalkinak.

Orioko itsaslabarra: egitura geologikoak kontrolatutako itsaslabarra da. Paisaiaren kalitatea nabarmentzen da.

EAEko ingurumen-kartografian (Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailburuordetza. 1/25.000 eskala) oinarrituta, honako grafiko hau egin da, formazio litologiko nagusiak eta interes geologikoko eremuak jasotzen dituen.



INTERES GEOLOGIKOKO EREMUAK


II.6.3 Geomorfologia

Morfologiari dagokionez, ibai- eta estuario-dinamika dira nagusi. Bi horiek, itsasertzeko jabari morfogenetikoarekin batera, kostaldearen egungo konfigurazioaren erantzuleak dira. Itsasertzeko prozesu geologiko esanguratsuenak malda handieneko hegaletako solifluxio- eta lerradura-prozesuak, ibaien behe-ibilguko alubioi-lautadetako uholde-prozesuak eta itsasertzeko higadura- eta jalkitze-prozesuak dira.

Honako hauek dira Orioko udalerrian dauden formazio geomorfologiko nagusiak:

- Itsaslabarrak.
- Mendi-hegaleko formazioak, pilaketa bidez egindako formazio kolubialak edo higadura-prozesu aktiboa duten formazioak dituztenak.
- Ibai-formazioak, haran-hondoko eta ibarbideetako alubialek ordezkaturakoak.
- Betelan heterogeneoak.
- Hondartza
- Duna-eremua
- Marearteko lohitsuak
- Marearteko hareatsua
- Supramareal hareatsua
- Supramareal lohitsuak

Formazio geomorfologikoak honako grafiko honetan daude adierazita.



GEOMORFOLOGIA


II.6.4 Orografia eta maldak

Udalerriko kota garaiena Kukuarri mendiaren gailurrari dagokio, 364 m-rekin. Igeldotik (Donostia) Talaimendiraino (Orio) kostaren paraleloan doan gailur-lerro batekoa da tontor hori. Mendikatearen ipar-isurialdeak orografia malkartsuagoa du, eta hegoalderantz aldapa leunagoak ditu.



Udalerriko azaleraren % 55 baino zerbait gehiagok % 30etik gorako maldak ditu, eta azaleraren % 12k soilik ditu % 10etik beherako maldak. Gutxi gorabehera udal-azaleraren % 28k ditu % 50etik gorako maldak. Itsas-erlaintz osoan daude, eta baita Kukuarriren eta Talaimendiren iparraldeko mendi-hegalean ere. Garmendin eta Txarako Haitzean ere badira eremu malkartsuak.

Lurraldearen ezaugarri orografikoak Hipsometria izeneko 1.6 planoan daude irudikatuta, eta baita ondorengo "Maldak" izeneko grafikoan ere.



MALDAK

II.6.5 Lurzoru eta mota agrologikoak


Honako hauek dira udalerrian dauden lurzoru-motak:

- Litosol motakoak: Mendizorrotz mendiaren ipar-hegalean dauden azaleko lurzoruak edo lurzoru eskeletikoak, erabilera-ahalmen oso txikikoak.
- Cambisol motakoak: garapen handiagoko lurzoruak, sakoneraren eta maldaren arabera erabilera-ahalmen aldakorrekoak.
- Lluvisol motakoak: aurreko kasuan bezala, profilaren garapen handia dute. Erabilera-ahalmen aldakorra dute eta finkatuta dauden maldaren arabera da.
- Gleysol motakoak: lurzoru sakonak, alubioi-lautadan kokatutakoak, azal freatiko aldakorrek eragindakoak. Oro har, erabilera-ahalmen handiko lurzoruak dira.
- Aerosol motakoak: ahalmen agrologiko txikiko lurzoruak, testura hareatsua dutenak.

Gipuzkoako Foru Aldundiak egindako Mota Agrologikoen Mapan (1:25:000) eskala) udalerrriaren zatirik handienak VI. eta VII. mota agrologikoko lurzoruak ditu, landaredia iraunkorra izateko egokiak. Itsasertzeko itsaslabarren eremua ere nabarmentzekoa da, lurzoru antzu gisa sailkatu dena.

Nekazaritza eta Basoak antolatzeko LAPak Nekazaritza, Abeltzaintza eta Landazabala Eremuen kategorian eta "Balio Estrategiko Handiko" azpikategorian sartzen ditu ahalmen agrologiko handieneko lurzoruak, Mota Agrologikoen Mapako (1:25:000) II., III. eta IV. motekin bat datozenak. Eremu horiek hirigunearen ondoko alubioi-lautadetan, Marierrotan, Txanka Errekako ibarbideetan eta San Martin eta Usurramendiko muinoetan daude.

Hurrengo grafikoak eremu horiek jasotzen ditu Nekazaritza eta Basoak antolatzeko LAPren zehaztapen eta irizpideetan oinarrituta, azken urte hauetan egindako erabilera-aldaketak adierazteko egokiak direnak.



MOTA AGROLOGIKOAK

II.6.6. Hidrologia

II.6.6.1 Sare hidrografikoa

Orioko udalerria honako arroa edo azpiarroa hauetan banatuta dago:

- Behe Oria, Oria Unitate Hidrologikokoa. Udalerriaren hegoaldea ardatz nagusiaren, hau da, Oria ibaiaren arroan dago.
- Mendizorrotz (kostako arroa), Segan edo Añarri ere deiturikoa, Oria Unitate Hidrologikoaren itsas arroa erantsitatzat jotzen dena.

Oria U.H.-k 912,86 km²-ko azalera du. Ibai nagusiaren, hau da, Oriaren arroa 882 km²-koa da. Horri gehitu behar zaizkio arroa erantsi txikiak, zuzenean itsasoratzen direnak.

Ibilgu nagusiak, Oria ibaiarenak, udalerriaren hegoaldeko eta mendebaldeko mugak finkatzen ditu. Gutxi gorabehera, 77 km-ko luzera du. Ibaiak zeharkatzen dituen herrien artean daude: Usurbil, marea-eremuaren muga dagoen tokia, eta Orio, itsasoratzen den tokia.

Oria ibaiak, Orioko udalerrian sartu eta gero, Saikola, Ondaluz, Txanka, Aranoko eta garrantzi txikiagoko beste ibaiadar batzuen emariak jasotzen ditu eskuin aldetik. Ezker aldetik, berriz, Aiako udalerriarekin muga egiten duen inguruan, Motondo, Santiago eta Altxerri (Artxodi) adarren emariak hartzen ditu. Udalerrian hondartza bat du itsasadarrean bertan, Oribartzako hondartza (edo Txurruka), eta bokalean Antillako hondartza dago, ibaia bideratzen duen morruak babestuta.

Segan arroak (Añarri, Mendizorrotz) Talaimendi-Kukuarri-Mendizorrotz tontorrek eratzen duten itsasertzeko mendikatetik Kantauri itsasora zuzenean jaisten diren errekek hartzen ditu. Mendizorrotzeko errekek izenpean bildu dira, besteak beste, Urberde, Donostiarekiko muga, Bordatxuloko, Segan eta Mutegizar errekek.

Sare Hidrografikoa I.7 Planoan jaso dira drainatze-sareko elementu nagusiak.

II.6.6.1.1. Kalitate fisiko-kimikoa. 2001ko edizioaren emaitzak

Oria ibaiaren uren kalitatea bereizteko Eusko Jaurlaritzako Zaintza Sareak landutako datuak erabili dira. Zehazki, honako estazio hauei buruzko datuak erabili dira:

LAGINKETA-ESTAZIOAK				
ESTAZIOA	MOTA	KOORDENATUAK	ITSAS ERAGINA	LAGINAK
E-010	Uren, jalkinen eta bentosen estazioak	43°17'00''N - 02°07'90''W	++	URA JALKINAK KOMUNITATEAK
I-010	Moluskuen estazioak	43°17'05''N - 02°07'84''W	++	MOLUSKUAK
L-010	Uren, jalkinen eta bentosen estazioak	43°18'39''N - 02°08'06''W	+++	URA JALKINAK KOMUNITATEAK

Euskal kostaren egoera ekologikoaren Mapak (Uren Direktibaren zentzuan), Zaintza Sareak landutakoak, honako emaitza hauek eman ditu aipaturiko estazioetan:

KUTSADURA GLOBALA ESTAZIO BAKOITZEAN			
2000-2001 KANPAINA		ESTAZIOAK	
		E-010	L-010
URAK	Oinarrizko parametroak	Arina	Arina
	Bakteriologia	Ertaina	
	Metal astunak	Ertaina	Arina
	Konposatu organikoak	Kutsatu gabea	Kutsatu gabea
JALKINAK	Metal astunak	Arina	Ertaina
	Konposatu organikoak	Arina	Arina
MOLUSKUAK	Bakteriologia	Ertaina	
	Metal astunak	Kutsatu gabea	
	Konposatu organikoak	Kutsatu gabea	
KOMUNITATE BENTONIKOAK		Ertaina	Kutsatu gabea
GLOBALA		Ertaina	Arina

II.6.6.1.2. Ibai-ibilguen gaineko beste inpaktu batzuk

Oria ibaiaren eskuin aldea kanalizatuta dago Ortzaika auzotik ibaiaren bokaleko murruraino. Ezkerreko aldean kanalizatuta dago industrialdean, N-634 errepideko zubiaren eta Frantses muturraren artean eta bokalean, arrantza-portu berria egiteko morru berriak eraiki diren tokian.

Bi ertzetan dauden eraikinek jabari publiko hidraulikoko zortasun-eremua okupatzen dute. Antzeko zerbait gertatzen da ezker aldean, arraun-taldearen instalazioekin, aurreko paragrafoan aipaturiko industrialdearekin edo bokalean kokatutako arrantza-jarduerekin zerikusia duten instalazioekin (ontziolak, arrantza-portua, etab.).

Salmaristi-Marierrota meandrea eskuin aldean dago eta lubeta artifizial batek babesten du. Ezker aldean, Motondo eremua harri-lubeta batek babesten du.

Oriaren ibai-ertzeko landaredia asko aldatuta dago. Ezker aldea soilik dago kontserbazio-egoera onean, Itzaoko erriberaren eta Motondo eremuaren hasieraren arteko zatian, gutxi gorabehera 1.100 m-ko luzeran.

Txanka erreka, bestalde, kanalizatuta dago zati batean, A-8 autopistaren azpian igarotzen den zatian. Aranoko errekaaren trazatua ere aldatu egin da, A-8 autopista egikaritzeko lanetan. Gainera, bere trazatuaren zati bat estalita doa bokaletik hurbil, hiri-garapenaren azpian (Bikamiota).

Gainerako errekek inpaktu txikiak dituzte, batik bat bokaleko zatietan. Txanka eta Saikola errekek, oro har, ondo kontserbatutako ibai-ertzeko landaredia dute. Txanka erreka kasuan, ibai-ertzeko landaredia urria da bokalean eta nekazaritza- eta abeltzaintza-jardueraren presioak haltzadi kantauriarraren zatiak desagertzea eragin duen tarteetan. Ipar-isurian, ibai-ertzeko landaredia urria da, oraindik zuhaitz-orban batzuk badauden arren, ibilguen inguruko zenbait tartetara mugatu diren jatorrizko landare-basoak.

II.6.6.2. Hidrogeologia

Euskal Herriko Mapa Hidrogeologikoan dagoen informazioa kontsultatu da (EVE, E: 1/100.000, 1996). Aztertzen ari garen eremua "Kostako Katea" izeneko Jabari Hidrogeologikokoa da. Jabari horrek Gipuzkoaren iparreko muturra osatzen du. Kostako zerrenda da, funtsean material tertziarioek osatutakoa. Hidrografikoki, eremuaren ia % 70ek zuzenean isurtzen ditu urak itsasora edo ibaien bokale-ingurunera. Gainerako % 30 Bidasoa, Oiartzun, Urumea, Oria, Makazeta eta Urola ibaien arroen artean banatzen da. Ibai horiek zatitu egiten dute kostako mendikatea, lau sektore zehatzuz. Erdiko sektoreak hartzen du Orioko udalerraren zati handi bat.

Sektore guztiek dute substratu iragazgaitza. Tuparri eozenoek osatzen dute eta jabariaren hegoaldeko ertz iragazgaitza dira. Material iragazkorren azalera osoa 15 km²-koa da Erdiko sektorean. Ez dago akuiferoen kutsadurarekiko urrakortasun handia edo oso handia duen eremurik.

Sektoreen birkarga azaleramenduen gainean eroritako iragazketatik dator gehien bat. Deskarga ur-puntu ugariren bitartez eta zehaztu gabe egiten da erreken ibilgura, itsasorako deskarga zuzena ere egiten den arren. Jabarian 64 iturburu eta 7 zundaketa inbentariatu dira. Horietako 58k 1 l/s baino gutxiagoko batez besteko emariak dituzte. Gainerako puntuek 1 eta 10 l/s arteko batez besteko emariak dituzte. Orioko udalerria Erdiko sektorean dago eta sektore horrek biltzen ditu inbentariatutako puntu gehienak (60 iturburu), 15ek 1 eta 10 l/s arteko batez besteko emaria dute, eta baita bi zundaketa ere. Itxais eta San Juan dira iturburu esanguratsuenak eta baita Mendizorrotzeko zundaketa ere, denak Orio hornitzeko erabiltzen direnak.

Ur-hargune horien eta Euskal Herriko Mapa Geologikoan (EVE, 1:25.000 eskala) jasotako gainerako ur-puntu esanguratsuenen (iturburuak, bilketak, ustiapen-zundaketak...) kokapenak dokumentu honetako "Sare Hidrografikoa. Iturburuak, gainazaleko bilketak eta iturriak" izeneko I.7 Mapan adierazi dira.

II.6.7. Landaredia eta lurzorua erabilerak

II.6.7.1. Landaredia potentziala

Aztertzen ari garen eremuko landaredia potentziala honako landaredia-unitate hauek osatzen dute:

- Haltzadi kantaurrea: ibai, erreka eta erreka-ertzeak.
- Ameztia: kostako zerrendan dago, hareharrizko lurretan.
- Harizti azidofiloa eta harizti/baso mistoa: udalerrien zatirik handiena hartzen du.
- Itsasertzeko itsaslabarretako landaredia: itsasertza hartzen du.
- Kostako hareatzetako landaredia: landaredia egokituak osatutakoa. Hainbat landaredia-zerrenda bereizten dira itsasoarekiko hurbiltasunaren arabera.
- Paduretako landaredia: Oria ibaiaren bokalean garatzen da, marearen eragina dagoen eta gazitasunak landaredia baldintzatzen duen tokian.

II.6.7.2. Eguno landaredia

Eguno landaredia potentzialaren oso desberdina da. Orioko udalerriko egungo landaredia eta lurzorua erabilerak aztertzeko, 1:25.000 eskalako (Eusko Jaurlaritza, 1990) EAEko landarediaren mapako 64-I orria kontsultatu da.

Oinarri horren gainean egungo landarediaren mapa egin da 1:15.000 eskalako zehaztasunarekin (I.8. Planoa. Landaredia eta lurzorua erabilerak). Mapa hori Gipuzkoako Foru Aldundiak lagatako ortofotoaren fotointerpretazioaren bitartez egin da. Lortutako orbanak landa-lanaren bitartez egiaztatu dira.

12 unitatetako 252 landaredia-orban identifikatu dira mapan.

Landaredia Unitateen banaketa			
Kodea	Unitatea	Orban-kopurua	Azaleraren %
1	Haltzadi kantauriarra	5	1,66
2	Haritzia edo hostozabalen baso mistoa	14	2,54
3	Hariztiaren edo hostozabalen baso mistoaren gazte-fasea edo narriatua	39	5,35
4	Lezkadiak eta karize handien landaredia	3	0,05
5	Kostako hareatzetako landaredia	2	0,25
6	Itsaslabarretako landaredia-konplexua	1	10,21
7	Sastraka garai termo-atlantikoa edo gurbiztia	4	0,81
8	Txilardi/otadi/iratzedi atlantikoa	43	25,98
9	Baso-sailak	68	12,75
10	Belardi eta labore-lur atlantikoak	39	31,37
11	Hiri-parkeak eta lorategiak	9	0,78
12	Hiri-lurra eta landaredi erruderal-nitrofiloa	25	8,24
	GUZTIRA	252	100,00

Ondoren dago deskribatuta inbentariatutako landaredia-unitate bakoitza, intereseko landaredia-unitateei arreta berezia eskainiz, hain zuzen ere, 1etik 7ra zenbakitutakoei:

1- Haltzadi kantauriarra

Azalera txiki bat betetzen dute aztertzen ari garen eremua osatzen duten ur-ibilguen ertzetan. Guztira 5 orban identifikatu dira, udalerriko azalera osoaren % 1,66 hartzen dutenak.

Aitzperro eremuko Txanka erreken behe aldeko altzadiaren egoera ona nabarmendu behar da. Motondo eremuan 10-12 m inguruko garaierako haltz aleak daude, masa trinko samarra eratzen dutenak.

2- Haritzia edo hostozabalen baso mistoa

Gaur egun harizti-baso misto atlantikoen azalera txikiak eta aldatu samarrak daude. Unitate horren eremu potentzial ia osoa labore eta labore-lur atlantikoek, sastrakadiak eta konifera-sailek hartzen dute. Identifikatutako 14 orbanek udalerriaren azaleraren % 2,54 soilik osaten dute. Txanka erreken goi-ibarrean, Saikolako ibarbidean eta mendizorroretako erreketan dauden orbanak nabarmenak dira. Kartografiatutako masaren batean (Txanka, Saikola) ibar-hondoko haltzadi txikiren bat edo beste ere badu, laneko eskalan berezi ezin direnak.

3- Hariztiaren edo hostozabalen baso mistoaren gazte-fasea edo narriatua

Hariztiaren edo hostozabalen baso mistoaren gazte-faseko edo narriatutako orban batzuk ere aurkitu dira. Unitate horrek udalerriaren azalera osoaren % 5,35 hartzen du. Gazte-faseko masak bat datoz birsorkuntza-eremuekin, eite baxuko ale gazteak nagusi diren egitura dutenekin.

Masa narriatuak bat datoz azalera txikiko masekin eta kanpotik ekarritako espezieekin edo espezie erruderaletan (akaziak, platano arruntak, etab.). Mota horretako orban bat Txankako errepidean dago. Laurus nobilis edo erramu ale ugari ere ikus daitezke, eta horrek adierazten du eremu termofiloa dela.

4- Lezkadiak eta karize handien formazioak

Lezkadi-orban txiki bat detektatu da Saikolako presan, lezka (*Phragmites australis*) nagusitzen den tokian. Motondo eremuan beste bi orban identifikatu dira. Eremu horretan azalera oso txikiko hainbat orban daude, lan-eskalan kartografiatu ezin direnak.

5- Kostako hareatzetako landaredia

Asko aldatutako 2 orban identifikatu dira. Unitate horren azalera potentzialaren zati handi bat hiri-garapenak, azpiegiturek, eta abarrek okupatu dute.

Orioko hondartzako hareatzan *Gallium arenarium* espeziearen aipuak daude. Itsasertz atlantikoko espezie endemikoa da, Arriskuan dauden Fauna eta Floraren Euskal Katalogoan kaltebera gisa katalogatuta dago. Dena den, ez da ageri azken laginketan. Badira arriskuan dauden beste espezie batzuk ere, esaterako, *Festuca vasconensis* edo *Solidago virgaurea* subsp. *macrorrhiza*.

6- Itsaslabarretako landaredia-konplexua

Kosta guztian zehar horma bertikaletan garatutako unitatea da, hainbat hamarreko metroko garaierakoa. Udalerriaren azalera osoaren % 10 hartzen du, beraz, garrantzizko unitatea da. Flora halofito oso espezializatuak osatzen du.

7- Sastraka garai termo-atlantikoa edo gurbiztia

Hegoaldera begira dauden 4 orban txiki dira, udalerriaren azaleraren % 0,81 soilik okupatzen dutenak. Gehienak lurzoru eskeletikoak dituzten eremuetan azaltzen dira. Garmendi gaina eta Txarako Haitza eremuetan kartografiatutako azalerak nabarmentzen dira.

Artadi kantauriarrak berezkoak dituen zuhaixka-espezieak daude,

8- Txilardi/otadi/iratzedi atlantikoa

Unitate horren 43 orban identifikatu dira, udalerriko azalera osoaren % 26 hartzen dutenak. Bigarren unitatea da, azaleraren garrantzia kontuan hartuta. Harizti azidofiloak eta ameztiak ordezteko etapa eratzen du eta gizakiak aprobetxatu eta maneiatzen ditu.

9- Baso-sailak

Udalerriaren azalera aipagarria da, zehazki % 12,75ekoa, 68 partzelatan banatuta. Intsinis pinuaren (*Pinus radiata*) eta itsas pinuaren (*Pinus pinaster*) unadak daude. Eukaliptoen (*Eucalyptus* spp.) hainbat baso-sail ere aurkitu dira.

10- Belardi eta labore-lur atlantikoak

Udalerriko unitate nagusia da, azalera osoaren % 30 baino zerbait gehiago hartzen baitu, kartografiatutako 38 orbanekin. Unitate horren barruan azpiunitate bat ere kontuan hartu da, paduretako belardiak. Mapan 10. kategoria eman zaio eta 6 orban daude. Belardi horiek drainatzeak dituzte.

Oriaren itsasadarreko padura-eremuak, EAEko Hezeguneen LAPak egindako diagnostikoak jasotzen duen bezala, murriztuta geratu dira hainbat azpiegituragatik eta nekazaritza- eta abeltzaintza-jarduerengatik. Motondoko eremuan orban txiki sakabanatuak daude, baina azalera txikia dutenez ezin dira kartografiatu lan-eskalan.

11- Hiri-parkeak eta lorategiak

Aztertzen ari garen eremuko parkeak eta lorategiak jaso dira. Udalerrriaren azaleraren % 1 baino gutxiago hartzen dute.

12- Hiri-lurra eta landaredia erruderal-nitrofiloa

Udalerrriko hiri-inguruak eta eremu abandonatuak, alfer-lurrak, azpiegiturak eta abar sartu dira. Azalera garrantzitsua dute, udalerrriaren azaleraren % 8,24 hartzen baitute. 10. mapan 12' azpiunitatea bereizi da. Padura-eremuan egindako betelanak dira. Motondon eta ibaiaren eskuin aldean dauden bi orban dira. Padurako berezko espezieak dituzte, bereziki *Baccharis halimifolia* inbaditzailea.

II.6.7.3. Flora mehatxatua

Arriskuan dauden Fauna eta Floraren Euskal Katalogoan jasotako espezieen inbentarioa eta EAEko aparteko zuhaitzen zerrenda kontsultatu dira.

Arkumetegiko errekek, Mendizorrotzen iparraldetik doanak, banaketa murriztuko bi espezie hartzen ditu: *Stegnogramma pozoi* eta *Woodwardia radicans*. Lehenengoa erlaitz kantauriarrean soilik dago Europa osoan eta bigarrena Portugal eta Galiziako kosta atlantikoetan eta erlaitz kantauriarrean zabalduta dago. Katalogoan jasota dago *Gallium arenarium* espeziearen presentzia Orioko udalerrian. Kostaldeko hareatzetako espeziea da.

II.6.8. Fauna

Faunaren atala aurretiko azterlanetan eta lanetan bildutako informazioan oinarritzen da. Horretarako, honako lan hauek berrikusi dira:

- EAEko Ornodun Kontinentalen Atlasa (Álvarez et al, 1984)
- Ornodun Kontinentalak, Egungo egoera EAEn (Álvarez et al, 1998, Eusko Jaurlaritza)
- EAEko Hezeguneen Lurraldearen Arloko Plana.
- EAEko Itsasertza babestu eta Antolatze Lurraldearen Arloko Plana.
- Gipuzkoako hegazti habiagileen atlasa (Aierbe et al, 2001, Munibe)
- Hegoaldeko Zuhaitz-igelaren Kudeaketa Plana (*Hyla meridionalis*, Boettger, 1874) (2002ko Jarraipen Programa, Gipuzkoako Foru Aldundia, Ekos Estudios Ambientales)
- Hegoaldeko Zuhaitz-igela (*Hyla meridionalis*) Mendizorrotzen Birsartze Lurraldearen Kudeaketa Plana (2002ko Memoria, Gipuzkoako Foru Aldundia, Aranzadi ZE)
- Motondoren antolamenduaren aurrerakinari buruzko neurri zuzentzaileen Ingurumen Txostena eta Proposamena (1992, Orioko Udala, Ekos Estudios Ambientales)

Kolakaren (Alosa alosa) Kudeaketa Planeko datuak ere badaude. Atal honek bi kapitulu ditu: Dauden espezieak eta Faunaren Intereseko Eremuak.

II.6.8.1. Dauden espezieak

Atal honetan interes handienekotzat jotzen diren espezieen presentzia aipatuko da, Ornodunen talde handiak kontuan hartuta. Horretarako, Basa eta Itsas Fauna eta Landaredian Arriskuan dauden Espezieen Euskadiko Zerrenda arautzen duen uztailaren 9ko 167/1996 Dekretuan sartutako espezieen presentzia berrikusiko da (EHAA 140. zk., uztailaren 22koa), eta baita 1997ko uztailaren 8ko Agindua ere, Basa eta Itsas Fauna eta Landaredian Arriskuan dauden Espezieen Euskadiko Zerrendan ornodunen espezie, azpiespezie eta populazioak sartzen dituen (EHAA 142. zk., uztailaren 28koa).

I. Eranskinean daude 30T WN79 saretako fauna-espezieak, Orioko udalerrria kokatuta dagoen saretakoak. Ornodunen 1985eko Atlasean dauden espezieen zerrenda hartu da oinarritzat. Azterlan berriagoetako informazioarekin osatu da.

ARRAINAK

Eremuko arrain-espezie bakarra dago mehatxatuta Arriskuan dauden Espezieen Euskal Zerrendaren arabera. Arriskuan dagoena kolaka (*Alosa alosa*) da, Zerrendan espezie bakan gisa sailkatuta dagoena Habitaretei buruzko 92/43/CEE Direktibako II. Eranskinean ere jasota dagoena. Oria ibaiaren arroatik desagertuta dago, baina azken urte hauetan hainbat ale heldu ikusi dira Usurbilgo bilketa-estazioan, Orioko tarte horretatik igaro behar dutenak.

Hortik aparte, Oria ibaian ur gazikaretako hainbat espezie eta espezie migratzaileak daude. Ordezkaritipikoa da bokaletako zarboa (*Pomatoschistus microps*). Eremuan ohikoak dira aingira (*Anguilla anguilla*) eta korrokoia (*Chelon labrosus*) ere. Oriaren estuarioko zati osoa garrantzi handikoa da espezie migratzaileen egokitzapen-fasean, esaterako, izokin arruntarenean (*Salmo salar*) itsas amurarrinarenean (*Salmo trutta morpha trutta*) eta kolakarenean.

ANFIBIOAK

30T WN79 Saretan dago hegoaldeko zuhaitz-igelaren (*Hyla meridionalis*) EAeko populazio bakarra. "Galzoriko" espezie gisa katalogatuta dago Arriskuan dauden Espezieen Zerrendan. Espeziea Mendizorrotz mendiaren hegoaldeko isurialdean dago, baina ez da iristen Orioko udalerrira. Hala ere, badako espeziea bertsartzeko plan bat, Zaragueta Herri Eskolaren (Orio) inguruan beste putzu bat egitea eta aleak lekualdatzea barne hartzen dituen. Putzua koordinatu hauetan dago.

X: 571.227 Y: 4.793.017

Orioko udalerrian dauden beste espezieek ez dute inolako arriskurik. Baso-igel gorria (*Rana temporaria*) nabarmentzen da, itsas-mailan ugaltzen dena Motondon.

NARRASTIAK

Dauden 10 narrasti-espezieetatik 9k ez dute inolako arriskurik zerrendaren arabera, eta ugariak dira Gipuzkoan. Eskulapioren sugea (*Elaphe longissima*) ere ikus daiteke, "Interes bereziko" espezieetat jotzen dena. Giro higrofiloetan aurkitzen den espeziea da, BGL ES212120010-ean dagoena. Ez da oso ugaria, Gipuzkoan dezente dauden arren.

HEGAZTIAK

Jakineko kontua da Orioko udalerrian 50 bat hegazti-espezie daudela. Migrazio-aldian edo negualdian egoten diren hegaztiak gehitu behar zaizkie horiei.

Katalogatutako espezieen artean badago "Kaltebera" gisa katalogatutako bat Altxerri inguruan, udalerritik oso hurbil baina udalerritik kanpo: txirritxo txikia (*Charadrius dubius*). Aldatutako habitata da, hasiera batean espeziearentzako oso egokia ez dena. Uhalde-enararen (*Riparia riparia*) aipamen bat ere badago Sarikola inguruan. Kaltebera gisa katalogatutako espeziea da hau ere.

Badirudi baztertu egin behar dela antzandobi kaskagorriaren (*Lanius senator*) presentzia, kaltebera gisa katalogatutakoa eta 1984ko Atlasean jasota zegoena.

Bakan gisa katalogatutako 2 espezieren aipuak daude. Lezkari arrunta (*Acrocephalus scirpaceus*) eta txio horia (*Phylloscopus trochilus*) dira. Biek dute aipamena Sarikolan (Aierbe et al, 2001).

Interes Berezikotzat jo diren 3 espezie daude: martin arrantzalea (*Alcedo atthis*), lepitzulia (*Jynx torquilla*) eta erroia (*Corvus corax*). Lehenengoa Orion dago aipatuta, Oriaren ibai-ertzean. Ez dago lepitzuliaren jakineko aipamenik, baina udalerrian ibil daiteke. Erroiari dagokionez, Orioko udalerrian Oriaren bokaleko harkaitz batean egindako habiaren aipua dago.

Migrazio-aldian edo negutar gisa etorritako hegaztiak ere badaude. Oriaren estuarioa egoera onean ez dagoen arren, espezie- eta efektibo-kopuru handia hartzen du, eta BGL ES212120010-ren fitxan edo Hezeguneen LAPeen eskura dagoen fitxan kontsulta daiteke zerrenda. Hegaztien Direktibako I. Eranskineko 7 espezie daude (79/409/CEE). Horietako bakarra ager daiteke habiagile gisa. Badira I. Eranskinean jasota dauden eta ohiko presentzia duten beste 15 espezie migratzaile ere.

UGAZTUNAK

Faunaren datu-basearen arabera 25 ugaztun-espezie daude 30T WN 79 saretan. 25 espezie horietatik bi bakarrik ageri dira Arriskuan dauden Espezieen Euskal Zerrendan.

1984ko Atlasean ferra-sagusar mediterraneoaren (*Rhinolophus euryale*) aipu bat dago saretan horretan, Galzoriko espezie gisa kalifikatuta dagoenarena. Baina azken ikerketek (Aiertza, com. pers.) erabat baztertzen dute espezie hori Orioko udalerrian dagoela.

Saretan ageri den beste espeziea muxar grisa (*Glis glis*) da, Kaltebera kategoriarekin. Espezie horren presentzia kontserbazio-egoera onean dauden baso hostoerorkorrei lotuta dago eta, horregatik, nekez egongo da Orioko udalerrian.

Gainerako espezieek ez dute arriskurik Zerrendaren arabera. Batzuk ohituta daude giza presentziarekin.

II.6.8.2. Faunarentzako intereseko eremuak

Orioko udalerrian, Oriaren estuarioa eta horren ingurua dira faunarentzako interes handieneko eremua. Arrain, narrasti, anfibio eta, bereziki, hegaztien presentzia da horren arrazoia. Plangintza honen xedeetarako, Oriako BGL ES212120010-k hartzen duen eremua da udalerriko faunarentzako interes handieneko eremua.

Aintzat hartu beharko lirateke hegoaldeko zuhaitz-igeltxoak (*Hyla meridionalis*) birsartzeko proiektuarekin lotutako lekuak, bai haren ugalketarako putzu artifizialak eta bai bizitza-zikloko beste fase batzuetarako habitatak.


Oraindik ere zutik dirauten hostoerorkorren basoak (hariztiak, haltzadiak, ibarbideen hondoko basoak...) gehitu behar zaizkie aurrekoei. Oro har, ez dute loturarik elkarren artean, azalera txikiak dituzte eta erdipurdiko kontserbazio-maila dute.

II.6.9. **Natura-intereseko eremuak.**

Natura-intereseko eremuen atala aurretiko azterlanetan eta lanetan bildutako informazioan soilik oinarritzen da. Honako lan hauek berrikusi dira:

- EAEko Garrantzizko Espazio Naturalen katalogo irekia (Xavier Lizaur et al, 1996, Eusko Jaurilaritza)
- EAEko Hezeguneen Lurraldearen Arloko Plana. .
- EAEko Itsasertza babestu eta Antolatze Lurraldearen Arloko Plana.

Ondorengo grafikoan daude jasota Orioko udalerrian dauden natura-intereseko eremuak egungo babes-mailaren arabera edo etorkizunerako aurreikusitako babes-mailaren arabera.



II.6.9.1. Oria itsasadarra

Oria ibaiak meandroak eratzen ditu behe-ibilguan eta padura-zatiak sortzen dira hainbat errekarerekin (Motondo, Beroerreka, Donparrasa eta Olabarrieta) bat egiten duen tokian. Padura-enklabeak Oria itsasadarraren bi ertzetan daude, batik bat ezker aldean. Lur deprimituak dira, ia itsas-mailan daudenak eta mareek eragiten dituenak.

Jatorrizko habitat supramarealek estuarioetan izan duten azalera-murrizketa oso aipagarria izan da. Oria itsasadarra hondarreko zingira- eta padura-enklabeengatik (bereziki Santiago, Aiako udalerrian) nabarmentzen dira eta, batez ere, marea-dinamika leheneratzearen bidezko leheneratze ekologikorako, lore- eta fauna-erkidegoen intereserako eta zenbait jarduera tradizionalen mantentzerako potentzialtasunagatik.

2003ko ekainaren 10ean, Eusko Jaurlaritzak Natura 2000 Europako sare ekologikoan sartzeko moduko EAEko lekuen proposamen berria onartu zuen. Akordio horren ondorioz, Oriako Itsasadarra / Ría del Oria (ES2120010) eremua, 184 ha-ko azalerakoa, BGLrako (Batasunaren Garrantzizko Lekua) proposamen gisa sartuko da. Eremua proposamen horretan sartzeak jakineko babes-maila bat eskatzen du.

Gero, 2004ko abenduaren 7ko erabakiaren bitartez, Europako Erkidegoen Batzordeak Atlantikoko eskualde biogeografikoko Batasunaren Garrantzizko Lekuen zerrenda onartu zuen, Oria itsasadarra barne hartuta. Geroago, urriaren 16ko 215/2012 Dekretuaren bitartez, itsasadarra Kontserbazio Bereziko Eremu (KBE) izendatu zuten Atlantikoko eskualde biogeografikoko beste hamahiru ibai eta estuariorekin batera. Dekretu horrek berak finkatzen ditu eremu horiek kontserbatzeko neurriak.

Eremu horrek Oria itsasadarrari elkartutako ibaiko eta zingirako habitatak hartzen ditu, bokaletik hurbilen dagoen sektorean. Guneak azalera txikiagoko intereseko beste enklabe batzuk ere hartzen ditu, esaterako, Oriaren ibilguko ibai-ertzeko haltzadia. Usurbil, Aia eta Orioko udalerrietako guneak hartzen ditu.

Espazio horren % 70, gutxi gorabehera, 2004ko uztailaren behin betiko onartutako EAEko Hezeguneen Lurraldearen Arloko Planean sartutako eremuaren zati bat da. LAPEk bokaletik hurbilago dauden eremuak ere antolatzen ditu, BGLan sartu ez direnak. (I.11 Planoa Hezeguneen LAPEko zehaztapenak)

EAEko Hezeguneen LAPen arabera, Oria itsasadarra "tamaina handi samarreko sistema da, duela gutxi arte padura-eremuen aldaketak izan dituenak, batez ere nekazaritza- eta abeltzaintza-erabilera tradizionalerako. Eremu horietako batzuk marea-dinamikarako berreskuratzeak, landare- nahiz fauna-erkidego batzuen interesak eta zenbait jarduera tradizionalak eusteko sistema horrek balio eta potentzialtasun interesgarriak izatea eragiten du".

Hezeguneen LAPEk antolamenduko hainbat kategoria xedatu ditu, eta kategoria bakoitzari jakineko erabilera-maneru eta -matrize bat dagokio. Orioko udalerrian LAPak antolatutako eremuak daude. Hain zuzen ere, "Oria itsasadarra (A1G4)" kostako hezeguneko eta "Sariakola" ibai-urtegiko eremu batzuk daude. LAPEk antolatutako eremu batzuk BGL izateko proposamenean sartzen dira eta beste batzuk ez.

Hezeguneen LAPEk antolatutako eremuen artean, honako hauek dira BGLak:

- Sariakolako urtegia: ez da LAPak modu xehatuan antolatutako eremua, baina barrualdeko hezeguneen inbentarioan dago. Gisa horretako hezeguneen kontserbazioa bermatzeko xedez, LAPak, gomendio gisa, erlazio bat xedatu du tipologiaren (U-Urtegia) eta dagokion antolamendu-kategoriaren artean (G-Gainazaleko Uren Babesa).

- Saria mendebaldekoa: Sariakolako ibarbidearen hasierako zatia eremu horretakoa da. Saria mendebaldearen gainerako zatiarekin batera Babes Berezikoko (BB-7) kategorian sartu da. Eremua abandonatuta dago eta, horri esker, padurako forma garaiak (lezkadi marjinala) eta belardi/ihidi hezeak ezarri ahal izan dira.
- Erdiko eta Aurreko Tarteetako marea arteko lohiak: Ekosistemak Hobetzeko Eremuen kategorian (MA1) sartu dira. Marea arteko lohi-hondartzak dira, bi ertzetan zerrenda estuak okupatzen dituztenak.
- Motondoko Itxiguneko ibarrak eta padurak: marea arteko padurak, landutako piezen drainatze-kanal batzuetara murriztutakoak, gaur egun azalera txikietan dauden lezkadiak eta ihidiek bereizgarri egiten dituzten marea arteko geruzak garatzen lagundu dezake. Paduraz aparte, betelanak egindako eremuak (harearekin, lurrarekin, obra-hondakinekin edo industria-hondakinekin), landaredi klimazikoa ordezkatzeko duen haltzadia (marea-flujoaren itxierak jarraitzen badu), ustiapen aktiboko belardiak eta barrunbea hegoaldetik eta mendebaldetik inguratzen duen erreka daude. Leheneratzeko aukera gehien dituen Oria itsasadarreko eremu zabalenetakoa eratzen du Motondok. Hezeguneen LAPak Ekosistemak Hobetzeko Eremuen kategorian (MA1) sartu du.
- Anibarko Portuko ibarrak eta padurak: Txanka erreken bokalean kokatutako padurazatia. Haltzadi narriatua eta labore-zerrenda txiki bat hartzen ditu. Leheneratu beharreko Eremu Narriatuen kategorian (MA2) sartu da.
- Marierrrotako ibarra: nekazaritza-ibarra, belardi eta fruta-sailak baino labore estentsibo gehiago dituena. Nekazaritza, Abeltzaintza eta Landazabaleko Eremuaren kategorian (AG) sartu da.

LAPak antolatutako honako eremu hauek BGLren eremutik kanpo geratu dira:

- Torretxoko hondartza: Torretxoko (Oribarzar) hondartzaren iparraldeko muturrean dagoen barrunbe txiki bat da, Ekosistemak Hobetzeko Eremuen kategorian (MA1) sartu dena. Hondartzak azalera handitu du itsasbeheretan, ibilguarekiko zeharkako barra batzuen eraginez. Enklabeak hondartzaurrean dagoen kolonizatutako hareatza txiki bat ere badu.
- Kanpoaldeko Tarteetako marea arteko lohiak: horiek ere Ekosistemak Hobetzeko Eremuen kategorian (MA1) sartu dira. Marea arteko lohi-hondartzak dira, bi ertzetan zerrenda estuak okupatzen dituztenak.
- Erriberako ibarra: Orioko hirigunearen eta itsasadarren artean kokatutako nekazaritza-erabilerrako lurrak, itsas pasealeku txiki bat tartean dela. Drainatze-kanalen sarea kontserbatzen du. Nekazaritza, Abeltzaintza eta Landazabaleko Eremuaren kategorian (AG) sartu da.

Hezeguneen LAPak honako hau dio "Oria itsasadarra, A1G4" kostako hezeguneari buruz: "kontrolatu egin behar dira uren kutsadura, azken urte hauetan hobetzen ari dena, eta hirigintza- eta industria-okupazioko azken ahaleginak, batik bat kontuan hartuta estuario hauskorra dela, bere ezaugarri hidrologikoengatik (estuario estratifikatu positiboa), substantzia kutsatzaileen metaketaren aurrean".

II.6.9.2. Itsaslabarrak

60º baino gehiagoko inklinazioa duten itsaslabarrak paisaia-ikuspegitik edertasun handia duten formazio malkartsuak dira, interes natural eta zientifiko handikoak.

Eremu Horiek Babes Berezi Zorrotzeko (BBZ) kategorian sartu dira, Itsasertza Babestu eta Antolatutako LAPetik ondorioztatzen den bezala. (I.12 Planoa. Itsasertzeko LAPeko Zehaztapenak)

Dokumentu horrek berak Itsaspeko (Orio) hondartza Babes Berezi Zorrotzeko kategorian sartzen du, hondartza naturala delako. LAPren arabera, hondartza naturalak dira paisaia-ikuspegitik balio handia duten enklabeetan kokatutakoak, batik bat izaera naturala edo landakoa dutenak, irisgarritasun-arazoren bat sortzen dutenak eta erabilera moderatua dutenak. Hondartza hori Itsaslabarrak gisa jasotako eremuan dago.

II.6.9.3. Mendizorrotzeko errekek

Mendizorrotzeko ipar-isurialdean kokatutako enklabea da, Donostia eta Orioren arteko mugetan. Goiburuan banandutako bi erreka txiki (Arkumetegi eta Egiluze) eta horien inguruko lurrak hartzen ditu. Errekek 1 eta 1,5 km arteko luzera dute eta lurrak 250 m eta itsas-mailaren arteko kotan daude. Inguruneke paisaia landaredia baxuak (baso-soiltzeak eta suteek eragindako sastrakak eta larreak) eta harkaitzek osatutakoa da, itsasoa atzean dutela.

Arkumetegiko erreka-zuloak landaredia kontserbatu du erreka-ertzean, egoera heldu gabeen eta aldatutakoan bada ere. Egia esan, zuhaitz- eta zuhaixka-ilara bat baino ezer gutxi gehiago, elementu termofilo batzuen presentziarekin, esaterako, *Smilax aspera*, *erramua* (*Laurus nobilis*) eta gurbitz (Arbutus unedo). Klima beroetan berezkoak diren bi pteridofito-espezieren presentzia nabarmendu behar da, Europako kostaldean oso arraroak direnak: *Woodwardia radicans* eta *Stegogramma pozoi*.

Orain arte, EAE barruan, Mendizorrotz erreken enklabea da *Hyla meridionalis* Mediterraneoan eta Afrikaren ipar-mendebaldean zabalduta dagoen anfibioa dagoen bakanetako bat da, Orioko udalerrinari dagokion zatian dagoenik egiaztatu ez den arren. Eremuan hain gutxi egotea da espazioa katalogatzearen arrazoietakoa bat.

LAGek (3. eranskina, 21. kapitulua) Natura Intereseko Eremu gisa proposatutako eremua, atal honetan aurrerago azalduko den "Natura Intereseko Eremuak" grafikoan dago jasota.

II.6.10. Paisaia

Jarraian dago "Paisaia" deituriko grafikoa, udalerriko paisaia-unitateen banaketa behar bezala eguneratuta jasotzen duena, EAEko Paisaia Kartografiaren (1990) eta bere balorazio-azterlanaren arabera (1993).

Bestalde, Zarautz-Azpeitia Eremu Funtzionaleko Paisaia Katalogoa, Eusko Jaurlaritzaren ekimenez 2012an idatzitakoa ere aipatu behar da kontsulta egiteko, Oriaren kostako atal berezi bat jasotzen duena (Paisaia Unitatea 02). Dokumentu horretan, paisai balioa duten Orioko zenbait eremu edo elementu aipatzen dira. Zehazki:

- * Orizabar eta Antilla hondartzen, eta Kukuarri-Mendizorrotzeko kostako labarren balio natural eta estetikoak.
- * Oriako itsasadarraren paisaia, bere balio ekologiko, estetiko eta sozialekin, portua eta arrantza-flota barne.
- * Alde Zaharreko balio estetikoak eta historikoak, San Nikolas elizatik San Martingo ermita ingururaino.
- * Altxerriko haitzuloen balio historikoak.
- * Tourseko San Martingo Ermitaren balio historikoak, kostako Santiago bidearekin lotuta.
- * Kostako paisaiarekin lotuta, marinel eta arrantza ihardueren balio soziala azpimarratzen duten elementuak (portua, kaiak eta estalpea, besteen artean)

Baita ere, dokumentu horretan, balio zerrenda hori paisaiarekin lotutako zenbait proposamenekin lotzen da. Batzuk zentzu orokorrekoak. Besteak, balio bereziko eremu zehatzekin lotutakoak, adibidez Oriako itsasadarra.



II.6.11. Korridore ekologikoak

EAEko Korridore Ekologikoen Sarearen xedea espezie basatien migrazioa, banaketa geografikoa eta trukaketa genetikoa hobetuko duten paisaiako elementuen multzoa kudeatzea da, Kontseiluaren 92/43/CEE Direktibako 10. artikuluan, 1992ko maiatzaren 21ekoan, gomendatzen duen bezala. Korridoreak ezartzea EAEko 2002-2006 Ingurumen Esparru Programan jasotako konpromisoa da, Natura eta Biodibertsitatea babesteko helburuaren barruan.

Gaur egun, konexioko Korridore Ekologikoak mugatzeko proposamena egin da euren habitata (eremua-nukleoa) zatitzearen aurrean sentiberak diren espezie basatiak hartzen dituzten Natura 2000 Sarea osatzeko proposatutako eremuen artean. Espezieak higitzeko iragazkortasun handiagoa duten lerro edo pasabideen inguruan antolatutako egiturazko hainbat elementuk osatzen dute Korridore Sarea. Eremu-nukleoak konektatzen dituzten egiturazko elementuak "loturako korridoreak", "loturako eremuak", "indargetzeko eremuak", "konektatzeko interes bereziko ibai-zatiak" eta "ekologia leheneratzeko eremuak" izan daitezke. Sareko elementu bakoitzak kudeaketa desberdina izango du.

Proposamen horrek ez du sartzen Orioko udalerriko eremurik korridore ekologikoen eskualdeko sarean. Hala ere, badira udalerrian naturaren ikuspegitik balio handia duten eta sare orokorrarekiko osagarria eta kongruentea den udal-sare bat osa dezaketen eremuak. Gainera, kontuan izan behar da Pagoetako Parke Naturalaren hurbiltasuna, Korridore Ekologikoen Sarearen proposameneko eremu-nukleotzat jotzen denarena.

Beraz, honako hauek dira Orioko udalerrian korridore ekologikoen Sarea eratu dezaketen elementu nagusiak:

- Oria itsasadarra, zati bat LIC ES2120010-ean txertatuta duena.
- Sariakolako ibarbidea eta urtegia, LIC ES2120010-ean txertatutakoa.
- Itsaslabarrak, Itsasertzaren LAPak "Babes Berezi Zorrotzeko" kategorian jasotakoak.
- Mendizorrotzeko errekek, LAGetako natura-intereseko eremuen artean txertatutako eremua.
- Hegoaldeko zuhaitz-igela birsartzeko proiektuarekin lotutako lekuak.

Eremu horien loturako elementu gisa, kontuan hartu beharko da honako elementu hauen lotura-funtzioa:

- Drainatze-sarearen gainerakoa, Oria ibaiaren eskuin aldeko errekei (Aranoko, Txanka, Ondalutz) arreta berezia jarritz.
- Landare hostoerorkorren basoak

II.7. Oria itsasadarra.

Itsasadarra, Orioko lurraldearen oinarritzko elementua da. Arrantzako flota babesteko portua eta ontziola-eremua izan zen bere historiaren hasieran. Bere ertzetan sortu eta garatutako hiri-inguruneak lotura handia du itsas- eta ibai-eremu horrekin, azken bolada honetan aisiarekin lotura handiagoa hartzen joan denarekin, arrantza-sektorearen pisua neurri handi batean murriztu duelarik.

Kostako dikea eta morrua eraiki ondoren, arrantza-sektoreak eutsi egiten dio bokaleko portu-plataforman, eta itsasadarraren eskuin aldean egikaritu berria den kirol-dartsenarekin osatzen da.

Aldi berean, azken urte hauetan ibarreko lurretan egindako hiri-garapen berriek Antillako hondartzaraino luzatu dute udalaren eta itsasadarraren arteko kontaktua.

Garapen horien ondorioa da lehen ere aipatu dugun ertzeko pasealekua, morruaren muturretik Ortzaikea eremuraino doana, ia lau kilometro itsasadarrean barrualdera. Horrek adierazten du itsasadarren eta hirigunearen arteko lotura estua.

Pasealekuaren aurrean, ezker aldean, Altxeritik portuko plataformaraino eta kostako dikanera doan bideak sarbidea ematen die ontzitegi-eremuari eta aurrerago Oribarzar hondartzari.

Gai horren inguruan indarrean dauden araudi eta direktibek eskatzen duten babesari esker, aldatu gabe iraun dute alubioi-eremuak (Salmaristi) eta padura-eremuak (Motondo), balio ekologiko handiko eta natura-balio handiko eremuak. Gizakiaren eraginez hirigarapenak hartzen dituen itsasadarren beheko aldea baino gutxiago aldatutako ibai-ertzeko paisaia osatzen dute.



Uholde-arriskuari dagokionez, kontu horren inguruan Eusko Jaurlaritzako Ur Sailak prestatuta (I.9 planoa) eskura dauden azken datu ofizialek interpretazio berezia egiten dute udalerrian garatuta edo garatzeko dauden zenbait eremutarako.

Anibarko Portua edo Dikea eremuetarako aurreikusitako 500 edo 100 urteko uholde-arriskua edo Munto, Azkue eta Erribera eremuetarako 10 urteko uholde-arriskua ez dirudi bat datozenik Zabalguneari eta Alde Zaharren beheko aldeari esleitutako arrisku-gabeziarekin, kontuan hartuta ertzeko pasealekuaren sestra-kota azken horietakoaren berdina edo garaia goa dela. Horregatik, kasu guztietan arriskurik gabeko baldintzak izan beharko liratekeela ulertu beharko litzateke.

Beraz, Eusko Jaurlaritzako Ur Sailarekin egiaztatu beharreko kontua da, eremu horien uholde-arriskuen mailak argitzeko edo, hala badagokio, zuzentzeko xedez.

II.8. Azpiegitura-zerbitzuak.

Ondoren deskribatuko dira, laburbilduta, udalerriko zerbitzu-azpiegituren oinarritzko ezaugarriak, beren egoera ezagutzeko helburuarekin eta, bere kasuan, HAPOn gai horren inguruan hartu beharreko hirigintzako erabakiak ezagutzeko.

Bildutako informazioa modu grafikoan dago jasota I.16, I.17, I.18 eta I.19 planoetan eta ondorengo epigrafeetan deskribatuko dira.

II.8.1.- Uraren Hornidura eta Banaketa Sarea.

Uraren hornidura eta banaketa mankomunitate osorako egiten du Gipuzkoako Uren Partzuergoak. Hornidura Ibai-Eder urtegitik eta urtegiaren segidako edateko uren araztegitik egiten da. Horietatik San Martingo deposituraino eramaten da ura eta handik hirigunea hornitzen da banaketa-sare orokor adarkatuaren bitartez.

Mendizorrotzeko depositua ere sistemaren barruan dago eta, aurrekoarekin bat eginda, landa-inguruneke eraikin sakabanatuak hornitzen ditu.

Egungo egoeran, lehendik dagoen sareak uraren hornidura bermatzen du eta, behin Plan Orokor hau idazteko jarraitu beharreko plangintza-irizpide, -helburu eta -soluzioak berresten direnean, Gipuzkoako Ur Kontsortzioari hori justifikatzen duen txostena egiteko eskatuko zaiola aurreikusten da, derrigorrezkoa den bezala.

I.16 planoak Orioko udalerriko egungo uraren hornidura-sarearen trazatuaren eskema orokorra eta ezaugarri nagusiak jasotzen ditu.

II.8.2.- Saneamendu-sare nagusia.

Saneamendua ere mankomunitate osorako ebatziko da Gipuzkoako Ur Kontsortzioaren bitartez eta Gipuzkoako Saneamendu Planaren testuinguru orokorrean.

Hiriguneko hondakin-urak biltzeko sare orokorrak itsasadarren eskuin aldetik doan kolektore orokorrean isurtzen ditu urak.

Kolektoreak Mutiozabal eremuan zeharkatzen du Oria itsasadarra eta ezker aldetik inguratuz, Txurrukatik igotzen da, Aiako Amezti eremutik igaro eta Zarauzko Iñurritzako hondakin-uren haraztegiaren isurtzen ditu urak. Han urak tratatu ondoren, itsasora isurtzen dira urpeko hustubidearen bitartez.

Barrualdeko hiriko sarearen zatirik handiena bereizia da, eta izaera unitarioa izaten jarraitzen duten sektoreak pixkanaka-pixkanaka aldatzea komeni da.

Nolanahi ere, sistemak aukera ematen du hondakin-urak behar bezala biltzeko, baserri sakabanatuetoakoak izan ezik.

I.17 planoan ikus daiteke udalerri osoko saneamendu-sarearen eskema orokorra.

II.8.3.- Energia elektrikoaren sarea.

Udalerria sare orokorretik dago hornituta, udalerriaren hegoaldeko mugan barrena doan altako aireko trazatu baten bitartez.

Sare horretatik hornitzen dira hiriguneko eta industrialdeetako transformazio-zentroak.

Transformazio-zentroen azpiegitura hori eguneratzen joan da pixkanaka-pixkanaka garapen berriak egikaritzen joan diren heinean. Bere dibertsifikazio handiagoaren aukeraren kalterik gabe, lehendik dagoen sareak ondo erantzuten dio eskariari.

I.18 planoak banaketa-sarearen eskema orokorrak interpretatzen ditu, eta Iberdrola S.A. enpresa hornitzailearekiko hurbilketa horren kontrastea Plan Orokorren dokumentua formulatzeko testuinguruan aurreikusten da, aipaturiko sarea osatzeko aukera eta transformazio-zentro berrien balizko premia baloratuz.

Gaur egun airean doazen jakineko linea batzuk lurperatzeko aukera ere kontuan hartuko da, eta dagokion hirigintza-araudian landuko da arazoaren ebazpena.

Proiektatutako sarea eratzen duten elementuetan erabili beharreko sare eta materialen diseinuak konpainia hornitzailearen zehaztapenak bete beharko ditu.

II.8.4.- Argiteria publikoa.

Udalerriak argiteria-sare publikoa du, hirigune osoa behar den baldintzetan zerbitzatzen duena. Arlo horretan ez da hutsune handirik nabaritu.

II.8.5.- Telefonía-sarea / Telekomunikazioak.

Telefónica eta Euskaltel konpainien sareak daude ezarrita udalerrian.

I.19 planoak gutxi gorabehera jasotzen du udalerrian dauden telekomunikazio-sareen linea eta hodi nagusien eskema.

Plan Orokorra idazteko testuinguruan, informazio hori hobetzeko eta osatzeko ahalegina egingo da konpainia hornitzaileekin lankidetzan. Modu berean esku hartuko da udalerrian antenen ezarpena arautzeko eta, bereziki, telefonía mugikorrek antenen ezarpena arautzeko helburuarekin.

II.8.6.- Gas-sarea.

Hiriguneak gas naturalaren hornidura-sarea du, Aian kokatutako erregulazio- eta neurketa-estazioak zerbitzua ematen diona. Gipuzkoako kostaldeari zerbitzua ematen dion Euskal Herriko sare orokorreko altzairuzko hodizko gasbideak hornitzen du estazioa.

Hiriguneko sare lokala adarkatua da eta kaleen trazatura egokitzen da, I.19 planoan ikusten den bezala. Planoak grafikoki deskribatzen du sarearen trazatuaren eskema.

Udalerriari ematen dion zerbitzua, hasiera batean, egokia da, etorkizunera begira azpiegituran sar daitezkeen hobekuntzen kalterik gabe.

II.8.7.- Hondakinak tratatzeko sistema.

Udalak hondakinen bilketa selektiborako edukiontziak ditu, batzuk kaleetan eta eremu publikoetan kokatutakoak, bai gainazalean edo bai leku jakin batzuetan lurperatuta. Bilketa mankomunitate gisa egiten da.

II.9. Aplikatu beharreko lurralde-antolamenduko xedapenak.

II.9.1. Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduko Artezpideak

1997ko otsailaren 11ko Dekretuaren bitartez onartu ziren behin betiko, eta honako hauek dira aipaturiko Lurralde Antolamenduko Gidalerroetan xedatutako aurreikuspen batzuk:

- * Orioko udalerria Zarautz-Azpeitia (Urola Kosta) eremu funtzionalean dago.
- * Oro har, debekatuta daude familia bakarrek etxebizitzak lurzoru urbanizaezinean, baldin eta nekazaritza-ustiapenei atxikita ez badaude.
- * Honako hauek dira lurzoru urbanizaezina antolatzeke kategoriak: babes berezikoa; ingurumen- hobekuntza; basoak; nekazaritza eta abeltzaintza eta landazabaleko eremua; mendi-larreak; gainazaleko uren babesa; erabilera-bokazio zehatzik gabe. Nolanahi ere, gainazaleko urak babesteko kategoriak soilik du arau-izaera zorrotza.

II.9.2. Zarautz-Azpeitia Eremu Funtzionaleko (Urola Kosta) Lurralde Zatiko Plana

LZP behin betiko onartu zen 2006ko otsailaren 11ko Dekretuaren bitartez eta, beste batzuen artean, honako aurreikuspen hauek ditu:

- * Oria itsasadarraren bokalean hirigunea finkatzea, epe luzera Donostialdea-Behe Bidasoa eremu funtzionalean egiten diren proposamenekin bateratu behar izatearen kalterik gabe”.

- * Urtarokotasunaren problematika eremuaren aniztasunean eta aurreikusitako zuzkidura-, kultura- eta ingurumen-eskaintzan bermatuta gaingituko duen sektore turistiko garatuagoa indartzea.
- * Lurraldearen ingurumen-kalitate handia azpimarratzea, ingurunea kalitate-kontua ez ezik kantitate- eta aniztasun-kontua ere baden eremuan. Kostaldearen natura-interesa, itsaslabar, hondartza eta itsasadarrek protagonista dituen, babestu eta azpimarratu beharreko aktiboa da.
- * Lurzoru urbanizaezinaren antolamendua lehen aipaturiko LAGetan aurreikusitako kategorietara egokitzea, honako hauek bereiziz:
 - Babes Bereziko Eremuak: Mendizorrotzeko erreka (Orioko udalerrikoa den Arkumetegi erreka ezker aldea); Saikolako erreka (Aginaga-Orioko urtegia); Oria itsasadarreko padurako enklabeak; itsaslabarrak eta Itsaspeko hondartza; haltzadi kantaurrearen, artadien eta barnealdeko hezeguneen ibai-ekosistema klimazikoak.
 - Nekazaritza Intereseko Eremuak.
Udalerriko ahalmen agrologiko handieneko lurzorua dira, San Martin, Marierrota-Salmaristi eta Usurramendiko inguruneen elkartutakoak.
 - Interes Hidrologikoko Eremuak
Jabari publiko hidraulikoko eremuak, itsaso eta lehorren arteko jabari publikoak, gainazaleko urak (ibaiak, erreka, urtegiak eta horien babes-eremuak), lur azpiko urak (Orion jabari hidrogeologiko kuartarioa, Oria ibaiaren uholde-lautada eratzen duten deposituekin bat datorrena, eta kostako jabari hidrogeologikoaren zati bat, deskargako eremuekin bat datorrena) dira.
 - Basogintza- eta abeltzaintza-bokazioko eremuak
Orioko udalerriko gehienak dira. LZPan adierazten da, lurzoru babesteko xedez, basogintzara bideratzeko komenigarritasuna, batik bat malda handiko lurzorua edota higadura-arazoak eta ezegonkortasun-arazoak dituztenak.
- * Komunikazio-arloan honako hau planteatzen da:
 - Orioko saihesbidea (N-634) egikartzeko premia, Txankako A-8arekiko lotunetik abiatuta.
 - Aia-Orioko trenbide-pasagunea kentzea, eta orioko geltokia birmoldatzea.
 - Ez-motordunentzako ibilbideen sare bat ezartzea, esaterako, Kukuarri eta Igeldotik mendebaldeko Endata muturreraino eta Debaraino kostaldeko muinoetan barrena joango litzatekeena Orioko hirigunea zeharkatuz.
Modu gehigarrian, Oria itsasadarren eskuin aldeko ertzeko oinezkoentzako pasealekua ezartzea edo hobetzea planteatzen da, Txankatik hondartzaraino.
- * Ekipamenduen arloan: arraunketaren museo bat sortzea; kirol-instalazioak finkatzea; itsasertzean dauden aisiarako hondartzak finkatzea, zuzkidurak aurreikusiz, turismoko kanpalekuak barne; kirol-portua garatzea eta garapen horrekin batera hirugarren sektoreko garapenak ezartzea.
- * Honako hau da Orioko udalerraren 2002-2018 epemugarako bizitegi-eskaintza:
 - Gutxieneko dimentsionamendua: 800 etxebizitza.
 - Gehiengo dimentsionamendua: 1.000 etxebizitza.
- * Udalerrian ez da proposatzen industria-lurren antolamendurik, eta lehendik dauden batzuk kentzea ere planteatzen da, lurralde-ereduan proposatutako ekimen alternatiboaren garrantzia kontuan hartuta.
Alternatiba gisa hirugarren sektoreko jardueren garapena aurreikusten da, batez ere hondartzarekin, kirol-portuarekin, aisiarekin eta turismoarekin zerikusia dutenak.

lido horretan, LZPk, ekonomia-jarduera industrial eta parekoetarako lurzoruen garapen txikiko udalerritzat jotzen du Orio, eta ez du aurreikusten lehendik dauden industrialdeak handitzeko garapenik.

Bestalde, ekonomia-, merkataritza- eta turismo-jardueretarako lurzoruen hirigintza-antolamendu, -kudeaketa eta -sustapenerako lehentasunezko intereseko udalerritzat jotzen da Orio.

- * Orio itsasadarraren eskuin aldea Orioko udalerrikoa da eta ezker aldea Oriok eta Aiak partekatzen dute, eta haren ingurunea plangintza koordinatu eta bateragarri egiteko eremu gisa identifikatu da. Bateragarri egite hori "zehazten diren jarduketan norainokotasunaren arabera soilik izango da beharrezkoa".

II.9.3. EAEko ibaien eta erreken ertzak antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana.

LAP 1998ko abenduaren 22ko Dekretuaren bitartez onartu zen behin betiko, eta 2013ko azaroaren 19ko Dekretuaren bitartez aldatu zen gero. LAPak aitortzen du ondoren azalduko diren ondo kontserbatutako ibai-ertzeko hiru landaredia-zati daudela Orion.

Lehenengoa Oria itsasadarraren ezker aldean dago, Motondoko paduran, 1.100 m inguruko luzeran. Bigarren zatia Txanka errearen eskuin aldean dago, A-8 autopistaren hegoaldean 200 bat metroko luzeran. Eta hirugarren eta azken zatia Saikola errearen ertzak dira, eskuinekoa soilik den arren Oriokoa. Aginagako urtegitik 200 bat metro beherago, bi ibai-ertzak lehentasunezko natura-interesekoak dira. Hiru zatiak landa-eremuko ibai-ertz gisa jasota daude hirigintza-osagaiarekiko.

II.9.4.- EAEko Errepideen Plan Orokorra

EAEko Errepideen Plan Orokorra 250/1999 Dekretuaren bitartez onartu zen. Planean proposatutako jarduketak 1999-2010 aldian zehar garatzea eta egikaritzea aurreikusten da. Honako hauek dira Orioko udalerrian aurreikusitako jarduketak:

- * Jarduketa nagusiak:
 - Orio eta Aritzeta arteko hirugarren erreia. Egikaritzapena 2004/2006rako aurreikusita. 2. mailako lehentasuna.
 - Orioko erdilotunea (A-8). Egikaritzapena 2001 eta 2003 arterako aurreikusita. 1. mailako lehentasuna.
- * Egokitzapen-obrak:
 - Lasarte eta Zarautz arteko (N-634) egokitzapena eta bide motelak. Egikaritzapena 2002 eta 2004rako aurreikusita. 2. mailako lehentasuna.
- * Hiri-saihesbideak:
- * Orioko saihesbidea (N-634). Egikaritzapena 2001 eta 2004 arterako aurreikusita. 1. mailako lehentasuna.

II.9.5.- Hezeguneen Lurraldearen Arloko Plana.

LAP hori 2004ko uztailaren 27ko Dekretuaren (160/2004 Dekretua) bitartez onartu zen behin betiko, eta Orioko udalerrian honako bi eremu hauek daudela azpimarratzen du: "Oria itsasadarra (A1G4)" kostako hezegunea; "Sariakola (EG11)" ibai-urtegia.

Modu osagarrian eta, izaera orokorrarekin, antolamenduko honako kategoria hauek bereizten ditu Orion:

- * Babes Berezia (BB)

- * Ingurumen Hobekuntza: Ekosistemen hobekuntza (MA1).
- * Ingurumen Hobekuntza: Leheneratu beharreko eremu narriatuak (MA2)
- * Nekazaritza eta abeltzaintza eta landazabala (AG)
- * Eremu urbanizatuak

Eta kategoria horietako bakoitzerako dagokion antolamendu-erregimena finkatzen du, baita erabilera sustatuei edo debekatuei dagokienez ere, erregimen hori aplikatzeko hainbat irizpide orokorrekin osatuta.

Testuinguru horretan, Orioko aipaturiko bi eremu horiek lurzoru urbanizaezin gisa sailkatutako inguruneetan eta lurretan daude. "Orioko itsasadarra" kostako hezegunea hezeguneen II. taldean sartzen da. Maltzo horretan LAPen araudia aplikazio zuzeneko eta izaera loteslekoa da udaleko hirigintza-plangintzarako.

Halaber, Sariakola urtegia hezeguneen III. taldean sartzen da. Eta talde horretako hezeguneen erregulazio eta tratamendurako erregimenarekin bat etorriz, udal-plangintzak erabaki behar du zer hezegunek dituzten ingurumen-, natura- edota paisaia-balioak eta zein izan behar duen horien babes-erregimena, baita LAPea definitutako antolamendu-kategorietan behin betiko txertatzeari dagokienez ere.

II.9.6.- Ekonomia-jardueretarako lurzoru publikoa eta ekipamendu komertzialak sortzeko Lurraldearen Arloko Plana.

LAP 2004ko abenduaren 21eko Dekretuaren bitartez onartu zen behin betiko eta adierazten du Urola Kosta eremu funtzionaleko ekonomia-jarduera industrian oinarritzen den arren, kostako udalerrietan garrantzia duela arrantza-jarduerak (Getarian, Orion eta, neurri txikiagoan, Zumaian) eta turismo-sektoreak (Zarautzen, Getarian, Orion, Zumaian eta Zestoako bainuetxe-jarduera). Kirol-portuak (Zumaia, Getaria eta Orio) hirugarren sektorea indartzeko pizgarriak dira.

Halaber, "ekonomia-jardueretarako lurzoruaren problematikaren xedeetarako, esan beharra dago funtzionalki Orioko udalerrinari esleitu dakizkiokeen industria gehienak administratiboki Aiako udalerrikoak diren lurretan daudela".

LAPen arabera, eremu funtzionalean ekonomia-jardueretarako kalifikazioa duten 463 ha daude eremu funtzionalean. Hektarea horietatik guztietatik, 318 okupatuta daude eta 145 okupatu gabe.

Eta, beste batzuen artean, ekonomia-jardueretarako lurzoruak antolatzeko honako irizpide hauek ezarri ditu:

- * Ekonomia-jardueretarako hiri-garapen berriei lurzoru okupatzeko prozesuen aurretik lurraldearen ingurumen-erabileraren arabera harrera-ahalmenaren analisi haztatua eta ingurune naturalaren gaineko eta industrialde berrien paisaia-integrazioaren mailaren gaineko inpaktuaren ebaluazioa egin behar dira.
- * Hiriguneen barruan kokatutako industria-erabilerako lurzoru bizitegi-erabileretarako birkalifikazio-prozesu berriak mugatu egin behar dira eta, kasu horietan ekonomia-jardueraren erabilera globalari eusten dioten birmoldaketa-prozesuetarantzko joera hartzea gomendatzen da.
- * Kanpoaldeko poligono berriak, ahal izanez gero, kanpoko azalerak eta hiri-ehunarekin bateragarriak ez diren jarduerak dituzten industrialdeak eta banaketa- eta garraio-jarduerak hartzeko erreserbatzea proposatzen da.
- * Ekonomia- eta ekoizpen-jardueretatik babestu beharreko eremuak finkatzeko komenigarritasuna, landa-ingurunean hirigintza-garapen intentsiboko unean uneko eragiketak ugaltzea saihestuz.
- * Alde batetik, ekonomia-jardueren garapenaren eskakizun berrien eta, bestetik, "ekonomia-jarduerak ezartzeko lurzoru urbanizagarriko plataforma horizontal berriak sortzeko, neurri

handiagoan edo txikiagoan eta, batez ere kantauriko erlaitzean, ezinbestean kaltetzen diren ibai-ibilguak” babesteko neurrien artean dagoen marruskaduraren aitorpena.

Modu osagarrian, Orio hazkunde moderatuko udalerri gisa identifikatu ondoren, lehendik dauden eremuak eta ezarpenak finkatzeko oinarritzko politika proposatzen du, egungo urbanizazioak bukatu eta hobetzeko lehentasunezko ekintzekin. Ez dira aurreikusten hazkundeko edo ezarpen berriko eragiketa publiko garrantzitsuak, eskualdeko intereseko poligono txikien sustapenaren bitartez lurzoruak sustatzeko estrategien ondoriozkoak izan ezik. Hain zuzen ere, xedapen orokor gisa proposatzen du “udalerri horietako hirigintza-plangintzan bete gabeko ekonomia-jardueretarako lurzoruen azalera, gehienez, 10 ha-koa izatea, baldin eta behar adinako harrera-ahalmena badago ingurune naturalaren gainean inpaktu esanguratsurik eragin gabe. (...)

II.9.7.- EAEko Itsasertza babestu eta Antolatze Lurraldearen Arloko Plana.

LAP hori 2007ko martxoaren 13ko Dekretuaren bitartez onartu zen behin betiko eta bere helburua itsaso eta lehorren arteko jabari publikoa babestea da. Xede horrekin, antolamenduko hainbat kategoriatan eta azpikategoriatan bereizi eta arautzen ditu, neurri handi batean LAGekoekin bat datozenak.

Horietatik, une honetan, honako hauek merezi dute arreta berezia:

- * Babes Berezia (BB):
Natura-, paisaia- eta zientzia-balio garrantzitsuak, hauskortasun handia eta abar dituzten lurraldeko eremuetan eragiten du. Itsaslabarren, dunen, itsasadar eta estuarioen, hondartza naturalen eta ondo kontserbatutako landaredia-eremuen kasua da. Zerrenda hori LAGetako (3. Eranskina, 21. Kapitulua) “Natura Intereseko Eremu eta Espazioen Zerrenda Irekian” jasotakoekin osatzen dela, esaterako, “Mendizorrotzeko errekek” eta “Oria Itsasadarreko padurako enklabeak”, zati bat Orioko udalerrian dutenak biak. Horren barruan antolamenduko honako bi azpikategoria hauek bereizten dira: Babes Berezi Zorrotzekoa (BBZ) eta Babes Berezi Bateria-eremuko (BBB).
- * Erabilera Berezi Eremuak (EB):
Ingurumen-balio garrantzitsuak izan arren, beren antolamendua zehatz-mehatz zehazten duten ondo finkatutako aisia intentsiboko erabilerei eusten dieten eremuak dira. Hori da hiri-inguruko hondartza eta parkeen kasua. Horren barruan honako bi azpikategoria hauek bereizten dira: hiri-hondartzak (UE1); hiri-inguruko parke eta lorategiak (UE2).

II.9.8.- Gipuzkoako Hiri Hondakinen azpiegituren Lurraldearen Arloko Plana.

LAP hau 2009ko uztailaren 21eko Foru Arauaren bitartez onartu zen behin betiko, eta Gipuzkoa osoan hiri-hondakinen azpiegiturak antolatze aurreikuspenak zehazten ditu.

Aurreikuspen horiek ez dute Orion azpiegitura-mota hori ezartzeko afektazio material edo espezifikorik. Aplikatu beharrekoak dira, ordea, aipaturiko hondakinen tratamendurako LAPean planteatutako neurri orokorrak.

II.9.9.- Gipuzkoako bizikleta-bideen Lurraldearen Arloko Plana.

LAP hau 2013ko uztailaren 10eko Foru Arauaren bitartez onartu zen behin betiko, eta Gipuzkoako oinarritzko bidegorri-sarea zehazten du, aipaturiko lurraldeko izaera horretako sare orokor gisa.

Sare horrek dokumentu honetako planoetan jasotako baldintzetan zeharkatzen du Orio, eta udalerrri mugakideekin lotzen du.

II.10. Indarreko hirigintza-plangintza.

II.10.1.- Sarrera.

Orion indarrean dagoen Hiri Antolamenduko Plan Orokorra Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2012ko maiatzaren 8ko erabakiaren bitartez onartu zen (aurrerantzean, 2012ko Plan Orokorra). Gero, Plan horren Testu Bategina onartu zen erakunde beraren 2012ko urriaren 4ko ebazpenaren bitartez. Honako aurrekari hauek eratutako esparruan egin eta onartu zen Plana:

- * Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2006ko abenduaren 26ko ebazpenaren bitartez, behin betiko onartu ziren Orioko Plangintzako Arau Subsidiarioak. Gero, 2007ko abenduaren 27ko foru-ebazpenaren bitartez, Arau horien Testu Bategina onartu zen.
- * Aurrerago, 2010eko azaroaren 23ko foru-ebazpenaren bitartez, behin betiko onartu zen "Ekonomia eta Finantza bideragarritasuneko eta Orioko Plangintzako Arau Subsidiarioen Programazioko azterlana".
- * Lurzoru eta Hirigintza Legea, 2006ko ekainaren 30ekoa, indarrean sartu aurretik indarrean zegoen lege- eta hirigintza-esparruan sustatu ziren Arau Subsidiario horiek.
- * Aurrerago, Orioko udalak lehen aipaturiko Plangintzako Arau Subsidiarioak Lege horretara egokitzeko lanak egin zituen (Bigarren Xedapen Gehigarrian xedatutakoaren arabera).

Indarrean dagoen 2012ko Plan Orokorra egokitzapen horren emaitza da. Beraz, Plan horren edukia ez da aipaturiko Arau Subsidiarioen berrikuspen-prozesu baten emaitza.

Horrekin bat etorritik, Orion indarrean dagoen hirigintza-antolamendua aipaturiko Arau Subsidiarioetan xedatutakoa dela ondorioztatu behar da, aipaturiko egokitzapenen eraginpeko aurreikuspenei dagokien kontuetan izan ezik, honako hauetan hain zuzen ere: egiturazko antolamenduaren eta antolamendu xehatuaren berezko zehaztapenen desberdintzea; gehieneko eta gutxieneko eraikigarritasunei eta etxebizitza babestuen estandarrari dagokienez xedatutako eskakizunak betetzea; udalerriko lurak dagozkien lurzoru-mota eta -kategoriei esleitzea, etab.

Modu osagarrian esan daiteke, 2008ko urriaren 15eko epaiaren bitartez, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiak baliogabetzat jo zuela 2006ko abenduko foru erabakia (Arau Subsidiarioetan behin betiko onartutakoa). Aurrerago, 2011ko azaroaren 4ko epaiaren bitartez, Auzitegi Nagusiak adierazi zuen epai haren aurka jarritako kasazio-errekurtsioa ez zela bidezkoa.

II.10.2.- Indarreko hirigintza-plangintza orokorra.

Adierazitakoaren arabera, 2012ko Plan Orokorra xedatzen du Orion indarrean dagoen egiturazko hirigintza-erregimena (eta, batzuetan, baita xehatua ere). Erregimen hori, bestek beste, honako helburu, irizpide eta proposamen hauen ondoriozkoa da:

- * Hiri-antolamendua ondoriozko egoerara edota portuarekin, A-8 autopistarekiko loturarekin eta Orioko saihesbidearekin zerikusia duten udalaz gaindiko proiektuak egikaritzearen ondoriozko egoerara egokitzea.

- * Landa-lurraren produkzio-, paisaia- eta ekologia-balioak babestea, haren izaerari ez dagokion erabilerak eta eraikuntzak ezartzea saihesteko.
- * Udalerriko eremuak lotuko dituen bidegorri-sarea sortzea, aldi berean izaera horretako eskualdeko sarean txertatuta egongo dena.
- * Honako jarduketa hauen eta antzeko beste batzuen bitartez hiri-ehun finkatuaren berroneratze fisikoa eta funtzionala: Cerámica Arocena enpresaren eta zabalgunean kokatutako industria-instalazioen erabilera aldatzea; Alde Zaharra Birgaitzeko Plan Berezia sustatzea; Dike eremuaren hirigintza-araubidearen berrikuspena; Gudari kalearen eta Iturbide kalearen artean kokatutako uharte-patioak berroneratzea, etab.
- * Tipologiari dagokionez askotarikoa den bizitegi-eskaintzaren aurreikuspena, 843 etxebizitza berrik osatutakoa.
Dena dela, azaldutakoari erreparatuta, kontuan izan behar da etxebizitza-kopuru hori bat zetorrela 2006ko Arau Subsidiarioetan aurreikusitakoekin eta 2012ko Plan Orokorra onartutako unean, asko egikarituta zeudela.
Etxebizitza horiek une hartan zeudenei (1987) gehituta eta antolamenduz-kanpokotzat deklaraturak (77) kenduta, 2.753an uzten zuen udalerriko etxebizitza-kopurua.
Halaber, etxebizitza berri horietatik 139 etxebizitza babestuak dira (erregimen orokorreko BOE eta etxebizitza tasatuak).
- * Industria-erabileretarako 70.358 m²-ko azalera bideratzea, aurretik xede horretara bideratutako eremuak finkatzearen (33.614 m²) eta batik bat Aizperro eremuan beste berri batzuk aurreikustearen (36.744 m²) ondorioz.
Testuinguru horretan, Mutiozabal eremuaren hirigintza-araubidea 1988-1990eko Plangintzako Arau Subsidiarioetan xedatutako baldintzetan finkatuko da.
Gainera, hirugarren sektoreko erabileretara bideratuko da 9.567 m²-ko azalera, 3.085 m² inguruko oinplano-garapenarekin.
- * Ekipamenduen eta espazio libreen arloko premia eta eskakizunei eman beharreko erantzuna.
Xede horrekin, ekipamendu eta espazio libreen zerrenda bat sortzea aurreikusten da itsasadarraren ertzean, Polikiroldegiaren jarraipen gisa itsasadarraren eskuin aldean egingo den kirol-eremu handi bat barne.
Hiri-espazio libre orokorretara bideratutako (ZO) azalera 47.448 m²-koa da
Azalera hori landa-parketara bideratutako beste 69.325 m²-rekin osatzen da (Lizarbe; Oribarzar eta Antilla hondartzak).
Halaber, ekipamenduei buruzko proposamenen artean honako hauek nabarmendu behar dira: lehendik dauden eskola-ekipamenduak (Erribera, Hondartza...) finkatu egingo dira, eta Munton berri bat egitea aurreikusten da (dagoeneko egikaritutakoa); kirol-ekipamendu berriak aurreikusten dira Munton, zenbait kasutan udalerriko beste leku batzuetan daudenak lekualdatzearen ondoriozkoak (Hondartza...) eta, aldi berean, frontoia eremu horretara lekualdatuko da; lehendik dauden instalazio sanitarioak finkatu egingo dira, eta handitzea aurreikusten da; lehendik dauden ekipamendu administratiboak eta sozio-kulturalak finkatu egingo dira, eta azken horiek handitzea aurreikusten da planteatutako garapen berrietan.
- * Portuko instalazioak birmoldatu egingo dira, alde batetik, arrantza-portua itsasadarraren ezker aldera lekualdatuta eta, bestetik, kirol-portua itsasadarraren eskuin aldean egikarituta, hain zuzen ere "12. Kaia Gunea" eremuan.

Jarduketa horietako asko egikarituta edo egikaritzapen-prozesuan daude, eta itsasadarraren ertzen konfigurazioa aldatu dute.

II.10.3.- Indarrean dagoen garapeneko hirigintza-plangintza.

2012ko Plan Orokorra onartu eta indarrean sartu aurretik onartuta zeuden 2006ko Arau Subsidiarioetan aurreikusitako hainbat plan. Hori gertatzen zen, esaterako, kasu hauetan: Alde Zaharra Birgaitzeko Plan Berezia (behin betiko onarpena: 2007ko otsailak 22); Muntoko Plan Partziala (2008ko martxoaren 4ean behin betiko onartu bazen ere, justizia-auzitegien agindua betez, geroztik berriro izapidetu zen, eta 2013ko otsailaren 5ean berriro onartu zen); Dike eremuko Hiri Antolamenduko Plan Berezia (2008ko irailaren 18an behin betiko onartutakoa); Aizperro eremuko Plan Partziala (2009ko urriaren 27an behin betiko onartutakoa).

Halaber, Botaleku eremuaren Hiri Antolamenduko Plan Berezia behin betiko onartuta geratu zen 2013ko urriaren 31ko ebazpenaren bitartez.

II.10.4.- Indarreko hirigintza-antolamenduaren egikaritzapena.

A.- Hirigintza kudeaketako proiektuak.

2012ko Plan Orokorra onartu eta indarrean sartu aurretik onartu ziren hirigintza-kudeaketako hainbat proiektu. Hori gertatu zen, besteak beste, honako hauekin:

- * Alde Zaharreko 3.eremuaren Hirigintzako Jarduketa Programa (behin betiko onarpena: 2010eko uztailak 27).
- * Alde Zaharreko "3.1" egikaritzaz-unitatearen Birpartzelazio Proiektua (behin betiko onarpena: 2011ko apirilak 27).
- * Alde Zaharreko "3.2" egikaritzaz-unitatearen Birpartzelazio Proiektua (behin betiko onarpena: 2010eko urriak 6).
- * Aita Lertxundi eremuan kokatutako "4.1" azpieremuaren Hirigintzako Jarduketa Programa eta Birpartzelazio Proiektua (2008ko abenduaren 22an eta 2009ko ekainaren 15ean behin betiko onartutakoak).
- * Aita Lertxundi eremuan kokatutako "4.2" azpieremuaren Birpartzelazio Proiektua (2009ko abenduaren 1ean behin betiko onartutakoa).
- * Munto eremuaren Hirigintzako Jarduketa Programa, Urbanizazio Proiektua eta Birpartzelazio Proiektua, 2008ko ekainaren 24ko, 2008ko azaroaren 14ko eta 2008ko azaroaren 21eko ebazpenen bitartez behin betiko onartutakoak.
- * Dike eremuaren Hirigintzako Jarduketa Programa, 2009ko martxoaren 17an behin betiko onartutakoa.
- * Aizperro eremuaren Hirigintzako Jarduketa Programa, 2010eko urriaren 4ean behin betiko onartutakoa.

B.- Herri-lanak.

Proiektatutako herri-lanetatik honako hauek egikaritu dira osorik edo zatirik handienera:

- * Orio eta A-8ren arteko erdilotunea (egikarituta eta martxan).
- * Euskotrenen trenbidea birmoldatzeko lanak, geltokia barne. Nolanahi ere, bere kokapena kontuan hartuta, Orioko udalerrian izan duen eragin materiala mugatua izan da.
- * Kirol-portua eraikitze eta gaitzeko lanak.
- * Muntoko eskola- eta kirol-instalazioak.

Egikaritu gabe dago, beste batzuen artean, N-634 errepideko hiri-saihesbide berria. Oria itsasadarren gainean zubi berri bat egitea eskatzen du, Anibarko Portutik Motondoraino.

Frontoia egungo kokapenetik Hondartza eremura lekualdatzea ere ez da oraindik gauzatu.

C.- Udal-lizentziak.

Indarreko plangintzan aurreikusitako eta egikaritutako eraikuntza-garapen asko, 2012ko Plan Orokorra onartu aurretik egikaritu ziren. Hori gertatu zen Munto eta Hondartza eremuetan aurreikusitako gehienetan.

Halaber, honako hauek dira 2012ko Plan Orokorra onartu eta indarrean sartu ondorengo lizentziak:

- * Munto eremuko B4-A partzelan proiektatutako bizitegi-eraikin berria eraikitzeko lizentzia, 2013ko martxoaren 7ko udal-ebazpenaren bitartez emandakoa; eraikin hori ez dago eraikita.
- * 2011ko urriaren 20ko udal-ebazpenaren bitartez, udalak erabaki zuen aurri deklaratzeari Orioko Arrantzaleen Kofradiaren eraikina, Kaia kaleko 1ean kokatutakoa.
- * 2013ko apirilaren 30eko udal-ebazpenaren bitartez, udalak erabaki zuen aurri deklaratzeari Orioko Arrantzaleen Kofradiaren eraikina, Almirante Oa kaleko 2an kokatutakoa.

D.- Aurrikusitako eta egikaritu gabeko hirigintza- eta eraikuntza- garapenak.

Adierazitakoarekin bat etorritik, arreta berezia merezi dute Dike (bizitegitarakoa) eta Aizperro (industrial) eremuetan aurreikusitako garapenek. Horiei gehitu behar zaizkie Munton eta Hondartzan egikaritu gabe dauden partzelak.

Gainera, Alde Zaharreko, Zabalgune eta beste hainbat eremutako jakineko leku batzuetan aurreikusitako eraberritze- eta birgaitze-jarduketak gehitu behar zaizkie garapen berri horiei.

Arlo horretan, beren berezitasuna eta konplexutasuna kontuan hartuta, arreta berezia merezi dute Mutiozabal eta Cerámica Arocen aurreikusitako birgaitze- eta berrerabilera-jarduketek.

II.10.5. Kultura-ondarea.

Indarreko hirigintza-plangintzan xedatutakoaren arabera, honako hau da udalerriko elementu katalogatuen eta ondare-baliokoen zerrenda:

A.- Eraikin eta elementu eraikien zerrenda.

1	ALDE ZAHARRA (MULTZO MONUMENTALA)
---	-----------------------------------

Alde Zaharraren mugen barruan

2	SAN NIKOLAS PARROKIA	BABES ERTAINEKO ERAIKINA
3	KALE NAGUSIA, 8	BABES ERTAINEKO ERAIKINA
4	KALE NAGUSIA, 17	BABES ERTAINEKO ERAIKINA
5	KALE NAGUSIA, 21	BABES ERTAINEKO ERAIKINA
6	KALE NAGUSIA, 22	BABES ERTAINEKO ERAIKINA
7	ANTXIOLA KALEA, 1 ETA 3	BABES ERTAINEKO ERAIKINA
8	SAN NIKOLAS KALEA, 11 ETA 13	BABES ERTAINEKO ERAIKINA
9	EUSKO GUDARIEN KALEA, 4	BABES ERTAINEKO ERAIKINA
10	KALE NAGUSIA, 1	OINARRIZKO BABESEKO ERAIKINA
11	KALE NAGUSIA, 3	OINARRIZKO BABESEKO ERAIKINA
12	KALE NAGUSIA, 4	OINARRIZKO BABESEKO ERAIKINA
13	KALE NAGUSIA, 6	OINARRIZKO BABESEKO ERAIKINA
14	KALE NAGUSIA, 7	OINARRIZKO BABESEKO ERAIKINA
15	KALE NAGUSIA, 10	OINARRIZKO BABESEKO ERAIKINA
16	KALE NAGUSIA, 9-11	OINARRIZKO BABESEKO ERAIKINA
17	KALE NAGUSIA, 12	OINARRIZKO BABESEKO ERAIKINA

18	KALE NAGUSIA, 14	OINARRIZKO BABESEKO ERAIKINA
19	KALE NAGUSIA, 15	OINARRIZKO BABESEKO ERAIKINA
20	KALE NAGUSIA, 16	OINARRIZKO BABESEKO ERAIKINA
21	KALE NAGUSIA, 18	OINARRIZKO BABESEKO ERAIKINA
22	KALE NAGUSIA, 20	OINARRIZKO BABESEKO ERAIKINA
23	KALE NAGUSIA, 25	OINARRIZKO BABESEKO ERAIKINA
24	KALE NAGUSIA, 27	OINARRIZKO BABESEKO ERAIKINA
25	KALE NAGUSIA, 29	OINARRIZKO BABESEKO ERAIKINA
26	KALE NAGUSIA, 31	OINARRIZKO BABESEKO ERAIKINA
27	KALE NAGUSIA, 33	OINARRIZKO BABESEKO ERAIKINA
28	KALE NAGUSIA, 35	OINARRIZKO BABESEKO ERAIKINA
29	KALE NAGUSIA, 37	OINARRIZKO BABESEKO ERAIKINA
30	EUSKO GUDARIEN KALEA, 2	OINARRIZKO BABESEKO ERAIKINA
31	EUSKO GUDARIEN KALEA, 10	OINARRIZKO BABESEKO ERAIKINA
32	URDAIRE KALEA, 1 ETA 3	OINARRIZKO BABESEKO ERAIKINA
33	URDAIRE KALEA, 5	OINARRIZKO BABESEKO ERAIKINA
34	URDAIRE KALEA, 7	OINARRIZKO BABESEKO ERAIKINA
35	ALMIRANTE OA KALEA, 1	OINARRIZKO BABESEKO ERAIKINA
36	ALMIRANTE OA KALEA, 2	OINARRIZKO BABESEKO ERAIKINA
37	ALMIRANTE OA KALEA, 4	OINARRIZKO BABESEKO ERAIKINA
38	ALMIRANTE OA KALEA, 5	OINARRIZKO BABESEKO ERAIKINA
39	ALMIRANTE OA KALEA, 7	OINARRIZKO BABESEKO ERAIKINA
40	ALMIRANTE OA KALEA, 10	OINARRIZKO BABESEKO ERAIKINA
41	ALMIRANTE OA KALEA, 12	OINARRIZKO BABESEKO ERAIKINA
42	ALMIRANTE OA KALEA, 14	OINARRIZKO BABESEKO ERAIKINA
43	ALMIRANTE OA KALEA, 16	OINARRIZKO BABESEKO ERAIKINA
44	ALMIRANTE OA KALEA, 18	OINARRIZKO BABESEKO ERAIKINA
45	ARITZAGA KALEA, 1	OINARRIZKO BABESEKO ERAIKINA
46	ARITZAGA KALEA, 15	OINARRIZKO BABESEKO ERAIKINA
47	ARITZAGA KALEA, 17	OINARRIZKO BABESEKO ERAIKINA
48	ANTXIOLA KALEA, 2	OINARRIZKO BABESEKO ERAIKINA
49	SAN NIKOLAS KALEA, 3	OINARRIZKO BABESEKO ERAIKINA
50	SAN NIKOLAS KALEA, 7	OINARRIZKO BABESEKO ERAIKINA
51	SAN NIKOLAS KALEA, 15	OINARRIZKO BABESEKO ERAIKINA
52	SAN NIKOLAS KALEA, 17	OINARRIZKO BABESEKO ERAIKINA
53	SAN NIKOLAS KALEA, 19	OINARRIZKO BABESEKO ERAIKINA
54	HERRIKO ENPARANTZA, 3	OINARRIZKO BABESEKO ERAIKINA
55	HERRIKO ENPARANTZA, 5	OINARRIZKO BABESEKO ERAIKINA
56	ENDAIA KALEA, 3	OINARRIZKO BABESEKO ERAIKINA

Alde Zaharraren mugetatik kanpo

57	SAN MARTIN ERMITA (DONE JAKUE BIDEA)
58	ANTILLAKO SAN JOAN BATAIATZAILEAREN ERMITA
59	ERREZABAL BASERRIA
60	MARTÍN PORTU ETXEA
61	ORIOKO ZERAMIKA BERRIAREN MULTZO MONUMENTALA (DONE JAKUE BIDEA)
62	SAN MARTINGO ERMITARAKO IGOERAKO PIKOTAK ETA GURUTZEAK
63	TONTORTXIKIKO I, II, III ETA IV TUMULUAK
64	AIRE ZABALEKO AZTARNATEGIAK
65	AGANDURUKO GALTZADA (DONE JAKUE BIDEA)
66	TXERRITXUTU – MUNIOTA BIDEA (DONE JAKUE BIDEA).

Alde Zaharraren mugen barruan eta mugetatik kanpo

67	DONE JAKUE BIDEA
----	------------------

Done Jakue bideari lotuta daude:

* San Martingo ermita (edo, Tourseko San Martingo Ermita) (57).

- * Orioko Zeramika Berriaren Multzo Monumentala (61)
 - * Aganduruko galtzada (65).
 - * Txerritxutu – Maniota bidea (66).
- B.- Eremu arkeologikoen zerrenda.
- * Alde Zaharra. Kultura-ondasun inbentariatua. Kultura Ondarearen 7/1990 Legeko 45.5 artikulua ematen dion babes.
 - * Igeldoko estazio megalitiko. Kultura-ondasun kalifikatua. Babes eta Erabileren Araubidea, 137/2003 Dekretuan xedatutakoaren arabera.
- C.- Presuntzio arkeologikoko eremuak.
- 1.- Antillako San Joan Bataiatzailearen ermita (A)
 - 2.- Ardite Enea etxea (A)
 - 3.- Eusko Gudarien kaleko 2 zenbakiko etxea (A)
 - 4.- Salatxo etxea (A)
 - 5.- San Nikolas kaleko 19 zk. etxea (A)
 - 6.- San Nikolas kaleko 17 zk. etxea (A)
 - 7.- Aritzaga kaleko 1 zk. etxea (A)
 - 13.-Kale Nagusiko 53 zk. etxea (A)
 - 14.-Martín Portu etxea (A)
 - 16.-Etxeberri baserria (A)
 - 17.-Agerra Katxiña baserria (A)
 - 18.-San Martín de Tours tenplua eta Ostatua/Ospitalea (E)
 - 19.-Aldape baserria (A)
 - 21.-Kallaberro baserria (A)
 - 22.-Aganduru baserria (E)
 - 24.-Txanka Goikoa errota (aurriak) (D)
 - 25.-Errezabal baserria (A)
 - 26.-Aizperro baserria (A)
 - 27.-Sarria burdinola (aurriak) (D)
 - 28.-Mare Errota (D)
 - 29.-Esaiz baserria (A)
 - 30.-Usarbe Aundi baserria (A)
- D.- Natura-intereseko ondasunak eta elementuak.
- 1 Tontortxikiko I, II, III eta IV tumuluak.
 - 2 Arkumetegiko Haitzeko aire zabaleko aztarnategia
- E.- Kontsiderazio osagarriak.
- 2013ko martxoaren 26ko Dekretuaren bitartez (186/2013 Dekretua), Almirante Oa kaleko 2an kokatutako eraikina uztailaren 28ko 338/1994 Dekretuak eragindako kultura-ondasun izaeratik desafektatzea erabaki zuen Eusko Jurlaritzak. Dekretu haren bitartez Kultura Ondasun gisa sailkatuta zegoen Orioko Alde Zaharra Multzo Monumental kategoriarekin, eta bere babes-maila finkatzen zuen.
- Halaber, lehen adierazitakoaren arabera, 2013ko apirilaren 30eko udal-ebazpenaren bitartez, eraikin hori aurri deklaratzeko erabaki zuen udalak.

II.11. Oria itsasadarren ertzen antolamendua eta bere baldintzatzaileak.

Adierazitakoaren arabera, Oria itsasadarra Orioko udalerriko guneko eta osagai berezi eta erakargarrietako bat da Oria itsasadarra. Bere eragin positiboa zeharkatzen dituen ingurune naturalean eta hiritarrean zehar hedatzen da.

Bere izaerari eta ezaugarriei erreparatuta, itsaso eta lehorren arteko jabari publikoan txertatutako eremua da, eta gaiaren inguruan indarrean dauden lege-xedapenetan xedatutako hura babesteko irizpideei atxikita dago (Kosta Legea, 1988ko uztailaren 28koa, 1989ko abenduaren 1eko Erregelamendua eta xedapen horien ondorengo aldaketak. Aldaketa horien artean nabarmentzea merezi du 2/2013 Legeak, maiatzaren 29koak, itsasertzaren babesari eta erabilera jasagarriari buruzkoak).

Esparru horretan, Orioko udalerriak onartuta dauka lehen aipaturiko itsaso eta lehorren arteko jabari publikoaren muga, itsasertzeko lerroaren eta jabari horren babesezko zortasun-eremuaren identifikazioarekin eta mugapenarekin osatuta.

Oro har, esan daiteke, aipaturiko itsasadarra eta bere ertzak aipaturiko jabaria babesteko irizpideetara egokitzen direla, arestian aipatutako lege-xedapenetan xedatutakoetara. Dena dela, hori ez da eta ez du izan behar oztopo itsasadarraren aurrealde hiritarraren kontuei edota puntuei buruz arreta deitzeko, oro har, bere kalitatearen hobekuntza sustatzeko helburuarekin eta, hobekuntza horren bitartez, aipaturiko jabaria babesteko baldintzak hobetzeko helburuarekin, aipaturiko xedapenen esparruan. Arlo horretan arreta berezia merezi dute honako kontu hauek:

1.- Itsaso eta lehorren arteko jabari publikoaren egungo mugarekin zerikusia duten kontuak.

Itsaso eta lehorren arteko jabari publikoa mugatuta dago Orioko udalerrira osoan. Hainbat tokitan, muga horrek bat egiten du itsasertzeko lerroarekin, eta beste batzuetan ez. Bi zehaztapen horiek zenbait zati hiritarretan bat ez etortzea, beste arrazoi batzuen artean, honako bi arrazoi hauen baturaren ondorioa da. Alde batetik, egungo muga bat dator iraganeko ezarritakoarekin. Bestetik, muga historiko hori finkatu ondoren, zati hiritar horiek itsasertza aurreratu duten urbanizazio-jarduketan eta abarren xede izan dira. Kontu horri dagokionez, hortik kanpo geratzen dira Orioko portua osatzen duten lurrak, izan ere, lur horien mugek beren baldintzatzaile bereziak baitituzte.

Zati hiritar horietako batzuen egungo ezaugarri materialek zalantzak eta galderak sortzen dituzte, gai horren inguruan indarrean dauden lege-xedapenen esparruan, eraginpeko lurrek itsaso eta lehorren arteko jabari publikoan txertatuta eta horren eraginpean jarraitzeko behar diren baldintzak betetzen diren ala ez jakiteko. Edo, gutxienez, gai horren inguruan hausnarketa bat egitea justifikatzen dute.

Lur horiek ezagutzera eman baino lehen, argitzea komeni da kontsiderazio horien xedea ez dela muga hori zalantzan jartzea edota muga horren berrikuspena proposatzea, aipaturiko jabariko lurren desfektzio-prozesuak eta espedienteak sustatzearen komenigarritasunari edo komenigarritasun ezari buruz atentzioa ematea baizik, horrekin bat etorritik eta behar izanez gero, muga espediente horietatik atera daitezkeen erabakietara egokitzeko.

Azaldutakoaren arabera, gai horren inguruan arreta berezia merezi duten lurrak eta inguruneak Orioko egungo hiri-bilbearen barruan kokatuta daude. Honako hauek dira, zehazki, horietako batzuk:

- * Ortzaka eremuko lurrak.
Hego-mendebaldeko muturrean kokatutako lurrak dira, hain zuzen ere, mugaren eta itsasertzeko lerroaren artean daudenak, hura barrualderago geratzen delako.
- * Anibarko Portua eremuko lurrak.
Hego-mendebaldeko muturrean kokatutako lurrak dira, hain zuzen ere, mugaren eta itsasertzeko lerroaren artean daudenak, hura barrualderago geratzen delako.

- * Ceramica Arocena eremuko lurrak.
Muga eremuaren barrualdetik doa, Oria ibaiaren ibilguaren eta itsasertzeko lerroaren trazatu paraleloarekin, mendebaldeko muturrean izan ezik, zati horretan eremuan barrualderago baitoa. Kasu honetan eragindako lurrak muga horren eta Oria itsasadarraren ertzetik doan itsasertzeko lerroaren artean kokatutakoak dira.
- * Dike eremuko lurrak.
Muga eremuaren barrualdetik doa, Oria ibaiaren ibilguaren eta itsasertzeko lerroaren trazatu paralelo samarrarekin, ekialdeko eta mendebaldeko muturretan izan ezik. Kasu honetan eragindako lurrak muga horren eta Oria itsasadarraren ertzetik doan itsasertzeko lerroaren artean kokatutakoak dira.

Errealitateak eta lur horien egungo baldintzek pentsarazten dute itsaso eta lehorraren arteko eremuaren berezko ezaugarri naturalak galdu dituztela. Eta horrek justifika dezake bere desafektazioa, 1988ko uztailaren 28ko Kosta Legeko (2/2013 Legeak aldatutakoa) 18. artikuluan xedatutakoaren arabera. Artikulu horretan bertan adierazitakoari erreparatuta, desafektzioak berariazkoa izan behar du eta mugaren birdoikuntzarekin osatu behar da. Horrexegatik, helburu hori lortzeko behar den espedienteak edo espedienteak beharko lirateke, Plan Orokorretik formalki bereizitakoak.

2.- Itsaso eta lehorraren arteko jabari publikoa babesteko zortasun-eremuaren egungo mugapenarekin zerikusia duten kontuak.

Itsaso eta lehorraren arteko jabari publikoa babesteko zortasun-zona ere Orioko udalerrri osoan zehar identifikatuta eta mugatuta dago.

Kosta-kontuetan erabakitzeke unean Administrazio eskudunak erreferentziatzat hartutako eraginpeko lurren hirigintza-sailkapeneko ereduaren ondoriozkoa da mugapena.

Kontu horri dagokionez, 2/2013 Legeak, maiatzaren 29koak, itsasertzaren babesari eta erabilera jasangarriari buruzkoak, berariaz aurreikusten du bere Lehen Xedapen Gehigarrian 20 m-ko babes-eremua finkatzea 1988ko Kosta Legea indarrean sartzeko unean, hiri-lur gisa sailkatuta ez egon arren, honako baldintza hauek betetzen zituzten lurretan eta inguruneetan: *ibilgailuentzako sarbidea, ur-hornidura, hondakin-uren hustubidea eta energia elektrikoaren hornidura zituztenak eta azaleraren heren batean, gutxienez, finkatutako eraikinak zituztenak, edo bestela, aipaturiko baldintza horietako bat bete gabe ere, azaleraren bi herenetan, gutxienez, eraikin finkatuak zituztenak, aplikazioko antolamenduarekin bat etorritik.*

Nolanahi ere, helburu hori lortzea aipaturiko kontu horiek hirigintza-administrazioak bi urteko epean sustatu beharreko espediente baten esparruan justifikatzearen baitan dago. Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioaren aldeko txostena izan behar du espedienteak.

Orio babesteko zortasun-zonaren egungo mugapena lege-aurreikuspen horien esparruan aztertzeak bide eman diezaioke hiriguneko zenbait tartetan, une honetan 100 m-ko eremua finkatuta dutenetan, 20 m-ko zona aplikatzeko aukerari, baldin eta 1988ko Kosta Legea indarrean sartu zen unean eraginpeko lurrek aipaturiko baldintzak betetzen zituztela justifikatzen badute.

Kontu horri dagokionez arreta hori izan beharko luketen lur edo ingurune batzuk honako eremu hauetan kokatutakoak dira:

- * Botaleku.
Babes-zonak, partzialki, 20 m-ko eta 100 m-ko zabalerak ditu.
- * Ortzaiak.
Babes-zonak 100 m-ko zabalera du eremu osoan.

- * Anibarko Portua.
Babes-zonak 0 m-ko zabalera du ia eremu osoan, ekialdeko muturrean izan ezik, non, zabalera berezia baitu. Azken tarte horrek arreta izan beharko luke esku artean daukagun esparruan.
- * Erribera.
Babes-zonak, kasu honetan, askotariko zabalerak ditu. Hala, zenbait kasutan 100 m-koa da eta, beste batzuetan, 20 m-tik gorakoa.

Aurreko eremuei antzeko baldintzetan egon litezkeen gainerakoak gehitu liezazkieke.

Indarreko plangintzak hiri-lur gisa sailkatzen ditu eremu horiek guztiak. Nolanahi ere, aurreikuspen hori aurreko hiri-errealitate baten aitorpena baino ez da, plangintza horrek finkatzen duena.

Horrexegatik, lehen aipaturiko maiatzaren 29ko, itsasertzaren babesari eta erabilera jasangarriari buruzko 2/2013 Legeko Lehen Xedapen Iragankorreko aurreikuspenak aplikatzeko moduko eremuak dira.

Nolanahi ere, xede hori lortzeko, Plan Orokorretik formalki bereizitako espediente espezifikoaren edo espezifikoaren esparruan gai horren inguruan eskatutako baldintzak aztertzea eta justifikatzea eskatzen du.

3.- Jabari publikoaren barruan eta itsaso eta lehorraren arteko jabari publikoaren babeseko igarotze- eta zortasun-zonen barruan dauden eraikinekin zerikusia duten kontuak.

Oro har, pentsa daiteke aipaturiko 2/2013 Legeak, maiatzaren 20koak, itsasertzaren babesari eta erabilera jasangarriari buruzkoak, itsaso eta lehorraren arteko jabari publikoaren babeseko igarotze- eta zortasun-zonen barruan dauden eraikinen baldintza arautzaileak malgutu dituela.

Horren adierazgarri, Legean xedatutakoaren arabera, igarotze-zonaren barruan dauden eraikinak *konponketa-, hobekuntza-, finkapen- eta modernizazio-lanen xede izan daitezke, baldin eta lehendik dauden eraikinen bolumen-, garaiera-, eta azalera-gehikuntzarik eragiten ez badute eta haiek eragiten duten balio-hazkundera ezingo da kontuan hartu desjabetze-xedeetarako.*

Antzeko zerbait esan daiteke babeseko zortasun-zonaren gainerako zatian dauden eraikinei buruz.

Kontu horri dagokionez, kontuan izan behar da aipaturiko eraikinak eraisteko eta erabat edo partzialki ordeztzeko proposamenek ez dutela lekurik baimendutako jarduketetan. Eraisketa horrek aipaturiko eremuen aurreikuspen orokor arautzaileak osotasunean betetzea eskatzen du eta, horren ondorioz, eraikin berriak atzeratzea.

Honako hauek dira aipaturiko zona horietan eraikinak dituzten Orioko zenbait hiri-eremu: Ceramica Arocena; Alde Zaharra; Zabalgunea (Kofradia), Erribera; Mutiozabal, etab.

II.12. Orioko portua.

Azaldutakoaren arabera, Orioko portua udalerriko oinarritzko elementuetako bat da, eta udalerraren errealitatearen eta nortasunaren ezaugarrietako bat.

Hori bai, denborak aurrera egin ahala, une bakoitzean planteatutako eskakizunetara egokitzeko premiagatik justifikatuta dauden birdoikuntza askoren xede izan den elementua da. Azken

interbentzio aipagarrienetako batzuk kirol-portua gaitzearekin lotutakoak dira. Testuinguru horretan, ez da erraza jakitea portu hori behin betiko eratzeko jarduketak bukatuta eta errematatuta dauden edo egikaritzeko proposatuta geratu diren. Testuinguru horretan, kontu hori gaian eskuduna den administrazioari planteatzea komeni da, Plan Orokor berriak gai horren inguruan egokitzat jotzen diren proposamenak jaso ditzan.

Kontu horri dagokionez, 2012ko Plan Orokorra izapidetzeko testuinguruan gatazka posibleak antzeman ziren portuko aurreikuspenen artean eta indarrean dagoen Hezeguneen Lurraldearen Arloko Planeko proposamen jakin batzuen artean, behin betiko argitu eta ebatzi behar direnak.

II.13. Udalerri mugakideen erreferentzia.

Udalerriak Aiako, Donostiako eta Usurbilgo udalerriekin egiten du muga.

Lehenengoa, Orio bezala, Urola Kostako Eremu Funtzionalekoa da, eta beste biak Donostialdeko Eremu Funtzionalean daude.

Udalerrien arteko mugak zehazteari dagokionez ez dago arazo esanguratsurik.

Bestalde, hirigintza-plangintzak hartu beharreko soluzioen bateragarritasun berezia eskatzen duten arazorik ere ez da aurkitu, eta hori bat dator gaiaren inguruko lurralde-antolamenduko aurreikuspenekin.

II.14. Zarata

EAEko Zarata Mapak (Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurumen Saila, 2000. urtea) 75 dBAtik gorako soinu-igorpeneko errepideen artean sailkatu du A-8 autopista Orio parean, eta inguruko zarata-igorle aipagarriena da. N-634 errepideko trafikoak 70 eta 75 dBA arteko zarata eragiten du bidetik 10 m-ra. Bestalde, trenen trafikoak 55-60 Lek mailak eragiten dituela adierazten du Mapak.

Geroago, 2008ko azaroko Agindu Foralaren bidez, Gipuzkoako Foru Aldundiak zenbati errepide nagusien zaratatzen mapa estrategikoak onartu zituen. Horietako bat A-8 autobidearekin lotua dago. Bertan azaltzen den moduan, errepide horretako inpaktu akustikoak Orioko udalerrian eragina dute, batez ere Bikamiota eta Hondartza eremuetan. Geroago, 2009ko maiatzeko Agindu Foralaren bidez, erakunde horrek Zarataren kontrako Jarduketa Plana onartu zuen.

Zarataren igorpen-foku nagusien inguruan dauden bizitegi-eremuak aztertu ondoren, soinukalitate baxua dutenak identifikatu dira. A-8 autopistaren trazatua Bikamiota eta Hondartza eremuen inguruan igarotzen da. Bi eremuak, gaur egun, lurzoru hiritarrekoak dira eta finkatuta daude (zatiren bat egikaritzen). N-634 errepidea da udalerriko bigarren zarata-foku garrantzitsua, eta haren egungo trazatua Anibarko Portua, Dike, Aita Lertxundi, Aramendi Toki Alai, Alde Zaharra eta Mutiozabal bizitegi-eremuen inguruan igarotzen da. Orioko saihezbidea eraikitzeak eremu horietatik igarotzen den trafikoa murriztuko luke Mutiozabal eremuan izan ezik, eremu horrek haren eraginpean jarraituko bailuke. Eremu hori, gainera, trenbidearen inguruan dago, garrantziaren arabera zarataren hirugarren igorpen-fokua dena.

Plan Orokor berria eta bere proposamenak arlo horretan indarrean dauden lege-xedapenetan xedatutako irizpideetara egokitu beharko dira. Hain zuzen ere, Plan horrek antolatzen dituen etorkizuneko garapenei Soinuaren Inpaktu Azterketa egin beharko zaie (bere antolamendu xehatuaren zehaztapenari lotuta).

II.15. Udalak sustatutako lanak

Azken urte hauetan, Orioko udalak (batzuetan beste administrazio batzuekin lankidetzan) Plan Orokor baten berezko aurreikuspenekin zerikusia duten arloetan eragin zuzena edo zeharkakoa duten hainbat lan sustatu ditu. Honako hauek dira lan horietako batzuk:

- * Mugikortasun-arloan.
 - Eusko Gudarien Kalea ardatz komertzial gisa hobetzeko proiektua eta hiriguneko sarrera-irteerak hobetzeko mugikortasun-azterlana. Diagnostikoa eta jarduketak-lerroak (2011).
 - Orioko eremu berezien hiri-irisgarritasuneko plana (2011).
- * Orioko emakume eta gizonen berdintasunerako I plana (2013 - 2016).
- * Orioko bizikidetza eta giza eskubideen egoeraren diagnostikoa eta udal planaren diseinua (2013).

Lan horien guztien edukia berariaz hartu da kontuan dokumentu honen elaborazio-esparruan. Eta hala egin beharko da Plan Orokor berria egiten denean ere, Aurrerakina barne.

III.- DIAGNOSTIKOA

III.1. Diagnostiko sozioekonomikoa

Orioko biztanle gehienak hirigunean bizi dira. Sakabanatuta biztanle guztien % 2 baino ez da bizi eta horietatik 2/3 San Martinen eta Ortzaika eremuan. Biztanle-dentsitatea 576 bizt./km² da.

Herriaren egoera demografikoa ona da, populazio-egituran zahartze-aztarnak nabaritzen diren arren. Horrela, bilakaera demografikoari erreparatuta, Orio izan da eskualdean 2001-2013 aldian populazioaren hazkunde handiena izan duen udalerria, eta eskualdean duen proportzioa 1900eko % 4,7tik egungo % 7,3ra pasatu da. Gainera, populazio-profil gazteena du.

2014ko erdi aldera 5.721 biztanle zeuden erroldatuta. 1991z geroztik etengabeko hazkundera izan du, eta 2001-2013 aldian urteko % 2,14ko batez besteko hazkundera (Urola Kostan % 0,94koa izan da eta Gipuzkoan % 0,50ekoa). Hazkunde-erritmo horrek jarraituko balu, Orioko udalerriak, gutxi gorabehera, 6.700 biztanle izango ditu Plana bukatzen denean, baina hazkundera moteltzen bada, gaur egun eskualdeak duenera hurbilduz, biztanle-kopurua 6.150 ingurukoa izango litzateke edo, 5.959-6.000 biztanlekoa, aintzat hartutako eszenategi txarrean, hau da, lurralde historikoaren hazkundera hurbiltzen bada. Beraz, aurreikuspenak 6.000 eta 6.700 biztanle artekoak dira.

Orioko errealitate horren arrazoi nagusia ondorengo bi adierazle demografikoen jokabide bereizgarria da. Alde batetik, berezko hazkunde edo hazkunde begetatibo garrantzitsuak egon dira jaiotza-tasaren portaera hobeagatik, XX. mendeko azken hamarkadetako hazkunde begetatibo ahulak gaudituz (2010-2013 aldian saldo begetatiboa ‰ 4,9koa izan da). XXI. mendean hasitako berezko hazkundearen goranzko joera horrek eutsi egin dio baina, bestalde, ez da ahaztu behar datu berriena, 2013. urtekoa, "0" hazkundera izan baitu.

Bestetik, migrazio-saldo positiboak daude, mende honetan zehar are eta garrantzitsuagoak direnak (2001-2013 aldian zehar 75 pertsona/urteko batez bestekoa) eta EAEko biztanleentzat nahiz kanpokoentzat lurralde erakargarria dela adierazten dutenak (2013ko lehen seihileko datuek adierazten dute etorkinen 2/3 baino gehiago espainiarrak direla, eta ia % 75 Gipuzkoako beste herri batzuetatik etorritakoak direla). Datu sozio-ekonomikoen analisiak susmarazten du azken urteetako etorkin horien etorrerak lotura handiagoa duela kostaldeko etxebizitza-

eskaintzaren hazkundearekin eta komunikazioen hobekuntzarekin (A-8arekiko erdilotunea), herriko enplegu-hazkundearekin baino.

2013ko populazio-piramideak profil erregresibo samarra du. Oinarri estua du erdiko gorputzean eta zaharren portzentaje handia, populazio erregresiboetan eta trantsizio demografikoaren fasea bukatu duten herrialde garatuetan tipikoa dena. Oso desberdina zen 1986ko profil hedakorra, populazio gazteen pagoda-forma bereizgarria izateko joera zuenarena. Halaber, piramidearen azterketa xehatuagoak erakusten digu ez duela errabiol edo hautestontzi alderantzikatuaren ohiko forma, izan ere, oinarria, kohorte gazteagoen (0-9 urte) hazkundearen ondorioz, goragoko kohorteak baino zerbait zabalagoa da. Zentzu horretan esan daiteke duela hamarkada bateko piramidea egungoa baino erregresiboagoa zela, baina itxaron egin beharko da aldaketa txiki hori finkatzen den edo ez ikusteko. Kohorte gazteenen zabaltze nabarmena azken urte hauetako migrazio-saldo positiboen eraginaren ondorio zuzena da (seme-alabak izan dituen jende heldu gaztea). Hala ere, populazioaren zahartzea egitatea da: zahartzaro-indizea 0,85ekoa da (Urola eskualdean 1,02koa; Gipuzkoan 1,33koa; EAEn 1,4koa eta Espainian 1,1ekoa) eta 64tik gorakoak % 16,6 dira (EB-27n % 17,8koa) eta 20 urtetik beherakoak % 22,1.

Orio, gaur egun, dinamika demografiko oneneko lurraldea da, eta harridura eragiten du Euskal Herriko beste herri batzuetan gertatzen ari dena ikusita. Kohorte gazteenek (0-9 urte) populazio-egituran duten garrantzi handiagoa eta aztertutako beste adierazle batzuk joan zen mendeko azken hamarkadetan finkatzen joan den eta populazioan nolabaiteko zahartzea eragin duen eredu demografikorako aldaketa-zantzua izan daitezke.

Orioko biztanleriaren ia % 48 udalerrian bertan jaiotakoa da, eskualdean jaiotakoak aintzat hartuz gero % 57 pasatxora igotzen da edo lurralde historikoa kontuan hartzen badugu % 80,6ra. Gainerako EAEn jaiotakoak % 2 baino pixka bat gehiago dira. Gipuzkoatik kanpo jaiotako populazio-taldeek izan dituzte hazkunde handienak 1996-2013 aldian (kopuru absolututan, Bizkaian eta Araban jaiotakoak lau bider gehitu dira eta EAetik kanpo jaiotakoak ia bikoiztu egin dira). EAetik kanpo jaiotakoak ia mila pertsonara iristen dira, biztanleriaren % 17 baino zerbait gehiago, eta kopuru horretatik ia % 43 Espainiatik kanpo jaio da. Azken urte hauetan murriztu egin da Espainiako beste autonomia-erkidego batzuetan jaiotakoen pertsona-kopurua, baina handitu egin da atzeritarrena (1985eko % 1,05etik 2011ko % 7,7ra).

Oriotarrek ez dute heziketa-maila altua baina ez dago alde handirik eskualdearekin eta lurralde historikoarekin alderatuta. Dena den, 1996az geroztik egoerak hobera egin du (ia % 14k erdi-mailako eta goi-mailako ikasketak ditu).

2011ko biztanleria aktiboa 2.671 pertsonak osatzen zuten, jarduera-tasa % 49,7koa zen, eta kopuru absolutu eta erlatiboen bilakaera nabarmen hobetu da 1986az geroztik (mila aktibo gehiago), emakumeak eta 60ko eta 70eko hamarkadetako baby boom-eko jendea lan-merkatuan sartu delako eta baita laneko adinean dauden etorkin gazteak etorri direlako ere. Biztanleria okupatua ugaltzen joan da azken hamarkadetan, 2011n 2.333 lagunera iritsi arte (1986arekiko % 68ko hazkundearen egon da, eskualdeko % 51ren, EAeko % 31ren eta Gipuzkoako % 26,8ren aurrean), 2008az geroztik izandako langabeziaren hazkundeak biztanleria okupatuaren beherakada eragin duen arren. 2014ko otsailean langabezia-tasa % 12,7koa zen, Urola Kostakoa, Gipuzkoakoa eta EAeko baxuagoa, % 10,3koa gizonezkoentzat eta % 13,3koa emakumeentzat. XXI. mende-hasieratik eta 2007 arte kopuruak 110-130 langabe/urteko izan ziren, eta egungo krisia hasi zeneko 187 langabetik (2008ko abenduaren 31n) 2014ko 337 langabera igaro zen (otsailak 28). Datu horiek adierazten dute azken bost urte hauetan langabeen kopurua 2,6 bider handitu dela eta kopuru absolututan eta erlatibotan duela ia mende laurdeneko langabezia-tasa ere gaintu egin dela (279 lagun 1990n, % 11,8tik hurbil dagoen tasa).

Orioko ekonomia itsasoari lotuta egon da usadioz, eta zehazki arrantzari, ontzigintzari eta merkataritza lotuta. Nekazaritza jarduera osagarria izan da. Dokumentazio historikoak

adierazten du portuak garrantzi handia izan duela aro modernoaren hasieratik, handik abiatzen baitziren itsasontziak Kanadarantz baleak arrantzatzerara. Gaur egun oraindik ere jarraitu egiten du baxurako arrantza-jarduerak (antxoak, txitxarroa, berdela, hegaluzea), baina iraganean baino askoz garrantzi txikiagoa du sektoreak hirurogeita hamarrekoko hamarkadaz geroztik izan duen krisi sakonaren ondorioz (1970ean 50 ontzi zeuden eta 2012an, berriz, 7 ontzi, 113 marinelez osatutako tripulazioarekin). Gauza bera gertatu da ontziola-jarduerarekin. Azken lekukotasunak joan zen mendekoak dira, Aitzondo eta Galarraga ontziolenak. Galarraga ontziola ontzitegi bihurtu zen. Gaur egun ez dago jarduera hori egon dela aditzera ematen duen hondakinik. Azpimarratzekoak dira kostako errepidearen eta Orioko itsasadarren artean oraindik zutik dirauten eraikin abandonatuak.

XXI. mende hasierako ekonomia-jarduera deskribatutakoaren oso desberdina da, iragan horrek lurraldean bere arrastoa utzi duen arren. Hala, arrantzako lanaren, zurgintzaren eta burdingintzaren ezagutza hori historian zehar transmititu da eta hiribilduko biztanleak sektorean une bakoitzean gertatutako egiturazko aldaketetara egokitu dira. Horren ondorioz, ez dago ia kontserba-industriarik eta ez ontzigintzakorik, baina badira oraindik hainbat arrantza-ontzi, arrain- eta elikagai-handizkariak eta -merkaturatzaileak, eraikuntza metalikoarekin eta mekanikoarekin lotutako tailerrak, industriako makineria konpontzeko tailerrak eta altzarigintzarekin eta material erregogorrekin lotura dutenak. Industrian okupatutako aktiboak % 24,2 ziren 2011n (1981ean % 43) eta hirugarren sektorea indarrean sartu da azken urte hauetan, biztanleria okupatuaren % 63,9ri eman baitio enplegua. Eraikuntzak % 9,1 okupaten du, nekazaritza-sektoreak du protagonismo txikiena % 2,8rekin. Beherakada nabarmena izan du, bai kopuru absolututan eta bai erlatiboetan (1981ean % 25,1 okupatzen zuen), eta garrantzi txikia du ekonomia-arloan, baina ez gizarte-arloan.

Enplegu endogenoaren azterketak (1.073 enplegu 2013an) agerian uzten du herriko aktibo landunen parte garrantzitsu bat beste udalerrri batean ari dela lanean, aktibo landuen eta sortutako enpleguaren arteko saldoa -enplegu endogenoa- negatiboa baita (udalerrrian ia 950 enplegu 2.350 lagun inguruko biztanleria landunaren aurrean). DIRAren datu berrienek, 2013. urteari buruzkoek, Orion 424 establezimendu daudela eta 1.073 enplegu dituztela adierazten dute. Beraz, ateratzen den batez bestekoa 2,53 pertsona/establezimenduko da, eskualdekoa baino baxuagoa (3,96 pertsona/establezimenduko). Enpresen tamaina oso txikia da, baina azken urte hauetan zertxobait handitu dela ikusi da (2008an 2,32 pertsona/establezimenduko). Enpresen % 96,2 mikroenpresak dira, 10 langile baino gutxiagoko establezimenduak, eta enplegu endogeno guztiaren % 65,5 sortu dute (2003an % 75,27 zen). Tamaina handieneko establezimenduak enpresa industrialak dira eta herriko enpresa handiena, Talleres Protegidos Gureak S.A., Zarautzera lekualdatu zen 2013ko abenduaren bukaeran. Jarduera-adarren arabera banaketak erakusten du merkataritzarekin, garraioarekin eta ostalaritzarekin lotura duten jarduerak dutela establezimendu-kopuru handiena (guztien herena baino gehiago), eta ondoren eraikuntzakoek. Industria-establezimenduak establezimendu guztien % 7,53 ziren 2003an eta % 6,37 2013an.

Horregatik guztiagatik, Orioko enpresa-ehuna indarra galtzen joan da denborak aurrera egin ahala eta atentzioa ematen du bertan bizi diren aktibo landunekin alderatuta dagoen enplegu endogeno urriak. Herriko enpresa askori eragin die arrantza-sektoreko aipaturiko krisiak, eragin zuzena izan baitu kontserba-enpresetan, ontzioletan, konponketa- eta metalurgia-tailerretan, etab. Gainera, lur-falta dela eta, enpresa batzuk inguruko beste udalerrri batzuetara lekualdatu dira edo inguruko herri horietan ezarri dira (Aia, Usurbil, Zarautz). 2008an hasitako krisiak ere ez du askorik lagundu herrian inbertsioak egiten. Aldeko ingurunea indartu behar da enpresa-ehuna dibertsifikatzeko eta lehendik dauden enpresa-sektoreen lehiakortasuna hobetzeko lerroak proposatzeko. Sektore horiek, kasu askotan, bere eskualdean ezarrita daude sinergia guztiak aprobetxatzeko eta ezinbesteko dibertsifikazio horretarantz elkarrekin joateko. Eta testuinguru horretan, itsas ondoko kokapen horri eta herritarren egiten jakiteari ematen zaie garrantzia, lurralde honetako baliabide endogeno eta intrintseko gisa, jarduera osagarriak bilatzeko eta indartzeko asmoz dibertsifikazio horren mesedetan. Hori gertatzen da, adibidez, arrantza-turismora bideratutako proiektuekin (arrantza-ontzietan egiten den turismoa), itsas

munduaren inguruko ibilbide tematikoekin (bisitak kofradia, portu, faro eta abarretara), produktua eraldatu eta balioztatze proiektuekin (xerratzea, izoztea, produktu berriak egitea: atun-hanburgesak...), eta merkaturatze- eta banaketa-kanal berriekin (Internet bidezko salmenta), beste batzuen artean. 2007an kirol-portua inauguratu izana ere zentzu horretan ulertzen da turismo- eta aisia-sektoreari lotutako jarduera osagarriak garatzen laguntzen duelako (ostalaritza, merkataritza eta kirol- eta kultura-jarduerak ere).

III.2. Ingurune fisikoari buruzko diagnostikoa

Orioko udalerriak, iparraldetik Kantauri itsasoarekin egiten du muga; ekialdetik Donostia eta Usurbil udalerriekin; hegoaldeko Aia udalerriarekin; eta mendebaldeko ere egiten du muga Aiarekin. Orio Zarautz-Azpeitia Eremu Funtzionalekoa (Urola Kosta) da. Udalerraren azalera 9,8 km²-koa da, hau da, 980 ha gutxi gorabehera.

Egoera geografikoak klima moderatua finkatu du tenperaturei dagokienez, eta oso euritsua, batez ere udazkenean eta neguan. Itsasoak eragin handia du eremuan.

Interes geologikoko eremu gisa Oriako Estuarioa nabarmentzen da, Oria itsasadarren bokaleari lotutako itsasertzeko jalkinen multzoa. Orioko itsaslabarra ere interes geologikoko eremutat jotzen da.

Honako hauek dira formazio geomorfologiko nagusiak: itsaslabarrak, hegaleko formazioak (metaketa bidez eratutako formazio kolubialak edo higadura-prozesu aktiboa duten formazioak), ibai-formazioak, betelan heterogeneoak, hondartza, duna-eremua, marea arteko lohitsuak, marea arteko hareatsua, supramareal hareatsua eta supramareal lohitsuak.

Gutxi gorabehera udal-azaleraren % 28k ditu % 50etik gorako maldak. Udalerriko azaleraren % 55k baino zerbait gehiagok % 30etik gorako maldak ditu. Nagusi dira itsas-erlantz osoan zehar, eta baita Kukuarraren eta Talaimendiren hegoaldeko mendi-hegalean ere.

Udalerraren zatirik handienak VI. eta VII. mota agrologikoko lurzorua ditu, landaredia iraunkorra izateko egokiak. Itsaslabarren eremua ere nabarmentzekoa da, lurzoru antzu gisa sailkatu dena. Nekazaritza eta Basoak antolatze LAPIk Nekazaritza, Abeltzaintza eta Landazabala Eremuen kategorian eta "Balio Estrategiko Handiko" azpikategorian sartzen ditu ahalmen agrologiko handieneko lurzorua, Mota Agrologikoen Mapako II., III. eta IV. motekin bat datozenak.

Oria ibaiaren uren kalitateari dagokionez, nolabaiteko kutsadura-maila du, aztertutako parametroetako batean batez besteko maila gaitzen ez duena. Eta ibai-ibilguetan dauden inpaktu garrantzitsuenek dagokionez, zati kanalizatuak, eraikinek okupatutako jabari publiko hidraulikoa eta ibai-ertzeko landarediaren aldaketa nabarmentzen dira.

Ez dago akuiferoen kutsadurakiko urrakortasun handia edo oso handia duen eremurik. 60 iturburu daude, horietako 15 l/s eta 10 l/s arteko batez besteko emaria dutenak, eta 2 zundaketa. Itxais eta San Juan dira iturburu esanguratsuenak eta baita Mendizorroitzeko zundaketa ere, denak Orio hornitzeko erabiltzen direnak.

Faunari dagokionez, Oriaren estuarioak eta inguruneek eratzen dute harentzako interes handieneko eremua eta, zehazki, Oriako ES212120010 BGL-k okupatutako eremuak. Horren inguruan kontuan hartu behar dira hegoaldeko zuhaitz-igela (*Hyla meridionalis*) birsartze proiektuari lotutako lekuak. Bigarren maila batean kontuan hartu behar dira lirake oraindik irauten duten baso hostoerokorrak (hariztiak, haltzadiak, ibarbide-hondoko basoak...).

Honako hauek dira Orioko udalerriko natura-intereseko eremu aipagarriak: Oria itsasadarra, itsaslabarrak eta Mendizorroitzeko errekek.

Eusko Jaurilaritzako Korridore Ekologikoen Sarearen proposamenak ez du hartzen Orioko udalerriko eremurik korridore ekologikoen eskualdeko sarean. Dena den, aipatu ditugun natura-balio handiko eremuek sare orokorrarekiko osagarria eta kongruentea den udal-sarea osa dezakete. Gainera, kontuan izan behar da Pagoetako Parke Naturalaren hurbiltasuna, Korridore Ekologikoen Sarearen proposameneko eremu-nukleotzat jotzen denarena.

Honako hauek dira, zehazki, Orioko udalerrian korridore ekologikoen Sarea eratu dezaketen elementu nagusiak:

- Oria itsasadarra, zati bat LIC ES2120010-ean txertatuta duena.
- Sariakolako ibarbidea eta urtegia, LIC ES2120010-ean txertatutakoa.
- Itsaslabarrak, Itsasertzaren LAPak "Babes Berezi Zorrotzeko" kategorian jasotakoak.
- Mendizorrotzeko errekek, LAGetako natura-intereseko eremua.
- Hegoaldeko zuhaitz-igela birsartzeko proiektuekin lotutako lekuak.

Eremu horien loturako elementu gisa, kontuan hartu beharko da honako elementu hauen lotura-funtzioa:

- Drainatze-sarearen gainerakoa, Oria ibaiaren eskuin aldeko errekei (Aranoko, Txanka, Ondalutz) arreta berezia jarritz.
- Landare hostoerorkorren basoak

Uholde-eremuak, oro har, Oria itsasadarreko meandroetan kokatutako padurak eta alubioi-lautadak dira.

Dokumentuetan 10, 100 eta 500 urteko birgertatze-aldiei dagozkien uholde-eremuak irudikatu dira, arlo horretan indarrean dauden aurreikuspenetan oinarrituta (Eusko Jaurilaritza; 2013ko bukaera).

Informazio hori berrikusi egin behar da, azken urte hauetan egindako ubideratzea eta garapenak kontuan hartuta.

Prozesu geologiko esanguratsuenen artean mendi-hegalen lerradurak daude, bereziki % 50 baino gehiagoko malda gaingitzen duten mendi-hegaletakoak. Definizioz, arrisku handiko kategorian sailkatutako eremuak dira. Kostako mendikateko ipar isurialdeko mendi-hegalak nabarmentzen dira, lerradurak maiz eta handiak izaten dituztenak.

Gutxi dira kutsatuta egon litezkeen lurzoruak dituzten eremuak. Zentzu horretan, hiriguneko bi orban eta landa-eremuko beste lau aipa daitezke, esanguratsuenak Motondon ibaiertzean eta Salmaristiko meandroko alubialean daudenak.

III.3. Hirigintzako diagnostikoa

Oriok, oro har, finkatutako eta kalitate hiritar eta berezko handiko hirigintza-errealitatea dauka, markatutako bilakaera historiko baten ondorioz. Nabarmendu egin behar da, hala ere, XXI. mendeko lehen hamarkadan izandako hiri- eta biztanle-garapen handiaren berezitasuna.

Hiri-inguruneari dagokionez, kalitate hori Alde Zaharrera hedatzen da (bere orografiarekin lotutako "baina" eta antzekoen kalterik gabe, funtsean, irisgarritasun prekario bihurtzen direnak, aspalditik konpontzen ari badira ere), eta baita Oria ibarraren zati lauan sustatutako zabalguneez ere. Antzeko zerbait esan daiteke ingurune naturalari dagokionez.

Dena den, udalerraren kalitate global hori ez da eta ez du izan behar oztopo gogoratzeko hirigunean badirela egoera jakin batzuk ezinbesteko hausnarketa behar dutenak, ahal den

heinean, interbentzio-neurri egokiak zehaztu ahal izateko. Arlo horretan, arreta berezia merezi dute ondoren aipatuko diren hiru egoera edota kontuek.

Lehenengoak zerikusia du narriatutako hiri-inguruneak egotearekin, hiri-berroneratze eta – indarberritze neurriak behar dituztenekin. Hori gertatzen da, beste batzuen artean, Mutiozabal eremuarekin, Leunda altzarien ingurunearekin, Kofradiarekin eta abarrekin.

Bigarrenak zerikusia du eraberritze- eta berrerabilera-neurriak behar dituzten eta euren ezaugarriekin eta baldintzatzaileekin bateragarriak diren erabilerak ezartzea sustatzen duten eraikinak egotearekin (horietakoren bat katalogatutakoa). Hori gertatzen da Cerámica Arocena eraikinarekin eta Mutiozabalen eta beste eremu batzuetan dauden beste batzuekin.

Hirugarrenak zerikusia du Oria itsasadarraren ibai-ertzak antolatzeke baldintzatzaileekin, itsaso eta lehorren arteko jabari publikoaren babesarekin lotutakoekin. Baldintzatzaile horiek, aldi berean, narriatutako hiri-ingurune batzuetan eta lehen aipaturiko berrerabilera-neurriak behar dituzten eraikinen inguruneetan eragiten dute. Arlo horretan azpimarratzekoa da arreta eskatzen duten hiru gai-mota egotea.

Batetik, itsaso eta lehorren arteko jabari publikoaren egungo mugarekin zerikusia dutenak. Hala, Ortzaika, Anibarko Portua, Cerámica Arocena, Dike eta beste hainbat eremutan kokatutako lurren ezaugarriak eta baldintzatzaile materialek jabari horren desafekzioa justifika dezakete. Nolanahi ere, Plan Orokorrak formalki bereizitako espediente espezifikoak edo espezifikoak formulatzea eskatzen du horrek, kostarloan indarrean diren xedapenetan xedatutako irizpideen arabera.

Bestetik, itsaso eta lehorren arteko jabari publikoa babesteko zortasun-eremuaren egungo mugapenarekin zerikusia dutenak. Hala, Botaleku, Ortzaika, Anibarko Portua, Erribera, eta beste hainbat eremutan kokatutako lurren hiri-baldintzatzaileek 20 m-ko babeseko zortasun-eremua finkatzea justifika dezakete. Dena den, Plan Orokorretik formalki bereizitako espediente espezifikoak edo espezifikoak formulatzea eskatzen du horrek, kostarloan indarrean dauden xedapenetan xedatutako irizpideen arabera.

Azkenik, Oria itsasadarraren ertzetan kokatutako eraikin jakin batzuk itsaso eta lehorren arteko jabari publikoaren babeseko igarotze- eta zortasun-zonen barruan edo jabariaren barruan kokatuta daude. Horien gaur egungo eta etorkizuneko presentzia behar diren kalitate-baldintzetan mantentzeari lotuta ulertu behar da, bere kasuan, horrek eskatzen dituen eraberritze-, hobekuntza-, sendotze-, edo modernizazio-lanak aurrez eginda. Horiek izatea ez da bateragarria erabateko eraispenerekin edo eraispener partzialarekin. Kasu horretan, eraikin berriak kasu bakoitzean xedatutako atzerapen-baldintzetara egokitu beharko lirake. Azpimarratu egin behar da eraikin-mota horiek daudela Cerámica Arocena, Alde Zaharra, Zabalgunea (Kofradia), Erribera, Mutiozabal eta beste hainbat eremutan.

Azken urte hauetan indarrean dagoen hirigintza-plangintza esparru egokia izan da Oriori gaur egun duen kalitatea emateko. Eta hori, 2006ko Arau Subsidiarioak baliogabetu egin diren arren, eta gertakari horren inguruan izan ziren gorabeherak izan ziren arren.

Plangintza horretan planteatutako proposamenek garapen- eta egikaritzapen-maila garrantzitsua izan dute. Halaber, egikaritu gabeko garapenen artean Dike eremuan aurreikusitakoak (oso-osorik egikaritu gabe dagoen bizitegi-garapena, Munto eremuan aurreikusitakoak (gutxi gorabehera 88 etxebizitza egikaritu gabe), Hondartza eremuan aurreikusitakoak (36 bat etxebizitza egikaritu gabe), Aizperro eremuan aurreikusitakoak (oso-osorik egikaritzeko dagoen industria-garapena), eta hiri-berroneratzeko aurreikuspenek eragindako beste ingurune batzuetan aurreikusitakoak nabarmendu behar dira. Dena dela, egikaritu gabeko hiri-garapen horiek egon arren, esan daiteke Orioko udalak indarrean dagoen Plan Orokorra berrikusteko erabakia zuzena dela, beste batzuen artean, ondoren azalduko diren hiru arrazoi hauei erreparatuta.

Batetik, interbentzio-neurri egokiak finkatzeko lehen aipaturiko kontuei dagokienez (hiri-berroneratzea zenbait ingurunetan; lehendik dauden eraikinen berrerrabilera; aipaturiko problematikak eragindako Oria itsasadarraren ertzen antolamendua, etab.).

Bestetik, indarrean dagoen plangintzan aurreikusitako eta egikaritu gabeko zenbait garapenen hiri-antolamenduko proposamenak birdoitzeko, euren optimizazio kualitatiboa eta kuantitatiboa eragiten duten baldintzetan, kasu bakoitzeko errealitatea eta baldintzatzaileak berariaz aintzat hartuta. Dike, Leunda altzariak, egungo frontoia, Mutiozabal eta beste hainbat eremurik edota ingururik arreta jaso beharko lukete kontu horren inguruan.

Hirugarrenik, lehengo kontuei buruzko hausnarketa eta erabakiak esparru egokian kokatzeko komenigarritasuna Oriori hirigintza-plangintza egokia eta segurua emateko ondorengo urteetan bere premia eta eskaerei erantzuna eman ahal izateko. Eta plangintza hori indarrean dagoen plangintza orokorraren berrikuspen-prozesuaren ondoriozkoa da.

Azkenik, Orioko portuari buruzko iruzkina egingo dugu. Dokumentu honetan bertan azaldu den bezala, udalerriko oinarritzako elementua da, udalerriko errealitatea eta udalerriaren nortasuna bereizgarri egiten dituen. Adierazitakoari erreparatuta, ziurtasunez jakitea komeni da portu hori eratzeke jarduketak amaitutzat eman daitezkeen ala ez. Horregatik komeni da ezagutzea portuko agintaritzaren iritzia kontu horri dagokionez.

III.4. Etxebizitzari buruzko diagnostikoa

Adierazitakoari erreparatuta, indarrean dagoen hirigintza-plangintzak egikaritu gabeko 260 etxebizitzatik gorako bizitegi-eskaria du. Dena den, lehen aipaturiko gorabeherak baldintzatutako eskaintza da.

Horrela, batetik, Dike eremua antolatzeko indarrean dauden proposamenak berraztertzea komeni da haren hirigintza-garapena kualitatiboki eta kuantitatiboki optimizatu ahal izateko. Bestetik, egungo baldintzatzaileen eta arazoaren esparruan indarrean dauden hiri-berroneratzeko proposamen jakin batzuk berraztertzea komeni da, bai birdoitzeko edo bai finkatzeko; Leunda altzarien inguruan edo egungo frontoiaren inguruan planteatutako proposamenak izaera horretako adibideak dira.

Bestalde, gaira egindako lehen hurbilketa batean, indarrean dauden lurralde-antolamenduko tresnetan xedatutako baldintzatzaileen esparruan zehaztutakoan, esan daiteke Plan Orokor berrian aurreikusi beharreko etxebizitza-eskaintza 218 eta 418 etxebizitza artekoa izan daitekeela.

Modu osagarrian, eskaintza horren zati batek etxebizitza babestuaren berezko baldintzei erantzun behar die. Arlo horretan, hain zuzen ere, indarreko hirigintza-legerian xedatutako estandarra bete behar da (% 40 hiri-lurrean eta % 75 lurzoru urbanizagarrian, ateratzen den bizitegi-eraikigarritasun berria erreferentziatzat hartuta). Gainera, kontuan izan behar da, Zarautz-Azpeitia eremu funtzionaleko (Urola Kosta) indarreko LZPan xedatutakoaren arabera gutxienez 2013 etxebizitzak erregimen horretakoak izan beharko luketela.

III.5. Mugikortasunari buruzko diagnostikoa

Esan daiteke, oro har, arlo horretan ez dagoela ebatzi beharreko arazo garrantzitsurik Orioko udalerrian.

A-8 autopistatik eta GI-634 errepidetik dituen sarbide nagusiak egokiak dira, eta baita barneko bide-bilbea ere, bai trazatuari dagokionez eta bai sekzio funtzionalei dagokionez. Autobus

publikoak erdigunean du geltokia eta tren-geltokia itsasadarraren beste aldean dagoen arren, nabarmen hobetu du irisgarritasuna Euskotrenek egindako azken eraberritze-lanekin.

Gogoratu daiteke, baita ere, zenbait garaietan Orioko planeamenduak (1951eko Pla Orokorrak; 2008ko Arau Subsidiarioak behin behineko onarpena jaso zuten bitartean) Oria ibaiaren bi ertzak elkartuz zubi berri bat aurreikusi duela hirigunea, Kofradia inguruan, Mutiozabal eremuarekin lotuz. Proposamen hori, inguru horretan hiriguneko trafikoaren eta errepide sarearen berrantolatzeari lotua egon da. Era guztietara, aipatutako Arau Subsidiarioetatik baztertua izan zen Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordearen aginduak jarraituz, zehazkiago Eusko Jaurlaritzako Portuetako Zuzendaritzarenak.

Era guztietara, Orioko Plan Orokor berria idazteko eta bideratzeko prozesua egokia izan daiteke proposamen hori eta berari buruzko eztabaida berreskuratzeko. Hori bai, modu orokorrean bi helburu ezberdinen konponketarekin lotuta ikusi behar da proposamen hori. Alde batetik, udalerrriaren trafiko eta errepide beharrak eta gabeziak. Bestetik, portuaren beharren ikuspuntutik, Portuetako Zuzendaritzak jarri dezazkeen baldintzak.

Barneko bide-sarearen eraketa horrek eta hirigunearen zatirik handienaren topografia lauak oinezkoentzako oso baldintza oneko irisgarritasuna sortzen dute, hiriguneko eta naturako kalitatezko paisaian txertatutako oinezkoentzako ibilbideekin. Ibilbide horien artean itsasadar-ertzeko pasealekua nabarmentzen da.

Alde zaharrak ere hiri-kalitatea du, baina topografiak malda handiak ditu eta, horren ondorioz, irisgarritasuna ez da oso ona, bere ertz lauко puntu estrategikoetan kokatutako bi igogailuren bitartez hobetu bada ere.

Bizikleta-bideei dagokienez, une honetan dauden inguruko desjarraitutasuna arazo handirik gabe eta egungo bide-bilbearen gaineko obra garestirik gabe ebatzi liteke.

Baita ere, udalerriko hirigunearen eta ingurune naturalaren lotura hobetzeko helburuarekin, zuzenagoa eta seguruagoa eginaz, Plan Orokorraren idazte eta bideratze prozesuan aztertu eta eztabaidatu daiteke, A-8 autobidearen bi ertzak lotuz, oinezkoen pasabide baten antolaketa, zehazki Santiago Bidea pasatzen den inguruan.

Azkenik, GI-634 errepidearen saihesbidearen aurreikuspena aipa daiteke, indarreko plangintzan sartuta dagoena. Saihesbide hori Foru Aldundiaren bide-sare orokorrean sartzen da eta Foru Aldundiak egikaritu behar du; une honetan ez du jakineko programazio- eta finantzaketa-aurreikuspenik.

III.6. Zerbitzu-azpiegiturei buruzko diagnostikoa

Udalerriak dituen zerbitzu-azpiegitura sareen ezaugarriei erreparatuta, ez da eskari edo gabezia esanguratsurik antzeman arlo horretan.

Hala ere, zehaztapen edo iradokizun batzuk egin daitezke zerbitzu horietako bakoitzaren inguruan:

- * Ur-hornidura:
 - Behin zehaztuta hartu beharreko antolamendu-soluzio posibleak, Gipuzkoako Ur Kontsortzioari eskatuko zaio derrigorrezko txostena egiteko, proposatzen diren garapenak hornitzeko behar adina ur badagoela justifikatzen duena.
 - Landa-ingurunea hornitzeko baldintzak hobetzeko aukera ere planteatzen da, lehendik dagoen urak biltzeko sistema mantenduz.

- * Saneamendua:
 - Sare lokal zaharrena pixkanaka-pixkanaka hobetu eta berritzea, hirigintza-jarduketak aukera ematen duen tokian euri-urak eta hondakin-urak bereizteko sistema ezartzea aurreikusiz.
 - Hiriko ur-sarea hirigunetik hurbil dauden baserrietara hedatzea ere komeni da.
- * Energia elektrikoa:
 - Hornidura-maila areagotzeko premia aztertuko da, transformazio-zentro berrien instalazioa barne, proposatzen diren garapen berriak kontuan hartuta.
 - Gaur egun aireko lineen bitartez doazen tarteak lurperatzea ere aztertu egin beharko litzateke.
- * Telekomunikazioak:
 - Sarea eguneratzea edota lurperatzea, jarduketa horiek gainerako azpiegituren hobekuntzarekin bateragarri eginez.
 - Antenen udalerriko instalazioak arautzea, eta bereziki telefonia mugikorrekoak.
- * Gas-hornidura:
 - Sarean hobekuntzak egitea edota sarea handitzea hiriguneko garapen berrietarako eta hirigunetik hurbil dauden landa-eremuetarako.
- * Hondakinen tratamendua:
 - Hiri-ingurunean bilketa selektiboa ahalbidetzeko baldintza egokiak lortzeko ahalegina egingo da, birziklapena errazteko helburuarekin.

III.7. **Beste gai batzuk**

Orain arte aipatutakoaz gain, bere arreta merezi dute baita ere, besteen artean, segidan aipatzen diren gaiak:

- * Lehenengoa: hirigune eta ingurune naturalaren segurtasuna pertsonen ikuspuntutik. Hori dela eta, egungo zenbait errealitate ez daude ados segurtasun helburu horrekin, eta horregatik, beharrezko arreta edo zuzenketa merezi dute. Adibide batzuk hauek dira:
 - Santiago Bidea, A-8 autobide azpitik pasatzen den inguruan.
 - Pertsonen desplazamendurako espaloi estuak dituzten kaleak. Aritzaga kalea da adibide bat.
 - Oinezkoen ikuspuntutik trafiko gogorra edo erasotzailea duten kaleak. Aita Lertxundi kalea da adibide bat.
 - Pertsonen ikuspuntutik arriskutsuak diren beste esparru eta inguru guztiak.
- * Bigarrena: generoaren ikuspuntutik arriskutsuak eta gatazkatsuak diren esparruak eta elementuak. Ezabatu beharreko esparruak eta elementuak dira guzti horiek. Adibide batzuk, lehen aipatutakoaz gain, hauek dira:
 - Egungo frontoiaren ingurua, eskailerak barne.
 - Kultur etxearen atzekaldea.
 - Estropalari kalearen atzekaldea.
 - Salatxo ingurua.
 - Oria ibaiaren inguruan, GI-634 errepideko zubiaren azpian dagoen esparrua.
 - Generoaren ikuspuntutik arriskutsuak diren beste esparru eta inguru guztiak.
- * Hirugarrena: paisaia. Merezki duen tratamendua eta protagonismoa eman behar zaio.

Hori dela eta, lkontuan hartu daitezke aipatutako Zarautz-Azpeitia Eremu Funtzionaleko Paisaia Katalogoan, Eusko Jaurlaritzaren ekimenez 2012an idatzitakoan, proposatzen diren lan irizpideak, besterik ez bada derrigorrezko eztabaida bideratzearen.

- * Laugarrena: udalerriko zenbait ekipamenduen osatze edo indartzea.
Hori dela eta, segidan aipatzen diren gaiak arreta merezi dezakete: areto multifuntzionalaren beharrei aurre egiteko ekipamendua (zine, kontzertu, tailerrak eta antzeko beharrei aurre egiteko); egungo osasun instalakuntzak osatzeko edo haunditzeko ekipamendua, beharrezkoa izatezkerotan; zaharretxe edo pertsona helduentzako instalakuntzat osatzeko edo haunditzeko ekipamendua, beharrezkoa izatezkerotan.

III.8. Ondorioak

Oriok indarrean dagoen 2012ko Plan Orokorra berrikustea erabaki du, udalerria egungo eta etorkizuneko premia eta eskaerei erantzuna emango dien Plan berri egoki batez hornitzeko xedez.

Kontuan hartzen bada udalerri osoaren historia eta errealitatea, eta baita Oriorena ere, askotariko ezaugarriak dituzten proposamen eta erabakiei buruzko zehaztapen-, garapen- edo gauzatze-prozesu jarraitu baten emaitza dela, prozesu horren esparruan udalerriaren orainari eta geroari buruzko eztabaida kolektiboa abian jartzeko deitatz jo daiteke erabaki hura, datozen urteetan bere hirigintza-jarraitbideak eta xedeak zehazteko helburuarekin.

Testuinguru horretan eginda, dokumentu horren edukiaren xedea udalerriaren egungo errealitatera hurbiltzea da, hura ezagutzea aipatutakoa bezalako zeregin konplexuari aurre egiteko behar diren premisetako bat den heinean. Dokumentuan azaldutakoaren arabera, beste batzuen artean ondoren azalduko diren premisetan oinarrituta egin beharreko zeregintzat jo daiteke aipaturiko berrikuspena.

Lehena. Orioko bizilagunen bizi-kalitatea hobetzea.

Izan ere, kontua ez da hirigintza-proposamen abstraktuak eztabaidatzea eta planteatzea, Orioko bizilagunen premiei erantzuna emateko komenigarriak direnetan arreta jartzea baizik.

Bigarrena. Berrikuspena enpresa kolektibo gisa.

Orioko Plan Orokor berria egitea zeregin kolektibotzat jo behar da, zeregin horrek eragiten duen hausnarketa- eta eztabaida-prozesuan udalerriko bizilagunen inplikazio ahalik eta aktiboena eskatzen duena. Horregatik osatu behar da prozesu hori herritarren partaidetza-programarekin.

Hirugarrena. Orioko udalerria errealitate global eta unitario gisa.

Aurreikusitako zeregina global, unitario eta koordinatutzat jotzen da, bai udal-lurraldeari dagokionez eta bai planteatu beharreko proposamenen multzoari dagokionez, edozein arlotan eragiten dutelarik ere: natura-ingurunea; etxebizitzak; ekonomia-jarduerak; ekipamenduak; etab.

Laugarrena. Udalerraren kalitatea hobetzea eta bere potentzialtasunak optimizatzea.

Udalerraren kalitatea dagoeneko handia bada ere, kalitate hori hobetzea eta bere eremu eta ingurune bakoitzaren potentzialtasunak optimizatzea dira Plan Orokor berriaren beste helburu batzuk.

Horren ondorioz, proposatu beharreko hiri-garapenak, lehenik eta behin eta ahal izanez gero, lehendik dauden hiri-ingurune edota eraikin narriatuak berroneratzeko, suspertzeko eta berrerabiltzeko aukeratzat jo behar dira, eta baita egungo hiri-ingurunearen eta bere eremu eta inguruneen potentzialtasunak optimizatzeo aukeratzat ere. Hiri-garapenak natura-ingurunera hedatzea egungo hiri-ingurunea xede horietarako nahikoa ez izatean justifikatu behar da.

Eta berroneratzea eta hobekuntza aipatu ditugunez, Oria itsasadarraren aurrealde hiritarra kosta-arloan indarrean dauden xedapenetan xedatutako baldintzen arabera antolatzeak arreta berezia eskatzen du. Mutiozabal, Kofradia, Ceramica Arocena eta beste hainbat eremu eta ingurunek arreta handia eskatzen dute arlo horretan.

Potentzialtasunak optimizatzeari dagokionez, besteak beste, Dike eremuan jarri behar da arreta.

Etxebizitza, ekonomia-jarduera, ekipamendu, espazio libre eta abarren premiei eman beharreko erantzuna interbentzio-irizpide horiekin bat datozen baldintzetan gauzatu behar da.

Bosgarrena. Plan Orokor berria eta bere proposamenak indarreko lurralde-antolamenduko tresnen eta orio hartzen duen eremu funtzionalaren testuinguruan kokatzea.

Orio ez da uharte bat, lurralde-esparru jakin batean txertatutako udalerria baizik (Urola Kostako eremu funtzionala, Gipuzkoa, Euskal Autonomia Erkidegoa, etab.). Horregatik, proposamenek, lurralde-esparru horretan ere justifikatutakoak izan behar dute.

Seigarrena. Plan Orokor berria lege-esparru konplexu eta nahasian egitea.

Lege-xedapenen multzo handi, konplexu eta deskoordinatuak zuzenean edo zeharka eragiten du Plan horrekin zerikusia duten arlo desberdinetan. Planak eta bere proposamenek horregatik behar dute egokitzapena eta justifikazioa esparru horretan.

Zazpigarrena. Plan Orokor berria eta ekonomia-arloko eta higiezinaren arloko krisia.

Ekonomia-arloko eta higiezinaren arloko krisi handi baten testuinguruan ekingo zaio plana egiteari. Egia esan, une honetako protagonista garrantzitsuenetako bat da. Beste kontu batzuen artean, higiezinaren merkatu egiaztatu eta erregular bat ez egotea dakar. Eta horrek zuzenean edo zeharka eragiten du planteatutako edo planteatu beharreko hiri-garapenen bideragarritasunaren justifikazioan, justifikazio hori zailago bihurtuz.

Donostian, 2014ko iraila

Santiago Peñalba
Arkitektoa

Manu Arruabarrena
Arkitektoa

Mikel Iriondo
Abokatua

ERANSKINA

ANEXO I. VERTEBRADOS DEL TÉRMINO MUNICIPAL DE ORIO – ORIO UDALERRIKO ORNODUNAK. I. ERANSKINA				
IZEN ZIENTIFIKOA NOMBRE CIENTIFICO	IZENA GASTELANIAZ NOMBRE CASTELLANO	IZENA EUSKERA NOMBRE EUSKERA	EGOERA ESTATUS	OHARRAK OBSERVACIONES
<i>Alosa alosa</i>	Sábalo	Kolaka	Bakana	Kolakaren Kudeaketa Plana
<i>Salmo salar</i>	Salmón	Izokin arrunta	Ez-mehatxatua	Eusko Jaurlaritzaren DB
<i>Salmo trutta fario</i>	Trucha común	Ibai amuarraina-Amuarraina	Ez-mehatxatua	Eusko Jaurlaritzaren DB
<i>Oncorhynchus mykiss</i>	Trucha arco-iris	Amuarrain ortzadarra	Ez-mehatxatua	Eusko Jaurlaritzaren DB
<i>Barbus graellsii</i>	Barbo común	Barbo arrunta	Ez-mehatxatua	Eusko Jaurlaritzaren DB
<i>Chondrostoma miegii</i>	Madrilla	Iparraldeko loina txikia	Ez-mehatxatua	Eusko Jaurlaritzaren DB
<i>Phoxinus phoxinus</i>	Piscardo	Ezkailua	Ez-mehatxatua	Eusko Jaurlaritzaren DB
<i>Anguilla anguilla</i>	Anguila	Ibai aingira	Ez-mehatxatua	Eusko Jaurlaritzaren DB
<i>Pomatoschistus microps</i>	Cabuxino enano	Bokaletako zarboa	Ez-mehatxatua	Eusko Jaurlaritzaren DB
<i>Chelon labrosus</i>	Lisa	Hondoetako korrokoa	Ez-mehatxatua	Eusko Jaurlaritzaren DB
<i>Platichthys flesus</i>	Platija	Platuxa latza	Ez-mehatxatua	Eusko Jaurlaritzaren DB
<i>Triturus helveticus</i>	Tritón palmeado	Uhandre palmatua	Ez-mehatxatua	Eusko Jaurlaritzaren DB
<i>Triturus marmoratus</i>	Tritón jaspeado	Uhandre marmolairea	Ez-mehatxatua	Eusko Jaurlaritzaren DB
<i>Alytes obstetricans</i>	Sapo partero	Txantxiku arrunta	Ez-mehatxatua	Eusko Jaurlaritzaren DB
<i>Bufo bufo</i>	Sapo común	Apo arrunta	Ez-mehatxatua	Eusko Jaurlaritzaren DB
<i>Hyla arborea</i>	Ranita de San Antonio	Zuhaitz-igel arrunta	Ez-mehatxatua	Eusko Jaurlaritzaren DB
<i>Hyla meridionalis</i>	Ranita meridional	Hegoaldeko zuhaitz-igela	Galtzeko arriskuan	Eusko Jaurlaritzaren DB (birsartzen)
<i>Rana temporaria</i>	Rana bermeja	Baso-igel gorria	Ez-mehatxatua	Eusko Jaurlaritzaren DB
<i>Lacerta viridis</i>	Lagarto verde	Musker berdea	Ez-mehatxatua	Eusko Jaurlaritzaren DB
<i>Lacerta vivipara</i>	Lagartija de turbera	Sugandila bizierrulea	Ez-mehatxatua	Eusko Jaurlaritzaren DB
<i>Podarcis hispanica</i>	Lagartija ibérica	Sugandila iberiarra	Ez-mehatxatua	Eusko Jaurlaritzaren DB
<i>Podarcis muralis</i>	Lagartija roquera	Horma-sugandila	Ez-mehatxatua	Eusko Jaurlaritzaren DB
<i>Anguis fragilis</i>	Lución	Zirauna	Ez-mehatxatua	Eusko Jaurlaritzaren DB
<i>Coronella austriaca</i>	Culebra lisa	Iparraldeko suge leuna	Ez-mehatxatua	Eusko Jaurlaritzaren DB
<i>Elaphe longissima</i>	Culebra de Esculapio	Eskulapioren sugea	Interes berezikoa	Eusko Jaurlaritzaren DB
<i>Natrix maura</i>	Culebra viperina	Suge biperakara	Ez-mehatxatua	Eusko Jaurlaritzaren DB
<i>Natrix natrix</i>	Culebra de collar	Suge gorbataduna	Ez-mehatxatua	Eusko Jaurlaritzaren DB
<i>Vipera seoanei</i>	Víbora de Seoane	Seoane sugegorria	Ez-mehatxatua	Eusko Jaurlaritzaren DB
<i>Buteo buteo</i>	Ratonero común	Zapelatz arrunta	Ez-mehatxatua	Eusko Jaurlaritzaren DB
<i>Falco tinnunculus</i>	Cernícalo vulgar	Belatz gorria	Ez-mehatxatua	Eusko Jaurlaritzaren DB
<i>Cortunx cortunx</i>	Codorniz	Galeperra	Ez-mehatxatua	Eusko Jaurlaritzaren DB
<i>Gallinula chloropus</i>	Polla de agua	Uroillo arrunta	Ez-mehatxatua	Eusko Jaurlaritzaren DB
<i>Charadrius dubios</i>	Chorlitejo chico	Txirritxo txikia	Kaltebera	Hegazti habiagileen 2001eko atlasa
<i>Larus argentatus</i>	Gaviota argentea	Kaio hauskara	Ez-mehatxatua	Eusko Jaurlaritzaren DB
<i>Cuculus canorus</i>	Cuco	Kukua	Ez-mehatxatua	Eusko Jaurlaritzaren DB
<i>Tyto alba</i>	Lechuza común	Hontza zuria	Ez-mehatxatua	Eusko Jaurlaritzaren DB
<i>Otus scops</i>	Autillo	Apo-hontza	Ez-mehatxatua	Eusko Jaurlaritzaren DB
<i>Strix aluco</i>	Cárabo	Urubia	Ez-mehatxatua	Eusko Jaurlaritzaren DB
<i>Apus apus</i>	Vencejo común	Sorbeltz arrunta	Ez-mehatxatua	Eusko Jaurlaritzaren DB

ANEXO I. VERTEBRADOS DEL TÉRMINO MUNICIPAL DE ORIO – ORIO UDALERRIKO ORNODUNAK. I. ERANSKINA				
IZEN ZIENTIKIKOA NOMBRE CIENTIFICO	IZENA GASTELANIAZ NOMBRE CASTELLANO	IZENA EUSKERA NOMBRE EUSKERA	EGOERA ESTATUS	OHARRAK OBSERVACIONES
<i>Alcedo atthis</i>	Martín pescador	Martin arrantzalea	Interes berezikoa	Eusko Jaurlaritzaren DB
<i>Jynx torquilla</i>	Torcecuello	Lepitzulia	Interes berezikoa	Eusko Jaurlaritzaren DB
<i>Dendrocopos minor</i>	Pico menor	Okil txikia	Interes berezikoa	Habiagileen 2001eko atlasaren arabera, ez dago
<i>Riparia riparia</i>	Avión zapador	Uhalde-enara	Kaltebera	Hegazti habiagileen 2001eko atlasa
<i>Hirundo rustica</i>	Golondrina común	Enara arrunta	Ez-mehatxatua	Eusko Jaurlaritzaren DB
<i>Delichon urbica</i>	Avión común	Enara azpizuria	Ez-mehatxatua	Eusko Jaurlaritzaren DB
<i>Anthus trivialis</i>	Bisbita arbóreo	Uda-txirta	Ez-mehatxatua	Eusko Jaurlaritzaren DB
<i>Motacilla cinerea</i>	Lavandera cascadeña	Buztanikara horia	Ez-mehatxatua	Eusko Jaurlaritzaren DB
<i>Motacilla alba</i>	Lavandera blanca	Buztanikara zuri	Ez-mehatxatua	Eusko Jaurlaritzaren DB
<i>Troglodytes troglodytes</i>	Chochín	Txepetxa	Ez-mehatxatua	Eusko Jaurlaritzaren DB
<i>Prunella modularis</i>	Acentor común	Tuntun arrunta	Ez-mehatxatua	Eusko Jaurlaritzaren DB
<i>Erithacus rubecula</i>	Petirrojo	Txantxangorria	Ez-mehatxatua	Eusko Jaurlaritzaren DB
<i>Phoenicurus ochruros</i>	Colirrojo tizón	Buztangorri iluna	Ez-mehatxatua	Eusko Jaurlaritzaren DB
<i>Saxicola torquata</i>	Tarabilla común	Pitxartxar burubeltza	Ez-mehatxatua	Eusko Jaurlaritzaren DB
<i>Turdus merula</i>	Mirlo común	Zozo-Arrunta	Ez-mehatxatua	Eusko Jaurlaritzaren DB
<i>Turdus philomelos</i>	Zorzal común	Birigarro arrunta	Ez-mehatxatua	Eusko Jaurlaritzaren DB
<i>Cettia cetti</i>	Ruiseñor bastardo	Errekaxindorra	Ez-mehatxatua	Eusko Jaurlaritzaren DB
<i>Cisticola juncidis</i>	Buitrón	Ihi-txoria	Ez-mehatxatua	Eusko Jaurlaritzaren DB
<i>Locustella naevia</i>	Buscarla pintoja	Benariz nabarra	Ez-mehatxatua	Eusko Jaurlaritzaren DB
<i>Acrocephalus scirpaceus</i>	Carricero común	Lezkari arrunta	Bakana	Eusko Jaurlaritzaren DB (2001eko atlas)
<i>Hippolais polyglotta</i>	Zarcero común	Sasitxori arrunta	Ez-mehatxatua	Eusko Jaurlaritzaren DB
<i>Sylvia undata</i>	Curruca rabilarga	Ota-txinboa	Ez-mehatxatua	Eusko Jaurlaritzaren DB
<i>Sylvia communis</i>	Curruca zarcera	Sasi-tximboa	Ez-mehatxatua	Eusko Jaurlaritzaren DB
<i>Sylvia borin</i>	Curruca mosquitera	Baso-tximboa	Ez-mehatxatua	Eusko Jaurlaritzaren DB
<i>Sylvia atricapilla</i>	Curruca capirota	Tximbo kaskabeltza	Ez-mehatxatua	Eusko Jaurlaritzaren DB
<i>Phylloscopus collybita</i>	Mosquitero común	Txio arrunta	Ez-mehatxatua	Eusko Jaurlaritzaren DB
<i>Phylloscopus trochilus</i>	Mosquitero musical	Txio horia	Bakana	Hegazti habiagileen 2001eko atlas
<i>Regulus ignicapillus</i>	Reyezuelo listado	Erregetxo bekainzuria	Ez-mehatxatua	Eusko Jaurlaritzaren DB
<i>Muscicapa striata</i>	Papamoscas gris	Eulitxori grisa	Ez-mehatxatua	Eusko Jaurlaritzaren DB
<i>Aegithalos caudatus</i>	Mito	Buztan luzea	Ez-mehatxatua	Eusko Jaurlaritzaren DB
<i>Parus cristatus</i>	Herrerillo capuchino	Amilotx mottoduna	Ez-mehatxatua	Eusko Jaurlaritzaren DB
<i>Parus ater</i>	Carbonero garrapinos	Piñu kaskabeltza	Ez-mehatxatua	Eusko Jaurlaritzaren DB
<i>Parus caeruleus</i>	Herrerillo común	Amilotx urdina	Ez-mehatxatua	Eusko Jaurlaritzaren DB
<i>Parus major</i>	Carbonero común	Kaskabeltz handia	Ez-mehatxatua	Eusko Jaurlaritzaren DB
<i>Certhia brachydactyla</i>	Agateador común	Geri-txorri arrunta	Ez-mehatxatua	Eusko Jaurlaritzaren DB
<i>Lanius collurio</i>	Alcaudón dorsirrojo	Antzandobi arrunta	Ez-mehatxatua	Eusko Jaurlaritzaren DB
<i>Lanius senator</i>	Alcaudón común	Antzandobi kaskagorria	Kaltebera	Habiagileen 2001eko atlasaren arabera, ez

ANEXO I. VERTEBRADOS DEL TÉRMINO MUNICIPAL DE ORIO – ORIO UDALERRIKO ORNODUNAK. I. ERANSKINA				
IZEN ZIENTIFIKOA NOMBRE CIENTIFICO	IZENA GASTELANIAZ NOMBRE CASTELLANO	IZENA EUSKERA NOMBRE EUSKERA	EGOERA ESTATUS	OHARRAK OBSERVACIONES
				dago
<i>Garrulus glandarius</i>	Arrendajo común	Eskinosoa	Ez-mehatxatua	Eusko Jaurlaritzaren DB
<i>Pica pica</i>	Urraca	Mika	Ez-mehatxatua	Eusko Jaurlaritzaren DB
<i>Corvus corax</i>	<i>Cuervo</i>	Erroia	Interes berezikoa	Hegazti habiagileen 2001eko atlasa
<i>Sturnus vulgaris</i>	Estornino pinto	Araba zozo pikarta	Ez-mehatxatua	Eusko Jaurlaritzaren DB
<i>Passer domesticus</i>	Gorrión común	Etxe-txolarre	Ez-mehatxatua	Eusko Jaurlaritzaren DB
<i>Passer montanus</i>	Gorrión molinero	Landa-txolarrea	Ez-mehatxatua	Eusko Jaurlaritzaren DB
<i>Fringilla coelebs</i>	Pinzón vulgar	Txonta arrunta	Ez-mehatxatua	Eusko Jaurlaritzaren DB
<i>Serinus serinus</i>	Verdecillo	Txirriskil arrunta	Ez-mehatxatua	Eusko Jaurlaritzaren DB
<i>Carduelis chloris</i>	Verderón común	Txorru arrunta	Ez-mehatxatua	Eusko Jaurlaritzaren DB
<i>Carduelis carduelis</i>	Jilguero	Karnaba	Ez-mehatxatua	Eusko Jaurlaritzaren DB
<i>Carduelis cannabina</i>	Pardillo común	Txoka arrunta	Ez-mehatxatua	Eusko Jaurlaritzaren DB
<i>Pyrrhula pyrrhula</i>	Camachuelo común	Gailupa	Ez-mehatxatua	Eusko Jaurlaritzaren DB
<i>Emberiza citrinella</i>	Escribano cerillo	Berdantza horia	Ez-mehatxatua	Eusko Jaurlaritzaren DB
<i>Emberiza cirrus</i>	Escribano soteño	Hesi-berdantza	Ez-mehatxatua	Eusko Jaurlaritzaren DB
<i>Emberiza cia</i>	Escribano montesino	Mendi-berdantza	Ez-mehatxatua	Eusko Jaurlaritzaren DB
<i>Emberiza calandra</i>	Triguero	Gari-berdantza	Ez-mehatxatua	Eusko Jaurlaritzaren DB
<i>Erinaceus europaeus</i>	Erizo común	Triku arrunta	Ez-mehatxatua	Eusko Jaurlaritzaren DB
<i>Sorex coronatus</i>	Musaraña de Millet	Millet satitsua	Ez-mehatxatua	Eusko Jaurlaritzaren DB
<i>Sorex minutus</i>	Musaraña enana	Satitsu txikia	Ez-mehatxatua	Eusko Jaurlaritzaren DB
<i>Neomys fodiens</i>	Musgaño patiblanco	Ur-satitsu ankazuria	Ez-mehatxatua	Eusko Jaurlaritzaren DB
<i>Crocidura suaveolens</i>	Musaraña campesina	Baratz-satitsua	Ez-mehatxatua	Eusko Jaurlaritzaren DB
<i>Crocidura russula</i>	Musaraña común	Satitsu arrunta	Ez-mehatxatua	Eusko Jaurlaritzaren DB
<i>Talpa europaea</i>	Topo común	Sator arrunta	Ez-mehatxatua	Eusko Jaurlaritzaren DB
<i>Lepus capensis</i>	Liebre	Erbia	Ez-mehatxatua	Eusko Jaurlaritzaren DB
<i>Oryctolagus cuniculus</i>	Conejo común	Mendi-Untxia	Ez-mehatxatua	Eusko Jaurlaritzaren DB
<i>Sciurus vulgaris</i>	Ardilla común	Katagorri arrunta	Ez-mehatxatua	Eusko Jaurlaritzaren DB
<i>Clethrionomys glareolus</i>	Topillo rojo	Lursagu gorria	Ez-mehatxatua	Eusko Jaurlaritzaren DB
<i>Arvicola terrestris</i>	Rata de agua norteña	Ekialdeko ur-arratoia	Ez-mehatxatua	Eusko Jaurlaritzaren DB
<i>Arvicola sapidus</i>	Rata de agua	Mendebaldeko ur-arratoia	Ez-mehatxatua	Eusko Jaurlaritzaren DB
<i>Pitymys pyrenaicus</i>	Topillo pirenaico	Satain piriniarra	Ez-mehatxatua	Eusko Jaurlaritzaren DB
<i>Pitymys lusitanicus</i>	Topillo lusitánico	Lursagu lusitaniarra	Ez-mehatxatua	Eusko Jaurlaritzaren DB
<i>Microtus agrestis</i>	Ratilla agreste	Larre-lursagua	Ez-mehatxatua	Eusko Jaurlaritzaren DB
<i>Micromys minutus</i>	Ratón espiguero	Uzta-sagua	Ez-mehatxatua	Eusko Jaurlaritzaren DB
<i>Apodemus sylvaticus</i>	Ratón de campo	Basasagua	Ez-mehatxatua	Eusko Jaurlaritzaren DB
<i>Rattus norvegicus</i>	Rata común	Arratoi arrunta	Ez-mehatxatua	Eusko Jaurlaritzaren DB
<i>Mus musculus</i>	Ratón casero	Etxe-sagua	Ez-mehatxatua	Eusko Jaurlaritzaren DB
<i>Glis glis</i>	Lirón gris	Muxar grisa	Kaltebera	Ez-probablea
<i>Vulpes vulpes</i>	Zorro común	Azeri arrunta	Ez-mehatxatua	Eusko Jaurlaritzaren DB
<i>Mustela nivalis</i>	Comadreja	Erbinuea	Ez-mehatxatua	Eusko Jaurlaritzaren DB
<i>Martes foina</i>	Garduña	Lepazuria	Ez-mehatxatua	Eusko Jaurlaritzaren DB
<i>Rhinolophus euryale</i>	Murciélago grande de herradura	Ferra-saguzar mediterranea	Galtzeko arriskuan	Ez dago